



MEMORIA 2016



AURKIBIDEA

DONOSTIA KULTURA: 2016KO BALANTZEA	3
ERAKUNDEAREN EGITURA ETA BALANTZE EKONOMIKOA	9
KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIA	11
DONOSTIA KULTURAKO BAZKIDEAK	13
ANTZOKIAK	
Victoria Eugenia Antzokia	17
Antzoki Zaharra	19
SAN TELMO MUSEOA	21
KULTUR ETXEAK	
Kultur Ekintza	28
Aiete	35
Casares-Tomasene	39
Larratxo	43
Egia	46
Ernest Lluch	51
Larrotxene	55
Intxaurrenondo	58
Loiola	62
Lugaritz	66
Okendo	70
LIBURUTEGIAK	73
PROGRAMAZIOA	
Musika	86
Arte Eszenikoak	89
Zinea eta ikus-entzunezkoak	91
FESTAK	94
JAIALDIAK	
Heineken Jazzaldia 2016	104
Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea 2016	108
Giza Eskubideen Zinemaldia 2016	110
Surfilmfestibal 2016	112
dFERIA 2016	114
dKluba 2016	120
Olatu Talka 2016	121
Poltsiko Antzerkia 2016	124
EUROPAKO PROGRAMAK	126
PRODUKZIOA	132



Donostia Kulturako BALANTZEA



2016. urtea inflexio-puntua izan zen Donostia Kulturarentzat zenbait alderditan:

*Donostia Kulturak -zeinak, hiriko festak ez ezik, beste 15 kultur marka nagusi hartzen baititu bere baitan: Victoria Eugenia Antzokia, San Telmo Museoa, Donostia Kultura Festak, Heineken Jazzaldia, Olatu Talka, Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea, dKLUBA, Literaktum, dFERIA, Beste Hitzak/Other Words, Giza Eskubideen Zinemaldia, Musikagela, Casares Irratia, Txikijazz eta Larrotxene Bideo-bere **irudi korporatiboa berritu**, eta logotipo berria estreinatu zuen.

*Donostiako Udal Liburutegien Sarea, bestalde, **Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean integratu** zen.

***Marka guztiak hautsi** ziren, programatutako jarduera kopuruan ez ezik, baita, oro har, zerbitzu-erabiltzaileen kopuruan ere:


- 1.267.600 bisitari kultur etxeetan
- 1.050.000 parte-hartzaile Aste Nagusiko ekitaldietan
- 927.487 erabiltzaile liburutegietan
- 5.000tik gora jarduera programazioetan
- 215.113 sarrera salduta, %15 gehiago

Hiriak 2016. urtean bizi izan zuen **Europako Kultura Hiriburutzaren** inguruko ospakizun nagusiak markatu zuen Donostia Kulturaren iazko egunez egunekoa; izan ere, handia izan zen elkarren arteko lana, eta, areago, hiributzaren kultur ondarearen parte bat bere gain hartu, eta aurrera eramango du Donostia Kulturak. Laster izango da aukera adibide horietako bat ikusteko: datorren maiatzean Olatu Talka jaialdia ospatuko da berriz ere, eta aurtengo edizioa Donostia Kulturaren esku dago erabat, eta ilusioz eta gogoz beterik heldu dio.

Gaur 2016ko balantzea egin behar dugu. 2017. urtea abiatu da, eta plan asko ditugu esku artean, programa asko, eta laster hasiko gara haien berri ematen. 2016k ekarri zigun ospakizunaren hurrenean, ilusio handiz heldu diogu aurtengoari, 30 urteko ibilbide luze oparoak ematen digun sendotasunez eta gauzak ondo egiten dakigulako akuiluaren

indarrez. Donostia Kultura sakon errotuta dago hirian; horren erakusgarri, bazkide kopurua hazi egiten da urtetik urtera, erritmo etengabea. Dagoeneko **95.426 bazkide ditu erakundeak** (haietatik % 77, donostiarrak), eta horrek esan nahi du konfiantza sortzen duela jendearengan, bide egokitatz jotzen dela kulturara iristikeko eta hartaz gozatzeko -ikastaroak direla, zerbitzuak direla, promazioarekiko abantailak direla...-; hitz batean, bide egokitatz jotzen dela Donostiako kultur bizitzan parte hartzeko.

Gizarte Erantzunkizun Korporatiboaren alorrean, barnera begira, Donostia Kulturak 2014-2019 Euskara Plana sustatu zuen, bai eta Berdintasun Plana I (2014-2019) ere. 2016an, bestalde, 230etik gora lagun dituen langile-zerrendako lanpostuen balorazioa egiten hasi zen. Kanpora begira, berriz, erakundearen nazioartekotzea





James Rhodes

sustatu zen, eta bide berriak zabaldu, nazioarteko sareko askotariko erakunde eta eragileekin kolaboratzeko, eta nazioarteko kultur ordezkaritza ugari hartu genituen. Bukatzeko, Donostia Kulturako zenbait langileren ekimenez, "katiuska" proiektuaren erronkari heldu, eta aurreko apirilaren 17an 15.000 bota pare bildu ziren, eta errefuxiatuen zenbait kanpamentutara bidali.

Hona hemen, laburbilduta, 2016. ekitaldiko alderdi nagusiak.

Kultur Etxe eta Liburutegiak

Donostiako kultur etxeek guztira 1.267.600 bisita izan zituzten 2016. urtean; 3.800tik gora jarduera programatu zituzten, eta 286.000 lagunek parte hartu zuten haietan. Kultur Ekintza departamentuak koordinatzen du Donostiako kultur etheen sarea, eta bertan kudeatzen dira zenbait kultur programa, besteak beste: **Literaktum** (aurten James Rhodes, Juan José Millas, Elvira Lindo eta Bernardo Atxaga izan ziren); **dKluba** (11.000 ikus-entzule mugiarazi zituzten 46 kontzertu egin ziren hirian: Lloyd Cole, Nada Surf, Laura Cox, Revolutionay Brothers, etc.); **Poltsiko Antzerkia** (25. urteurrena ospatu zuen, gainera); **Antzerkia Kalean**; **Musika Parkean**; eta **Olatu Talka** jaialdi parte-hartzailea, Europako Kultura Hiriburutzak utzitako ondareetako bat, Donostia Kulturak bere gain hartu duena.

Bestalde, kultur etxeak, liburutegiekin batera, kultur zerbitzu asko gauzatzen dituzte. Zerbitzu arrakastatsuenak nabarmentzekotan, bi aipatu behar dira. Batetik, **ikastaroak**: 2016-2017 ikasturtean, 614 ikastaro antolatu ziren eta 8.000tik gora lagun matrikulatu ziren. Bestetik, Musikagela zerbitzua, non musika jotzeko gelak ez ezik,

maketak grabatzeko aholkularitza ere eskaintzen baita besteak beste.

Kultur etxe bakoitza lotura estua du, jakina, bera kokatuta dagoen auzoko mugimendu eragileekin, eta horrek berariazko izaera ematen dio bakoitzari. Horrenbestez, 2016an ere, bakoitzak bere ildoak sakon markatzen jarraitu zuen eta ekarpen nabarmenen bat egin zion hiriari. Hona hemen laburbilduta. **Aiete Kultur Etxeak** giza eskubideen inguruko sei erakusketa antolatu zituen eta bost ilustratzaile omendu zituen: Iñaki Martiarena *Mattin*, Ainara Azpiazu *Axpi*, Concetta Probanza, Quentin Blake eta Unai Zoco. **Casares-Tomasene Kultur Etxeak** Casares irratia kudeatzen du, eta 2016an % 50 igo zen Internet bidez egindako irrati-entzunaldien kopurua; bestalde, Hamaika Entzuteko lehiaketaren bigarren edizioa egin zen. **Larratxo Kultur Etxeak**, berriz, Heavy Jaia, Etengabeko Zarata eta Euskal Metal Fest jailadiak antolatu zituen, eta, bestalde, *Azken tren*a *Treblinkara* obra estreinatu zuen, sorkuntza- eta bitartekaritza-lan abesgarri baten ondoren. **Egia Kultur Etxea** erreferentzia da abangoardiako antzerki-, dantza- eta zirku-

ikuskizunei dagokienez, eta, 2016an, besteak beste, Roberto Olivan, Daniel Abreu, Guy Nader & María Campos eta Pere Faura artisten lanak jarri zituen ikusgai, bai eta Lasala, Cielo Raso eta Ertza euskal konpainien lanak ere. **Ernest Lluch Kultur Etxeak**, Erakusleioha programaz gain, hainbat erakusketa antolatu zuen, eta Solasean programaren barnean Ramon Saizarbitoria eta Marta Macho Stagler izan ziren, besteak beste. Ezin ahaztu, bestalde, Amarauna proiektua, zeinak DSS2016Euren eskutik 2016n Amarapedia lan-ildoak zabaldu baitzuen. **Intxaurren Kultur Etxea** erreferente nagusi bihurtu da musikagile independenteentzat, eta gune arrakastatsua, dKluba programa eta Musikagela zerbitzuari esker, zeinak iaz eskaintza zabaldu eta zenbait ikasgai magistral programatu baitzituen Ariel Rot, Diego García El Twanguero eta Jean Marie Ecay bezalako musikarien eskutik. **Larrotxene Kultur Etxeak** ikus-entzunezkoen ildoak jorratzen jarraitu zuen: iaz, ohiko ikastaro espezializatuak ez ezik, XXVIII. Bideoaldia antolatu zuen eta Kalebegiak proiektuan parte hartu zuen. **Loiola Kultur Etxean**, berriz,





Donostia Kulturako BALANTZEA



Basoka

Betania Etxearen 25. urteurrena eta Ibaiertz abesbatzaren 10. urteurrena ospatu ziren. Bestalde, **Lugaritz Kultur Etxearen** programazioan arte eszeniko berritzaileenak izan ziren protagonista; nabarmentzekoa da Théâtre des Chimères konpainiaren "Azken Itzulia" proiektua. Azkenik, **Okendo Kultur Etxeak**, ohikoa denez, arte-erakusketa askotarikoak antolatu zituen. Aipatu behar da, bukatzeko, kultur etxe hauek guztiek Street tARTar, Energia Olatuak, Olatu Talka eta Urbanzientzia europar programetan parte hartzen dutela.

Donostia Kulturak kudeatzen dituen programa, jaialdi eta ekitaldien artean, **Olatu Talka** proiektua da 2016ko Kultura Hiriburutzak utzitako ondareetako bat. Hain zuzen ere, 2016an, *Hiria denon artean egiten* lelopean, 2.000 eragilek 200 jarduera antolatu eta kudeatu zituzten kultura parte-hartzailea sustatu nahi duen topagune honen harira, eta 25.000 herritarrek parte hartu zuten bertan.

Bestalde, **Donostia Kulturako liburutegi-sarea** Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean (EIPS) integratu zen 2016n. Bat-egite informatiko horrek liburutegi-eskaintza zabaldu die Donostiako liburutegi-erabiltzaile guztiei, baina aldaketa orok bezala, egokitzen teknika eskatzen du: udal liburutegien sareko 72.583 bazkide aktiboak OPAC katalogo

berrira migratu ziren, eta katalogo berria erabiltzen trebatzeko prozesua beharko dute. Guztiarekin ere, 2016an, **927.487 bisita** egin ziren gure liburutegietara, eta **495.731 mailegu** egin ziren, eta horrek esan nahi du 2,70 mailegu egin zirela biztanleko (Europaren batezbestekotik hurbil).

Esparru honetan, Donostia Kulturak guztira **994 jarduera** programatu zituen, eta hazkunde nabarmena nabari zen partaidetzan -hain zuzen **34.180 parte-hartzaile-**, batez ere **Literaktum** jaialdian, **Liburuaren Nazioarteko Egunean** eta **Poesia eta Pentsamendua** programako ekitaldietan.

Literaktum jaialdiak, zehazki, 19 literatur topaketa egin zituen, besteak beste, **James Rhodes, Juan José Millás, Bernardo Atxaga eta Elvira Lindo** idazleekin.



Bernardo Atxaga

Festak

Donostiako festa-ospakizunetan parte hartu duten herritarren kopuruei buruzko zenbakiak ere, borobilak dira: **1.050.000 lagun, Aste Nagusian**, non 427 ekitaldi eta 23 eszenategi aktibo izan baitziren; 1.763 lagunek parte hartu zuten haur-danborradan, eta 16.227 lagun, berriz, helduenetan, 136 danborradatan banatuta; 720.000 lagunek ikusi zuten Su Artifizialen Nazioarteko Lehiaketa; 35.000 lagunek, Kontxako Estropada; 70.000 lagun egon ziren Santo Tomaseko Ferian, 210 posturen artean; eta abar.

Donostia Kulturako Festak unitateak 100etik gora konpromiso hartu zituen hiriko zenbait kale eta auzotan festak egiteko. Berritasunen artean, hauexek, besteak beste:

- Errege Magoak Donostiako auzoetara iristen hasi dira; iaz, zehazki, Altzaraino iritsi ziren.
- Haur-danborradan, sukaldaria figura sartu zen.
- Su Artifizialen Nazioarteko Lehiaketaren LIII. edizioak "Europako Kultura Hiriburuak" gaia aukeratu zuen.

Izan ere, iazko edizioan parte hartu zuten 7 piroteknia-etxeak inoiz Europako kultura-hiriburu izendatutako hirietatik baitzetozen. Hiributzairen aldeko beste keinu adierazgarri bat urtarilaren 23an gertatu zen, Kontxa hondartzan, han elkartu baitziren 6.000 danbor-jole Hiributzairen ekitaldi-programazioari hasiera emateko.



Nabarmentzekoa da, halaber, app aplikazio berri bat sortu izana herritarrek Aste Nagusia gertutik jarraitzeko, bai eta beste hainbat festa-ekitaldi antolatu izana ere: Bertso Eguna, Olentzero, Kaldereroak, Iñudeak eta Artzainak, Inauteriak, San Juan Bezpera... Bai eta auzoetako jaiak ere, jakina.



Donostia Kulturako BALANTZEA



Barbara Hendricks

Programazioa

Victoria Eugenia Antzokiko 2016ko programazioa balioztatzeko, nahikoa da haren eszenategira igo zirenen izen-zerrenda ikusita. Luzea da; hona hemen izen horietako batzuk: Nuria Espert, Ramón Barea, Lola Herrera, Concha Velasco, Natalia Millán, Rafael Álvarez El Brujo, Goyo Jiménez, Josema Juste, Candela Peña, Luis Varela eta Iñaki Miramón, antzezleen artean; Silvia Pérez Cruz, Barbara Hendricks, Graham Nash, Judith Jauregui eta Benito Lertxundi (Adarra Saria 2016), musikarien artean. Bestalde, hiriko ekitaldi eta jaialdi nagusiei egoitza eskaintzeaz gain -Heineken Jazzaldia, Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea, dFERIA, Giza Eskubideen Zinemaldia, Musika Hamabostaldia eta Donostiako Nazioarteko Zinemaldia-, arte eszenikoetako konpainia eta musika-talde ugari ikuskizunak eskaini ditu, besteak beste, Kukai, La Veronal, Chevy Muraday, GöteborgsOperan, Oreka Tx, Hirayama Motoko, Sharon Fridmn, Ballet de Monreal, Malandain Ballet Biarritz, Opus Lírica, Gandini, Recirquel eta Morfeo Teatro taldeena.

Antzoki Zaharra, bestalde, udako antzerki-programazioko protagonista bihurtu zen Bibiana Fernández, Manuel Banderas, Enrique San Francisco, Silvia Marsó eta Jesús Cisneros bezalako izenen eskutik. Euskarazko

antzerkiak ere presentzia handia izan zuen, eta han izan ziren Tarten, Ados, Tanttaka, Vaivén eta Txalo taldeen proposamenak, zeinek, 2016an, Euskal Musika programarekin batera partekatu baitzuten eszenategia, han izan baitziren Pantxoa Carrere, Petti eta Bide Ertzean. Horrez gain, Antzoki Zaharrak hiriko zinemaldi eta zinematiklo nagusiak hartu zituen egoitzan: Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea, Dock of the Bay dokumentalden zinemaldia, Surfilm Festibal, Bang Bang Donostia zinema ludikoko proiektzioak, Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Erakustaldia eta Donostiako Nazioarteko Zinemaldia.

Arte eszenikoei dagokienez, Donostia Kulturak 124 emanaldi programatu zituen, arte eszenikoetarako dituen lau guneean, eta 12.889 ikusle bertaratu ziren haiek ikustera. *Eskolatik Antzokira* izeneko programa didaktikoak 6.953 haur hurbilarazi zituen espazio eszenikoetara. Bestalde, *Zertarako balio du antzerkiak?* goiburuko antzerki-eskaintzak gai unibertsalei eta tradizionalei buruzko ikuspuntu gaurkotua eskaini zuen; sail honetan izan ziren, besteak beste, *Labio de liebre* obra kolonbiarra, *Hotel Splendid* korearra eta *Incendios*, Mario Gasena. Dantzaren esparruan, berriz, goiburua izan zen *Ezberdinen arteko topaketa*, eta GöteborgOperans Danskompani taldeak *Noetic* obra ekarri zuen, Oreka TX taldeak *Hybrid rhythm & Dance* eta Kukai taldeak, azkenik, *Oskara. Maitasunaren otean maitasuna* obrak irabazi zuen Donostia Antzerki Saria euskarazko obra

onenari. Ezin ahaztu, bestalde, zarzuelak, Mamma mia musika eta Opus Lírica-ren *Don Pascuale*.

Arte eszenikoetako **dFERIA**ri azokari buruz, berriz, esan beharra dago iazkoa haren hogeita bigarren edizioa izan zela: 31 ikuskizun izan ziren, 10 eszenategitan, eta **40 emanaldi**; 13.000 pertsonak parte hartu zuten, eta 406 profesional akreditatu ziren. Ikuskizun horietatik, % 70 baino gehiago estrainaldiak izan ziren, eta, horietatik 6, euskaraz. Iazko edizioan, bestalde, bi espazio berri sortu ziren Tabakaleran.

Poltsiko Antzerkiaren 25. urteurrena ospatu genuen: 26 emanaldi programatu ziren eta 3.000 ikuslek parte hartu zuten.



Oskara



El amor está en el aire



Donostia Kulturako BALANTZEA



Tony Gatlif, Giza Eskubideen Saria

Zinemari dagokionez, Nosferatu zikloak **Kieslowski** zuzendari poloniarra eta **Screwball Comedy** omendu zituen iaz.

Zinemaldiei buruz, iazko **Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea** kutsu japoniar nabaria izan zuen, eta, bestalde, DSS2016EU hiributzarekin lotutako zenbait proiektu ere izan zituen tartearen, besteak beste, Misterioaren Itsasargia eta Star Trek seriaren 50. urteurrena. **Giza Eskubideen Zinemaldia** inoiz baino nazioartekotuago azaldu zen: **Tony Gatlif** zinemagileari eman zion sari nagusia, eta errefuxiatuen gaia sakon jorratu zuen. **Surfilm Festibalean**, berriz, *Abentura Ozeanikoa* filma nabarmendu zen, Albaolan izandako emanaldian. Horretaz gain, Donostia Kulturak beste hainbat zinemaldi eta zinema-topagune antolatzen lagundu du, besteak beste, **Dock of The Bay, Itsaspeko Zinemaren 40. Zikloa, Menditour, Cine Creative Commons, V. Jardunaldia Emakumeek Egindako Zinemaz, Zinegoak, Zinema Hondartzan, Bang Bang Donostia, Zinema eta Matematikak...** Eta, azkenik, **Filmazpit** programa kudeatu du, euskaraz azpiztitulatutako filmen katalogoa hain zuzen.

Donostia Kulturaren **Musika** unitateak, jada aipatu diren Victoria Eugenia

Antzokiko eta Antzoki Zaharreko kontzertuez gain, Kursaal Eszenak herri-musikari eskainitako atala programatu zuen, eta, hala, **Buika, Elvis Costello, Tricky eta George Benson** izan genituen gure artean, bai eta **Momix** ikuskizuna eta **Mariachi Vargas de Tecali** taldea eta Donostiako Orfeoia ere. Adarra Saria 2016, bestalde, **Benito Lertxundi** musikariari eman zitzaion, eta Festival 12 points bezalako ekimenen bitartez lortu zen nazioarteko programazioa areagotzea. Guztira, 68 kontzertu izan ziren (16 euskaraz), eta 25.000 ikus-entzule izan ziren haietan.



Benito Lertxundi © Iker Garaizabal

Ezin aipatu gabe utzi zenbaterainoko arrakasta izan zuen Heineken **Jazzaldia**ren **51. edizioak**: 131etik gora kontzertu jo ziren, haietatik 84 doakoak, eta 177.000tik gora ikus-entzule izan ziren. Eszenategien kopurua zabaldu zen, eta guztira 20 izan genituen. **Gloria Gaynor** abeslariak eman zion hasiera iazko edizioari, ikusgarriro eman ere: 45.000 pertsona elkartu ziren Zurriolako hondartzan hari entzutera, eta **Ellis Marsallisek** jaso zuen jazzaldiaren saria. Asko dira iazko jazzaldian Donostiatik pasa zirenak; batzuk aipatzearren: **Dave Douglas, Marc Ribot, Diana Krall, Steve Coleman & Five Elements...**

Bestalde, Donostikluba desagertu, eta haren ordezkari **dKLUBA** sortu zen, zirkuitu independente gisa. dKLUBAren eskutik, 46 kontzertu edo emanaldi programatu ziren; besteak beste, bertan izan ziren **Lloyd Cole, Izaro e Iban Zaldia, Holy Fucks, Nada Surf, Laura Cox, Was, Sky Beats...** Emanaldi horiek 11.000 ikus-entzule izan zituzten.



Diana Krall



XI. Donostikluba Jaialdia. Lloyd Cole



Donostia Kulturako BALANTZEA



Hondar artean proiektuaren aurkezpena

San Telmo Museoa

Museo San Telmori dagokionez ere, datuak oso esanguratsuak dira. 2016an, guztira 156.000 pertsonak ikusi zituzten han antolatutako erakusketak: **1966 | Gaur Konstelazioak | 2016, 1566-2016 Bake Itunak** (37.000 bisitari) eta **Hondar Artean**, urtearen lehen erdialdean. Erakusketen hariari jarraiki, pieza berriak ekarri ziren museoko erakusketa iraunkorrari gehitzeko, eta Cristina Iglesias eskultorearen pieza bat ere jarri zen ikusgai. Udazkenean, beste bi erakusketa antolatu ziren bertan: *Lucia Moholy, ehun urte geroago*, eta **Modernitate bakan bat**, museoak berak egina. San Telmoko Udal Haur Laborategiak, berriz, **Ikimilikiklik**, **Hoy toca Prado**, **En las orillas del Nilo**, **San Adrián**, **El túnel del tiempo**, **Haurbanistak**, **Azal azalean** eta **Jokoak** saioak antolatu zituen.



1966 | Gaur Konstelazioak | 2016

Nabarmentzekoak dira, halaber, zenbait datu: hezkuntza-esparruko bisitarien kopurua hazi egin zen iaz, 7.000 ikaslek bisitatu baitzuten museoa (% 15 gehiago aurreko urtean baino); 26.000 pertsonak parte hartu zuten museoko jardueretan, eta 9.142 pertsonak, berriz, museoak antolatutako bestelako ekitaldietan.

Ondareari dagokionez, museoak 825 pieza hartu zituen iaz, erorsketa edo dohaintza bidez, edo gordailu gisa. Bestalde, Emsime bilduma osoa bereganatu zuen, eta horrek esan nahi du, batetik, **35.638 pieza** dituela **inbentarioan** une honetan, eta, bestetik, Gordailurekiko lankidetzat-aldi berri bat zabaldu dela.

Urgulleko **Donostiara begira** erakusketak, azkenik, **175.000** bisitari izan zituen; zenbait egunetan, 2.500 lagunetik gora ere izan ziren.



Lucia Moholy, ehun urte

Komunikazio eta Irudia

Komunikabideekiko harremanak kudeatzeaz gain, departamentu honek lanean jarraitu du Donostia Kulturaren inguruan lortu nahi duen kultur kontsumitzaile aktibo horri forma ematen, izan ikuskizunetako publikoa, izan kultur gune eta kultur zerbitzuen erabiltzailea, izan festa eta jaialdietako parte-hartzailea, izan kultur sortzaile edo eragilea. Eta horretarako, bi tresna nagusi izan ditu.

Batetik, bazkideen kudeaketa: 2016an, **5.000 bazkide gehiago** bildu ziren kultur talde honetara, Gipuzkoako handiena, 95.426 bazkide baititu, gero eta modu aktiboagoan jarduten. Iaz berritasuna izan zen bazkideek sarrera librean izan zutela udaleko wifi zerbitzura, eta, hortaz, hiriko gune publiko nagusietan erabili ahal izan zuten Internet.



Bestetik, plataforma digitalak: Donostia Kulturaren webguneek 2 milioitik gora bisita izan zuten 2016an, aurreko urtean baino % 15 gehiago, eta 100.000tik gora jarraitzaile izan zituen sare sozial nagusietan (57.142, twitter-en; 35.852, Facebook-en, etc.).



35.852
jarraitzaile
Facebook-en



57.142
jarraitzaile
twitter-en

Produkzio Unitatea

Bukatzeko, aipatu behar da Donostia Kulturaren Produkzio Unitateak 975 ekoizpen kudeatu zituela iaz, Donostia 2016 Europako Kultura Hiriburua den produkzioa zuzendu eta koordinatzeaz gain.



EGITURA ETA BALANTZE EKONOMIKOA

ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

Lehendakaria
ENEKO GOIA LASO

Lehendakariordea
MIREN AZKARATE VILLAR

Batzordekideak

PNV
Xabier Peritz,
Jon Insausti

PSE-EE
María Luisa García,
Alfonso Gurpegui

EH BILDU
Amaia Almirall,
Naiara Sampedro

PP
José Luis Arrúe

IRABAZI
Loïc
Alejandro

ZUZENDARITZA TALDEA

Zuzendari-gerentea: **Jaime Otamendi**

Zuzendariaren Laguntzarako teknikaria: **Imanol Galdos**

Administrazioa eta Baliabideak:
Rebeka Gallastegi

Zinema:
Josemi Beltrán

Musika:
Miguel Martín

Ekonomia eta Finantzak:
David Feijoo

Komunikazioa eta Irudia:
Jaione Askasibar

Produkzioa:
José Ignacio Abanda

Liburutegiak:
Arantza Urkia

Festak:
María Jesús Torres

Antzerkia eta Dantza:
Norka Chiapuso

Kultur Ekintza:
Jon Aizpurua

San Telmo Museoa:
Susana Soto

2016KO AURREKONTUA



Gastuak guztira:
26.946.407 €



Diru sarrerak guztira:
5.959.980 €



Udalaren diru ekarpena:
20.986.427 €




EGITURA ETA BALANTZE EKONOMIKOA

DONOSTIA KULTURAKO BARNE PLANAK

Euskararen Erabilera Plan Zehatza: 2013an Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana diseinatu eta onartu zen, 2014an euskararen egoeraren diagnostikoa osatu zen eta Erabilera Plan Zehatza definitu zen 2014-2019 tarterako. 2016an Erabilera Plan Zehatzaren garapena indartu zen.

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako I. Plana: 2014an Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana (2014-2017) onartu zen eta 2016 urte garrantzitsua izan zen haren garapenean.



BESTERIK

KatiuskaErronka:

Gizarte-erantzukizun korporatiboari dagokionez, Donostia Kulturako langile batzuen ekimenez, #KatiuskaErronka egin zen martxo-apiriletan, katiuskak eta eguraldi txarrerako oinetakoak biltzeko kanpaina, Siriako gerratik ihesi zihoazen pertsonen kanpamenduetara bidaltzeko. Bilketaz gainera, beste helburu bat europar erakundeek egoera haren aurrean erantzunik eman ez izana salatzea zen. Bota-bilketari amaiera emateko, ekitaldi bat egin zen Zuloaga plazan apirilaren 17an, eta gero, GKE batekin lankidetzan, materiala prestatu zen, 15.000 bota paretik gora, kanpamenduetara bidaltzeko.

Nazioarteko sarea:

Urte bereziaz baliatuz, kanpoko bisita-andana izan genituen eta, bide batez, ardatz estrategikoa den nazioarteko euskarriak indartzen jarraitu genuen Harreman-sarea zabaltzeko eta trinkotzen urrats sendoak eman ziren 2016an.

Bide horretan, Donostia Kulturaren berri eman zaie,

profil ezberdinetako bisitariei, estrategia bertsuan guztia ere. Udal, eskualde, erregio eta estatu mailako ordezkari ugari jaso dute erakundearen berri: Alemaniako Dortmund, Danimarkako Ballerup, Frantziako Clermont Ferrand, Europako Parlamentua edo Suediako Skane eskualde mailako ordezkariak hartu ditugu, besteak beste. Bestalde, Irlandako Kilkenny, Waterford eta Wexford hiriei kultur-hiriburutzarako hautagaitza prestatze-lanetan laguntza eskaini zitzaion.

Unibertsitate eremuan gure erakundeak ere interesa piztu zuen, ikerketa askotarako bide emanez. Ikasle askok jaso zuten erakundearen berri: Nanteseko Audiciencia Ecole de Management, Clermont Ferrandeko Unibertsitate Blaise Pascal, Frisiako (Holanda) Lewardeeneko NHL Unibertsitateko Honors College, Alemaniako Kolonia Unibertsitatea, Japoniako Tokio Unibertsitateko Foreign Studies eta Graduate School of Human Sciences, Estatu Batuetako Boiseko Unibertsitateko Errektoreordetza, Deustuko Unibertsitateko Nazioarteko Aisialdi eta Kultur Kudeaketako Graduondoa, Turkiako Anadolu eskualdeko Eskisehir

hiriko Unibertsitatea, batzuk aipatzearren.

Donostia Kulturaren nazioarteko jardunak izan du, ordea, bigarren alderdi bat. Gure berri kanpoan ere eman dugu. Uztailean Washingtonen Smithsonian Folklife jaialdian izan ginen, nazioarteko entzute handiko jaialdian. Aldi berean, Irailean Galiziako Consello da Cultura Galega erakundearen eskutik AEMI elkarteak antolatutako mintegi batean partaide izan ginen, *European migrant diasporas and cultural identities* gaia hizpide.

Europa osoko Museo eta kultur erakunde ugari Europako kultur errealitate anitza erakutsi zuten. Like sareko kidea izanik, sareak antolatutako hainbat bileretan izan ginen. Urrian Donostian izan zen Kongresuan antolatzaile-ardurak gure esku izan ziren. Esku artean ditugun Europa mailako programek eskatzen duten kudeaketa-beharretarako Brusela behin baino gehiagotan bisitatu dugu.

Azkenik, gerorako bide berriak lantzen hasi gara. Ameriketako Estatu Batuetako Jersey City hirian Mana Contemporary Museoa, horren adibide.



Donostia Kulturaren hileko agendak

Donostia Kulturaren Komunikazio eta Irudi departamentuak donostiakultura.eus -lehen, donostiakultura-com-webgunearen goiburuko irudi kohesionatua kudeatzen du, bertan beste 15 kultur marka biltzen baitira (Victoria Eugenia Antzokia, San Telmo Museoa, Donostia Kultura Festak, Heineken Jazzaldia, Olatu Talka, Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea, dKLUBA, Literaktum, dFERIA, Beste Hitzak-Other Words, Giza Eskubideen Zinemaldia, Musikagela, Casares Irratia, TxikiJazz eta Larrotxene Bideo), eta, horrez gain, 2106an, DSS2016EU markarekin batera jardun zuen, Donostia 2016ko Europako Kultur Hiria izendatu izanak berariaz eman zion zentraltasunaren baitan.

Hala, Donostia Kulturaren Prentsa Kabineteak erakundearen komunikazio-beharrei erantzun zien 2016an ere, hala programa espezifikoetako dagokienez -agenda, jaialdiak, zikloak, eta abar- nola zerbitzu-eskaintzari dagokionez - ikastaroak, liburutegi-zerbitzua, espazioen kudeaketa, eta abar-. Horretarako, emanean jardun zuen, 2016ko datu hauek adierazten duten bezala:

- 190 prentsaurreko
- 65 literatur aurkezpen
- 3.200 agerraldi inguru idatzizko komunikabideetan
- 248 dosier gaikako

- 280 programa (gonbidapenak, liburuxkak, kartelak...)
- 340 prentsa-ohar
- 375 iragarki prentsa idatzian
- 63 e.buletin bazkideentzat.

Departamentu honek, bestalde, dk bazkideentzako arreta- eta fidelizazio-politika zuzendu zuen; 2016an, 95.426 bazkide genituen (ikus *Bazkideak* atala donostiakultura.eus webgunean).

Irudi korporatibo berria

Donostia Kulturak bere webguneak .com domeinutik .eus domeinura pasa zituen 2016. urtean, Donostiako Udalak berak egin bezala. Eta, arlo digitalean egindako aldaketa horrek, eragina izan du Donostia Kulturaren orain arteko irudi korporatiboan eta logotipoan, izan ere, logotipo horrek .com zeraman. Horrek, halaber, logotipoa moldatu beharra ekarri du. Aldaketaren nondik norakoaz, eta markak behar zuen moldaketaren inguruan gogoeta egin ondoren, Donostia Kulturaren markari buruzko hainbat erabaki hartu ziren, eta irudi berria ezartzeko prozesua abiatu zen 2016an. Irudi korporatibo berria TGA estudioak egin zuen.

Markak Donostia Kultura izaten jarraitzen du, ongi adierazten duelako erakundearen izaera eta errotuta dagoelako hirian. Marka honi ezarritako

moldaketa eta egokitzapenak, batez ere, arlo hauetan ikus daitezke.

Tipografia: Tipografiari dagokionez, orain arte Frutiger 55 Roman Bold tipografia izan du eta orain Helvetica.

Kolorea: Marka monokromatikoaren aldeko apustua egin du Donostia kulturak. Aukeraturakolo bakarra horri dagokionez, orain arte bezala, Pantone Process Cyan kolorea da Donostia Kulturaren kolorea. Logotipoak, jakina, bertsioak izango ditu beltzean eta zurian ere.

Forma: Irudi aldaketa aprobetxatu da logo bertikala ere sortzeko. Logo bertikal horrek bi aldaera ditu: bata, batez ere, Donostia Kulturaren euskarri propioetan erabiltzeko, eta bestea gainerako erakundeekiko elkarlanetan eta elkarbizitzan erabiltzeko.



Piktograma berriaren irudia



Casares Irratia

Piktograma: Logotipotik domeinuaren marka kentzeak beste aukera batzuei bide eman zien, eta markan irudi edo piktograma bat txertatzea erabaki zen. Honek herritarrek erakundea errazago identifikatzea ahabidetzen du.

Donostia Kultura On line

Donostia Kulturarekin zuzenean zerikusia duten webgune guztien artean, 2 milioi bisita baino gehiago izan zituzten (2.195.119 zehazki) 2016an, aurreko urtean baino % 15 gehiago, eta donostiakultura.eus webguneak, berriz, 1.268.382 bisita izan zituen (aurreko urtean baino % 21 gehiago). Nabarmen hazi da, bestalde, beste zenbait webguneri egindako bisita kopurua: santelmuseoa.eus (19%), literaktum.eus (13%) eta heinekenjazzaldia.eus (13%).

2016an, hau izan zen ikusiena:

- 1.- Donostia Kultura Agenda da oraingoz atariaren erakargarri nagusia, uanean uneko kultur eskaintzarik osatuena biltzen baitu.
- 2.- Donostiako liburutegietako mailegu-kontsultak.
- 3.- Donostiako Aste Nagusiaren programa (abuztuan).
- 4.- Ikastaroen eskaintza (irailean).
- 4.- DKren 95.426 bazkideek aukeran dituzten zozketa eta eskaintza bereziak.

Nabarmentzekoak dira, halaber, Donostia Kultura Festak Aste Nagusirako abian jarri zuen aplikazioa -iaz sortu, eta 3.863 deskarga izan zituen- eta San Telmo Museoaren

webgunea mugikorretik ikusteko estreinatu berri den bertsioa. Donostia Kulturak 100.000 jarraitzaile baino gehiago ditu sare sozial nagusietan: 57.142 Twitterreko kontuetan, eta 35.852 Facebook-ekoetan; horiez gainera, 7.987 jarraitzaile Instagram-en, eta 728 LinkedIn-en, sare sozial berriagootan.

Casares Irratia, 24 orduraz emititzen

107.4 FMn eta www.casaresirratia.info-n emititzen duen Casares Irratiak 2016an 26 irratsaiorekin osatutako programazioa eskaini zuen. Horietatik 10 saio Arrosa sarearen bidez eskaini zituen, eta 16 Casaresen ekoitziak izan ziren, irrati-tailerreko partaideek, kolektiboek, edo irrati- lantaldeak, edo sail-arteko lankidetzan eginak.

Internet bidezko entzunaldiek eta deskargak gora egin dute, nabarmen. 2015ean 7.000 entzunaldi inguru izatetik 2016an 10.700etik gora izatera pasatu zen (abendu hasierako datua), eta 600 deskarga inguru izatetik 800dik gora izatera.

Estudioko ekipamendua hobetu zen, Otxoki Irratiak utzitako materialari esker. Olatu Talka saio berezia egin zuen, eta UrbanZientzia ekimenean zuzeneko saio berezia egin zen.

Urtero bezala, zuzeneko irrati-antzerki saio bat eskaini zuen, irailean, Tomasenen. CRÍA antzezlan, Von Conspiracy taldearen eskutik.

HAMAIIKA ENTZUTEKO! II. Irrati-piezen lehiaketa antolatu zuen Casares Irratiak. Pieza labur eta originalen ekoizpena eta hedapena bultzatzea du helburu eta 2016an 20 lan jaso zituen.

Argitalpenak

50 urteko ibilbide oparoa ospatzeko, Donostiako Jazzaldiak liburu gogoangarri bat argitaratu zuen, jazz garaikidearen inguruko entziklopedia erreferentziatzkoa bihurtu dena. Zinema departamentuak, bestalde, bi liburu argitaratu zituen Nosferatu bildumarako **–Screwball Comedy. Hollywoodeko komediaren urrezko aroa** eta **Screwball Comedy. Vivir para gozar**, bai eta Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Asteak programatutako zikloari buruzko **Japón Fantástico, Siglo XXI** liburua ere. Eta, azkenik, San Telmo Museoa eta DSS2016EUK **1566-2016 Bake Ituna. Tratados de Paz** argitaratu zuten, Europako Kultur Hiriburutzaren baitan mugarri izan zen izen bereko erakusketaren harira.



Screwball Comedy



DONOSTIA KULTURAKO BAZKIDEAK

 donostiakultura

BAZKIDEAK
SOCIAS/OS



4.783
pertsonak

Urte amaieran, 95.426 bazkide zituen Donostia Kulturak, 2016an beste 4.783 lagunek eskuratu baitzuten DK txartela. Txartel horri hobekuntzak erantsi zitzaizkion 2016an, eta nagusi da txarteldunak doan balia daitezkeela udal wifiz, Donostia osoko gune publiko nagusietan.

DK, DONOSTIAKO KULTUR KLUBA

Urte amaieran, **95.426 bazkide zituen Donostia Kulturak** (% 77, donostiarrak), hots, **DK txartela** zutenak, **2016an egindako 4.783 bazkide berriei** esker. Horietatik, ia % 60 emakumeak dira, eta Amara da bazkide gehien dituen auzoa, % 18,93rekin, eta ondoren Gros (% 14) eta Intxaurrondo (% 11) datoz.

Txartel horren bidez, helburu unibertsal bat bete nahi da: herritar guztiei Kulturara sartzeko bidea erraztea; horren adibiderik onena udal liburutegiak dira, oso erabilera handia baitute. Horrez gainera, ikus-entzuleria jakin batzuk fidelizatu nahi dira, nola

eta programa bereziak eskainiz arte, musika, arte eszeniko eta zine arloetan. Beste horrenbeste esan daiteke San Telmo Museoaz eta Victoria Eugenia Antzokiaz, Antzoki Zaharraz, Imanol Larzabal aretoaz, Intxaurrondo, Larratxoz eta Gazteszenaz: DK txartela dute horiek guztiek tresnarik onena bazkideei informazio hautatua, deskontuak eta zozketak eskaintzeko.


Txartel horri hobekuntzak erantsi zaizkio 2016an. Hona hemen nagusia: txarteldunak doan balia daitezke udal wifiz, Donostia osoko gune publiko nagusietan.

Abantaila guztiak daude ikusgai bazkideen online atalean, zeinaren xedea abantaila gehiago eskaintzea baita; 6.400 lagunek eman dute alta online; alegia, **13.845 lagun** daude guztira **online erregistratuta**.



Hona hemen Donostia Kulturako bazkideen mapa, gaur egun:


Donostia Kulturako bazkideak udalerriaren arabera:





DONOSTIA KULTURAKO BAZKIDEAK

Donostia Kulturako bazkide donostiarrak: auzoka




Guztira 74.307



DONOSTIA KULTURAKO BAZKIDEAK


Donostia Kulturako bazkideak adin-tarteen arabera:

14-29 urte




13.511

30-44 urte




32.506

45-64 urte




34.724

+65 urte



14.685


Donostia Kulturako bazkideak sexuaren arabera:



57.106
emakumeak



38.320
gizonak







DONOSTIA KULTURAKO BAZKIDEAK

Donostia Kulturako bazkidezen garapena (2007-2016):

Urtero izena emandako bazkide berriak:



Bazkide kopuruaren garapena azken hamar urteotan:





Antzokiak VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA



Incendios

Victoria Eugenia Antzokiak lider izaten jarraitzen du lurralde honetako programazio eszenikoan.

Dantza-programazioa askotarikoa izan zen 2016. urtean, eta inoiz baino nazioartekoagoa. Aipa ditzagun Kukai eta La Veronal, Chevy Muraday, GöteborgsOperans, Oreka Tx eta Hirayama Motoko, Sharon Fridman, Montrealgo Balleta... Kanada, Suedia, Japonia... Gogora dezagun Dantzaren Gala ere, Gipuzkoako Dantza Profesionalekin Elkartearekin batera antolatu genuena: horiek izan genituen 2016an, eta hala ikus-entzuleen nola kritikaren interesa piztu zuten ikuskizunez gozatu ahal izan zuten dantzazaleek. Malandain Ballet Biarritzetikiko lankidetzaren ondorioz, ballet hori etengabe izan genuen

Donostian, sinergiak sortuz eta ikus-entzule eta dantzazaleekiko topaketak eskainiz. Ezin ahaztu, halaber, Verdinik antolatutako eguna, abenduan, zeinari erantzun ikusgarria eman baitzioten ikus-entzuleek ekitaldi guztietan.

Antzerki-programazio erregularrean, Nuria Espert, Ramón Barea, Natalia Millán... nabarmendu ziren, ***Incendios***, ***Windermere*** eta beste proposamen batzuetan; autore, zuzendari eta proposamen engaiatuak, Europako Kultur Hiriburutzaren kariatara diseinaturiko programazio bereziaren barruan, Arte Eszenikoei eskainitako atalean azaldu dugunez.

Donostiako udak espero zen bezala erantzun zuen: Goyo Jiménez, Rafael Álvarez ***El Brujo***, Josema Yuste,

Candela Peña, Lola Herrera, Concha Velasco, Luis Varela, Iñaki Miramón izan ziren, besteak beste, Urumea ondoko agertokian, honako proposamen hauekin: ***Taxi***, ***Los vecinos de arriba***, ***La velocidad del otoño***, ***Reina Juana***, ***Héroes***... batzuk aipatzearren. Zer esana eman zuen urtea, beraz, eta ikus-entzuleen konplizitatea eta oniritzia ekarri zituen.



Cenicienta



Barbara Hendricks



Antzokiak VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA



La velocidad del otoño

Sasibiliek bizirik eutsi zion zarzuelaren garrari, **Marina, La alegría de la huerta, La tabernera del puerto**...eskainiz. Gainera, Opus Lirica agertu zitzaigun lirikaren arloan, eta **Don Pascuale** aurkeztu zuen, oso modu berean aurkeztu ere.

Urtero bezala, **Munduko Antzerki Eguna** ospatu zen martxoaren 27an. Aurreko denboraldian helduentzat euskaraz eskainitako ikuskizunik onenari eman zitzaion saria; **Maitasunaren ostein maitasunari**, hain zuzen ere. Talde-lanean egindako obra, Ados Teatroaren eskutik. Nabarmenezkoa **pastoral bat** programatu zela **lehen aldiz** antzokian, **Katalina Erauso**, monja alferrezaren pertsonaia eztabaidatuaz. **Maite K** eta Bernardo Atxagaren **Lu eta Le** lanek osatu zuten 2016ko euskarazko programazioa, formatu handikoak eta joera feministakoak biak ere.

Lankidetzari esker -Biarritzekin, Koreografia Zentroaren bitartez, eta Baionarekin, Scène Nationale-ren bitartez-, jarduera interesgarriak eskaini ziren arte eszenikoetara hurbiltzeko eta sentiberatasuna garatzeko, eta horrek erraztu egin zuen ikus-entzuleak eszenara erakartzea. Gazte taldeekiko lana oinarritzko lan-ildo da, eta ikus-entzule berriak ekarriko ditu uste baino lehen.

Urte berezia izan zen edukien, estetiken, aniztasunaren aldetik, eta zirku berriarentzat ere izan zen lekuri: Ingalaterratik, **Gandini** etorri zen, malabarren europar ordezkari behinena; eta Hungariatik, berriz, **Recirquel**, zeinak bere ikuspegi berezia eskaini baitzigun zirku garaikideaz, herrialde hartan oso sustraizuta baitago zirkua.

Izan zen astirik Cervantesi omenaldia eskaintzeko ere: **Los misterios del Quijote**, Rafael Álvarez **El Brujoren** eskutik, eta **El retablo de las maravillas**, Morfeo Teatroko kide asaldatzaileenetik. 2016. urtean, **musikak** leku nabarmena izan zuen Victoria Eugenia Antzokiaren programazioan, emankizun dezente izan baitziren, baina batez ere izen handiek ekarri zioten ospea, eta jende asko erakarri zuten, Donostiatik zein kanpotik.

Nabarmenezkoak, besteak beste, **Silvia Pérez Cruz** eta **Barbara Hendricks** kantariak, **Graham Nash** konpositore eta kantaria, eta **Judith Jaúregui** piano-jotzailea.

Orobat, Antzoki honetan eman zitzaion **Adarra** saria **Benito Lertxundi** kantariari, euskal musikari

eskainitako ibilbide oparoagatik. Jaso ondoren, antzokia mukurua beteta, Benitok kontzertu hunkigarria eman zuen.

Haurrek ere izan zituzten berentzako ikuskizunak, hala nola **TxikiJazz** programaziokoak, bai eta arrakasta handiko beste batzuk ere, hala nola, **Ene kantak!**

Musika Hamabostaldiak Victoria Eugenia Antzokian programatu zuen kontzertu erakargarrienetakoren bat, eta **51. Heineken Jazzaldiak**, Donostia 2016ko Elkarriketak programaren barruan, **Europako Jazz gaztearen** ikuspegi ondo osatua eskaini zuen **12Pointsen** parte hartu zuten 12 taldeen eta beste zenbait jardueraren bitartez.

Zinema arloan, **Giza Eskubideen Zinemaldi** sendoaren egoitza nagusia da antzoki hau, eta proiektzioen ondotik eztabaida interesgarriak izan ohi dira maiz; bertan izaten dira gonbidatuak, eta bertan egiten dira omenaldiak ere. Horrekin batera, antzokiaren "nortasuna" aldatu egiten da urtero **Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea**n, eta 2016an **Fantasiatzko Japonia** zikloaren egoitza nagusia izan zen; nabari-nabaria zen hori, atondotik agertokiraino.



Heroiak

Antzoki Zaharra gero eta dinamismo eta balioaniztasun handiagoa ari da frogatzen urtetik urtera, nahiz eta 170 urtetik gora izan dagoeneko. Jarduera ugari eta askotarikoak hartzen ditu, eta, horri esker, urteen poderioz baizik eskain ezin daitekeen zerbitzua eskaintzen du. Areto hurbila eta tamaina egokikoa da hiriko programazioaren zati handi samar bati eta era eta jatorri askotako kolektiboei erantzuteko. Gaur egun ere, bai donostiarrek eta bai bisitariek gogokoen duten agertokietako bat da hirian.

Euskarazko antzerki-lanen proposamena sendotu zen Antzoki Zaharraren jarduera nagusien artean.

Antzoki Zaharra Euskal Herrian den euskarazko antzerkiaren programazio egonkor eta erregular bakarraren zutabe nagusia da, eta badira zenbait urte horretaz arduratzen direla Donostia Kultura eta Euskararen Udal Departamentua. Antzoki Zaharretik pasatu ziren euskaraz jarduten duten konpainia nabarmen guztiak: Tartean, Ados, Tanttaka, Vaivén, Txalo... Bai eta marka hautsi duten ikuskizunak ere, hala nola, **El florido pensil-neskak**, **Heroiak**, **Ladydi**... Programazio horren erregularutasun eta iraunkortasunari esker, eta antzerkian hizkuntza-normalizazioari ematen dion bultzadari esker, programazio berezia eta bakarra izan da Euskal Herri osoan. Horri

gehitzen badiogu haurrentzat ere egin den euskarazko eskaintza, esan dezakegu Antzoki Zaharrak egiten duen lana funtsezkoa dela euskarazko antzerkia bultzatzeko. **Haurrentzako** dozena bat **ikuskizun** baino gehiago izan dira Antzoki Zaharreko agertokian, dela jende guztiarentzako funtzioetan, dela **Eskolatik antzerkira** programaren bitartez, zeina Donostiako ikastetxe guztiei zuzendua baita.

Udako Antzerkiak plaza nagusi bihurtu du Donostia beste guztien artean. Programazioa orekatua izan da edukiz eta estiloz, aurkeztutako proposamenen kalitate eta erakarmenaren aldetik, etorri diren



El amor está en el aire



Antzokiak ANTZOKI ZAHARRA



© Juxe

Petti & Etxeko Uzta

artisten mailaren aldetik, arte-taldeen aldetik oro har (aktore, zuzendari, eszenografo eta abar). Aipa ditzagun batzuk: **Bibiana Fernández, Manuel Banderas, Enrique San Francisco, Silvia Marsó, Jesús Cisneros...** beren onena eman zutenak, denak ere.

“Autore”-ikuskitzunek ere izan zuten beren lekua: **Me llamo Suleimán**, Saharaz hegoaldeko immigrante bati buruz; **No daré hijos, daré versos**, Delmira Agustini poetaren bizitzaz, **Bette & Joan**, Bette Davis eta Joan Crawford-i buruz; edo **Una noche con Marilyn**, besteak

beste. 2016 berezia izan zen Kale Nagusiko antzokian ere, eta dantza garaikideko proposamen bat eskaini zuen, **She poems** izenburukoa.

Musikaren arloan, 12 emankizun eskaini ziren. Euskal musikari dagokionez, nabarmenenak **Pantxoa Carrere, Petti** eta **Bide Ertzean**enak izan ziren.

Bestalde, antzoki honetan klasikoak diren beste emankizun batzuek, hala nola **Concurso de Cante Flamenco** delakoa, oso harrera ona izan zuten jendearen aldetik.

Zinema arloan, **Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Asteko** sail ofizialaren eta abonatuaren tenplua Godzilaren gordeleku bihurtu zen 2016ko edizioan (balkoian ageri zen), eta, beste behin ere, jostetaren ardatza.

Baina beste gertaera batzuentzat ere erreferentzia nagusia da; esate baterako, **Dock of the Bay**-rentzat eta **Bang Bang Zinema** gero eta arrakastatsuentzat. **Itsaspeko Zinemaren Zikloa** hemen porturatu da, azkenik, eta oso erakargarria da eragile oso desberdinen ziklo tematikoentzat.



Me llamo Suleimán



SAN TELMO Museoa



© Oscar Moreno

Jokoak erakusketako pieza bat

2016an, San Telmo Museoaen jarduera **Europako Kultur Hiriburutzari lotuta** egon zen hein handi batean, eta horrek nabarmen aldatu zuen urteko programazioa. Urtarrilean, Hiriburutzaren lehen jardueretako bat **1966 | Gaur Konstelazioak | 2016** erakusketaren inaugurazioa izan zen, Museoan, eta handik hilabete batzuetara, berriz, proiekturik garrantzitsuenetako baten ardatz gisa, **1566-2016 Bake Itunak** erakusketak ireki zituen ateak, Koldo Mitxelena Kulturunean ere parte bat zuelarik osagarri. Horrez

gainera, **Hondar artean** proiektuko jaima ipini zuten Museoan.

Erakusketen artean, nabarmentzekoa, halaber, **Modernitate bakan bat**, San Telmoren produkzioa, zeinak begirada garaikidea ematen baitzion sormen-sukarrez beteriko garai bati.

Jardueri dagokienez, **Europar elkarrizketak** zikloak programazio egonkorra izan zuen urtebetean, eta Museoak Erronkak proiektua hartu zuen, Hiriburutzak eta Jakiundek

martxan jarria, bai eta **Labore** arte-proiektua ere, Donostiako beste museo batzuekin batera gauzatua.

Donostian bisitari gehiago izan zenez, San Telmon eta Urgullen ere gehiago izan ziren hango eskaintzaz interesatu zirenak. **San Telmo Museoan 156.000 bisita** izan ziren, eta nabarmentzekoa da, halaber, **Urgulleko Donostiari begira** erakusketak **175.000 bisita** izan zituela, eta egun batzuetan 2.500 lagunetik gora ere ibili zirela.

Horren ondorioz, gogoeta egin beharra agertu zitzaigun gai honetaz: nola eskaini kalitatezko zerbitzua erabiltzaileak gero eta ugariagoak izanik. Arreta berezia eskaini beharko diogu erronka horri hemendik aurrera.



© Oscar Moreno

Hondar artean proiektuaren aurkezpena



© Oscar Moreno

Alberto Iglesias-ek Zinema-Noema zikloan parte hartu zuen



Ondarea

2016an zehar, segida eman zitzairen **bildumen eta dokumentazioaren arloan** azken urteotan egindako lana jasotzen duten bi proiektuei. Batetik, burutu egin zen **Gordailuan** utzitako bildumen egokitzea eta kontrola, eta Museoaren lanean fase berriztat har dezakeguna jarri zen martxan. Bestetik, bildumen katalogoaren informazio guztia **Emsime sistema** berrira hustu eta gero, bildumak erregistratzeko eta dokumentatzeko lan egunerokoa jarri zen martxan, tresna berri horretaz baliatuta.

Udal ondareari dagokionez, lanean jarraitu genuen **Aiete, Mandasko Dukea** eta **Gas Fabrikako funtsekin**, bai eta eskultura publikoari buruzko informazioa eguneratzen ere. Orobat, jantzi- eta argazki-bildumetan ikertzen jarraitu genuen, Ikerfolk eta Aranzadirekin batera.

2016an, Museoak **825 pieza bereganatu** zituen. Horietatik, **492 erosi** egin ziren, **26 gordailurako** jaso, eta **307 dohaintzak** izan ziren. Nabarmentzekoa Postigo Argazkien Funtsa, oraingoz inbentarioa egin gabe badago ere, bai eta Botanz eta Eloseggi funtsak ere.

San Telmo Museoko Bildumen Katalogoaren **inbentarioan 35.638 objektu** zeuden abenduaren 31n. Honela sailka daitezke:

SAILAK

ARKEOLOGIA	646
ARTE EDERRAK	6.810
ETNOGRAFIA	9.202
ARGAZKIAK	14.249
HISTORIA	2.976

UDAL ONDAREA

AIETEKO JAUREGIA	723
MANDASKO DUKEA	604
GAS FABRIKA	428

GUZTIRA: 35.638

Entre los diversos trabajos de Ondarea zaharberritzeko egindako lanen artean, aipagarria da elizako **Serten mihiseen zaharberritze prebentiboa**. Nabarmentzekoak dira, halaber, Euskal Herriko Unibertsitatearekin sinatutako hitzarmena eta horren ondorioz lankidetzan hasi izana.

Museoaren eraikinari dagokionez, berriz, 2016an zenbait hobekuntza egin zituen Proiektu eta Obren Departamentuak.

Erakusketak

Pieza berriz osatu zen erakusketa iraunkorra; esate baterako, velosolex bat eta boule bat gehitu zitzaizkion Jendartean bizi arloari, edo **Angel Badosen** eta **Rosa Valverderen** artelanak Euskal artearen 100 urte arloari. Urtean zehar, gainera, **Cristina Iglesias** eskultorearen pieza bat eta **Donosti automobila** jarri ziren ikusgai Museoan.

Erakusketa iraunkor honi dagokionez, nabarmentzekoa da Museoak **gida labor bat** argitaratu zuela lau hizkuntzatan, zeinari esker bisitariak modu eroso eta dibertigarrian ibil baitaitezke Museoan zehar.

2016ko aldi baterako erakusketak, hasieran esan dugunez, Kultur Hiriburutzarekin lotuta egon ziren. Formatu handikoen artean, **1966 | Gaur Konstelazioak | 2016** izenekoak eman zion hasiera urteari. DSS2016Eurekin batera antolatu zen, Fernando Golvano izan zen komisarioa, eta 20.000 lagun inguru erakarri zituen. **Hondar artean** proiektuko jaima ipini zen Museoako patioan, Hiriburutzarekin lankidetzan hori ere, eta 5.300 lagun etorri ziren bertan programatutako jardueretan parte hartzera.

Ekaina eta urria bitartean, **1516-2016 Bake Itunak** erakusketak izan zuen erakarmen handiena, bera baitzen Europako Kultur Hiriburutzaren programako proiektu nagusietako bat, eta autore handien lanak ekarri baitzituen Donostiara. Pedro G. Romero izan zen komisarioa. 37.000 lagun pasatu ziren erakusketa hartatik.

XX. mendearen lehen laurdeneko arte-mugimenduak hobeto ezagutu ahal izan ziren udaz geroztik programatutako erakusketetan. **Lucia Moholy, ehun urteren ondoren**, Bauhaus-eko argazkiekin, eta **Modernitate bakan bat. "Arte berria" Donostiaren inguruan. 1925-1936**, Museoak ekoitzia, Peio Agirre komisario zela, non hurbileko sorkuntza aldi jakin bat jasotzen

© Oscar Moreno



Erakusketa iraunkorra



© Oscar Moreno

Prado eskura erakusketa

baitzen. Bi proposamen horiek zabalik izango dira 2017an sartu eta gero ere.

1966 | Gaur Konstelazioak | 2016, 1516-2016. Bake-itunak, Lucia Moholy, ehun urteren ondoren, eta Modernitate bakan bat. "Arte berria" Donostiaren inguruan. 1925-1936 erakusketek beren argitalpena izan zuten, bakoitzak berea.

Laborategiak ere formatu txikiagoko erakusketa interesgarriak eskaini zituen: hasieran, **Ikimilikiliklik**, zeina aurreko urtetik baitzetozen, eta amaieran, berriz, **Prado eskura**, zeina

2017an sartu baita. Eta tartean, beste hauek: **Nilo ibaiaren ertzean, San Adrian, denboraren igarobidea, Haurbanistak, Azal-azalean** eta **Jokoak**, zeinak so interesgarria egin baitzion herri-kirolari.

Erakusketei dagokienez, merezi du aipatzea beste erakusketa-areto berri bat izan genuela **Añarbeko Urak**-ek Saguesen duen **ponpaketa-gunean**, non datozen urteetan erakusketak egin ahal izango baitira Donostia Kulturak eta Añarbeko Urak-ek sinatutako lankidetzaz-hitzarmenari esker.

Jarduerak

2016an, Hiriburutzak baldintzatu zituen, hein batean, Museoaren jarduerak. Esate baterako, **Europar elkarrizketak** zikloak programazio egonkorra izan zuen urte osoan zehar, eta interes handia sortu zuten izenak ekarri zituen, hala nola, **Maialen Chorrut** edo **Richard Stallman**.

Labore ere Hiriburutzaren programazioari lotutako proiektu bat izan zen, eta, berari esker, **Zuhar Iruretagoiena** artistak San Telmoko bildumaz duen ikuspegia jaso genuen.

Aranzadik, azken urteotan ohi duenez, San Telmon egin zituen **Arkeologia eta Etnografiako jardunaldiak**; eta **Ankulegik** ere berritu egin zuen Antropologiarekin urtero duen hitzordua.

Museoen Nazioarteko Eguna

San Telmorekiko hitzordu bihurtu zen jende askorentzat berriz ere, programaturiko ohiz kanpoko jarduez gozatzen hurbildu baitziren bertara, 2016an ere Udalaren Musika eta Dantza Eskolarekin lankidetzan eginak.

Ikasturtea, bai eta Aste Santuko eta Gabonetako oporrak ere, familian egiteko jarduerentzako uneak izan



© Oscar Moreno

Maialen Chorrut, John Carlin eta Xabi Alonso Europar Elkarrizketetan



SAN TELMO Museoa



© Oscar Moreno

Modernitate bakan bat erakusketaren harira egindako familia tailerra

ziren, eta Museoak bere eskaintzari eutsi zion: familia-lantegiak, haurrentzakoak, artista-lantegiak. Besteak beste, **Edu López, Usoa Zumeta** eta **Koldobika Jauregi** izan genituen lankide.

Jauzarreak eta **Bagerak** beren programazio egonkorrak izan zituzten. Lehenak amaiera eman zion etapa bati.

Musikagileak-ekin batera programaturiko zikloa hitzordu garrantzitsua izan zen beste behin ere; Museoak bilduman inspiraturiko piezak estreinatu ziren. **Heineken Jazzaldiak** goizeko kontzertuen formula berri bat jarri zuen martxan, eta jendeak ondo erantzun zuen.

Artista Liburuaren topaketen bigarren edizioan zenbait jarduera

egin ziren. Arteliburu21-ek sustaturiko hitzordu hori sendotzeko bidean da urteko egutegian.

Zinema-Noema zikloari esker, **Alberto Iglesias** edo **Joserra Senperena** eta beste batzuk sartu ziren Museoaren programazioan, eta **James Rhodes**-ekin ere izan genuen hitzordua; kasu honetan, **Literaktum** programaren barruan.

San Telmo Gaia, dagoeneko tradizio txoa osatua duena, 1516-2016. Bake Itunak erakusketaren inguruan egin zen, udan, eta berriz ere jendeak ondo erantzun zuen.

San Telmok **Ondarearen Europar Jardunaldietan** parte hartu zuen, Gipuzkoako beste eragile batzuekin batera. Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatzen du, eta 2016ko leinari

erantzunez sortutako bisitaldiak egin ziren. Emaitzak ikusita, hurrengo urteetan ere bide horretatik jarraitzeko asmoa du San Telmok.

Hezkuntza

Museoaren hezkuntza-jarduerak, batetik, DSS2016Eurekin zerikusia zuten aldi baterako erakusketentzako hezkuntza-proposamenak garatzera begira egin ziren; bestetik, Museoak erakusketa iraunkorra, euskal gizartearen museo erreferente den aldetik, era guztietako jendeei hurbiltzera.

DSS2016Eurekin lankidetzan egindako lanari dagokionez, proiektu hauek nabarmendu daitezke:

Hondar Artean, 1516-2016. Bake Itunak eta **Azal-azalean**. Denek



© Oscar Moreno

San Telmo gaia abuztuaren egunetan egin zen, 1516-2016. Bake Itunak erakusketarekin lotuta



SAN TELMO Museoa



© Oscar Moreno

Lucia Moholy, ehun urte

ere, **Prado eskurarekin** batera, honako gaiok jorrazteko bidea eman ziguten: Saharar herria, haren kultura eta bizimodua eta giza eskubideak; historian bakeaz eta gerraz egin diren irudikapenak, zenbait ikuspegitatik; Azal-azalean erakusketan, **Denok egiten dugu Donostia** proiektuaren barruan, gizartetik baztertuak izateko arriskuan diren kolektiboen arte-proposamenak eta artisten eta arte-ikasleen lanak izan genituen; batzuk zein besteak, errealitate baten isla gisa: kultura eta ondarea denen irispidean jartzea. Prado eskurak, lehen aldiz, esperientzia inklusibo bat proposatu zuen ikusmen-arazoak dituzten pertsonentzat zein besteentzat.

Proiektu horiek guztiak Museoa era askotako kolektiboak aintzat hartzearen alde dituen lan-ildoen adierazgarri dira: ikastetxeak zein gizartetik bazter gelditzeko arriskuan diren pertsonen lan egiten duten kolektiboekin lotutako kultur eragileak, unibertsitate- eta hezkuntza-mundua barne, ikasleak errazago hurbil daitezen Museoko bildumetara.

2016an, asko ugaldtu ziren hezkuntza-munduko bisitariak (% 15), eta 7.000 ikaslek baino gehiagok bisitatu zuten Museoa.

Urgull

Donostiari begira erakusketak, Urgulleko Motako Gazteluan, gainditu egin zituen bisita-kopuruak berriz ere. 2016an, 175.000tik gora izan ziren. Segida eman zion duela hiru urte hasitako joerari, baina 2016an areagotuta: 45.000 eta 50.000 bisita izan ziren, hurrenez hurren, uztailean eta abuztuan. Oro har, kopuruek gora egin zuten apiriletik urrira bitarte.



© Oscar Moreno

Labore programako Z. Iruretagoienaren lana



1966 | Gaur Konstelazioak | 2016



Modernitate bakan bat erakusketak.



Komunikazioa

Museoaren lanaren berri hobeto emateko xedez, 2016an webgunearen sakelakorako bertsioa jarri zen martxan; hobekuntzatxoak egin ziren erabiltzaileek erosoago erabil zezaten, eta etengabe gaurkotu ziren edukiak. Urte bukaeran, webaren trafikoa %20 gehitu zen, eta 108.000 bisita jaso zituen; %37 bertsio mugikorretik. Museoaren twitter-kontuaren jarraitzaile-kopuruak handitzen jarraitu zuen, poliki baina etengabe, eta urtearen amaierarako 5.700etik gora ziren. Asteroko jarduerabolegina gehiago hedarazteko ahalegina egin zen, halaber, eta harpidetza-kopuruak gora egin zuen 422 harpidetza berriekin. Hogeitabat prentsaurreko eman ziren, zein bere dosierarekin, eta 30 prentsa-ohar inguru bidali. Alde baterako erakusketek eman zuten komunikazio-lan handiena, ohi bezala: euskarriak, dosierak eta prentsa-oharrak sortzea, webgunea eta sare sozialak eguneratzea eta publizitate-kanpainak planifikatzea eta egitea. Urte-amaieran, halaber, bazkietze-kanpaina egin zen.

Museoak webguneko multimedia-gordailuan edukiak gehituz jarraitu zuen, bideo eta audio kanalen bitartez, eta hitzaldi asko zuzenean eman ziren, streaming bidez.

Publikoak

2016an landu ziren zenbait proiektuak jarraipena izango dute gerora ere. Nabarmenenetako bat 55 urtetik gorako kultur gidari boluntarioen programa da, 2014an martxan jarria. Bisita gidatuak eskaini ziren asteartero, 11:00etan eta 18:00etan. Gainera, 55 urtetik gorakoek emandako zenbait hitzaldi edo solasaldi programatu ziren. 55 urtetik gorako 346 lagun izan ziren bisita-gidatuak, eta 38 talde.

Museoen museo proiektuak ere garatzen jarraitu zuen proiektu gisa,



ICOM-eko zuzendaria San Telmon izandako EMYAren batzarrera etorri zen

bisitariak San Telmoren edukiak gure inguruko ehundik gora zentzorekin lot dezan eta gaiak sakon ditzan.

Urte osoan zehar izan ziren larunbateko bisita programatuak, erakusketa iraunkorrera edo aldi baterakora egiten direnak. Aldi baterako erakusketa batzuetan, zerbitzu hori asteko beste egun batzuetara zabaldu zen.

Museoak 1.027 bazkide baino gehiago zituen urtearen amaieran, eta kopuru hori goraka doa urtetik urtera.

Harreman instituzionalak

Museoak harremanak izan zituen instituzio eta kultur eragile askorekin, eta jarduerak, elkarlanak eta proiektuak egin zituen haiekin batera. Eusko Jaurilaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia - Gordailua, batik bat-, Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostiako Zinemaldia, Musika Hamabostaldia, Jazzaldia, Arantzadi Zientzia Elkarteak, Euskadiko Filmategia, Bagera, Globernance, Donostia 2016, Jakiunde, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea, Donostiako Udaleko Lankidetzak Departamentua, Ankulegi, CSIC, Donostia Turismoa, Albaola,

Musikagileak, Basquetour, Euskal Kostaldeko Museoen Sarea...

2016an Museoan egindako erakusketa-proiektuei esker, San Telmok lankidetzan jardun zuen Espainiako eta nazioarteko zentroekin; besteak beste, Centre Pompidou, Reina Sofia, Pradoko Museoarekin. Gure inguruko Museoekiko lokarriak ere zaindu ziren: Oteiza, Artium, Bilboko Arte Ederretakoa, Musée Basque et de l'Histoire de Bayonne edo Museo Universidad de Navarra.

Garrantzi berezia du San Telmorentzat babesle pribatuak ekarpenak, enpresa ongileak eta enpresa laguntzaileak. Honako hauek izan ziren 2016an: Kutxa, EITB, El Diario Vasco, Cadena SER, Berria, Gara, Naiz.

Alokairuak eta ekitaldiak

2016an, guneen alokairuak bilakaera kualitatiboa izan zuen; izan ere, ugaritu egin zen espazio handiak erabiltzeko eskaria, hala nola eliza eta klaustroa, bi horiek ematen baitute ospe handiena negozio-turismoaren arloan, bai eta diru-sarrerak handienak ere Museoarentzat. 2016an, gisa horretako ekitaldietara etorritakoak 9.142 lagun izan ziren.



SAN TELMO

Museoa

STM BISITARIAK	156.000
ERAKUSKETAK	130.000
JARDUERAK	26.000
URGULL	175.000

GUZTIRA: 331.000



Olatu Talka. Vic-eko castellerrak, Katalunia plazan

2016a lan eta ahalegin handiko urtea izan zen Kultur Ekintzan. Kultur Hiriburu izatea kultur etxeetako jarduera askotan islatu zen, bai eta Olatu Talka, Literaktum eta beste jaialdi batzuetan ere, programazio berezia osatu baitzuten Hiriburutzaren urtean.

Berriz ere, datu orokorrek erakutsi zuten kultur etxeak oso sustraituta daudela auzoetako egunerokotasunean, eta erreferentzia eta topagune direla auzotarrentzat. Kultur etxeek **1.267.600 bisitatik gora** izan zuten 2016an. Datuak banakatuta, ikusten da kultur etxeek **3.800 jarduera** programatu zituztela guztira, eta **286.000 lagunek** hartu zutela parte jarduerotan.

Kultur Ekintzak, hiriko kultur etxeak zuzentzeaz eta zerbitzu emateaz gainera, zenbait jaialdi eta ziklo antolatzen, kudeatzen eta zuzentzen ditu, hirian pisu handia dutenak. Ondoren, Donostia Kulturako Kultur Ekintza atalak zuzentzen dituen kultur etheen datu batzuk emango ditugu, bai eta arlo horrek antolatutako jarduera eta jaialdienak ere.



Olatu Talka. Kontzertour.Tritones kontzertuan

Olatu Talka

Olatu Talka jaialdia Kultur Hiriburutzak ondare gisa utziko duen proiektuetako bat izango da. Horregatik, 2016a oso urte garrantzitsua izan zen Donostia Kulturak eta Hiriburutzak bultzatu eta ekoiztutako jaialdi horrentzat, eta urte horretan ere arrakasta handia izan zuen. **25.000 lagun** baino gehiago bildu ziren 2016ko edizioan, eta **2.000 eragile** baino gehiago izan genituen, **200 jarduera** egiteko Olatu Talkaren hiru egunetan. Datu horiek are balio handiagoa dute kontuan izanez gero eguraldiak ez zigula askorik lagundu kalerik kale dabilen jaialdi horretan.

2016an, aldatu egin zen jaialdiaren goiburua, eta *Astindu hiriaren* ordez **Hiria egin** jarri zen. Helburua zera zen, Olatu Talka tresna bihurtzea hiria deritzogun giza ekosistema hori eraikitzeko. Hiria egiteko prozesu horretan, **Puntu Kritikoak** izan ziren elementu nabarmen bat: hiriko sei gunetan jardun genuen, genero ikuspegitik segurtasunari zegokionez akatsak zituzten sei puntutan.

Olatu Talka jaialdia **maiatzaren 20tik 22ra** egin zen, eta nabaria izan zen auzo guztietan, aurreko

urteetan donostiarrek egindako eskaerei erantzun baitzien; kultur etxeek bete-betean esku hartu zuten, jakina. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, hiru egunen balantzea oso positiboa izan zen.

Inaugurazioa Big Dance

gertaeraren bidez egin zen, British Council-ekin batera antolatuta, eta mundu osora hedatu zen haren oihartzuna. Donostian, Kursaleko terrazak izan ziren agertokia, eta helburu nagusia haxe izan zen: egun eta ordu berean, hainbat leku, kultura eta sinesmenetako

pertsonek dantzaren inguruko esperientzia eta pasioa partekatzea.

Aurreko urtean bezala, Kontxako gau-azokak **-Kontxa Gaumarket-** agerian utzi zuen era askotara goza daitekeela Kontxako arkupeez. 50 saltoki, musika zuzenean eta, euria egin arren, milaka lagun hurbildu ziren Donostiako sortzaileen talentuaz gozatzeraz.

Grosetako Katalunia plazan, **hizkuntzekin eta kulturarekin**



Olatu Talka. Urbanizientziak



Olatu Talka. Egia Segurua

zerikusia zuten zenbait jarduera egin ziren. Une gogoangarrienetako bat **castell handi bat** eraikitzea izan zen: Vic-etik etorritako 150 castellerrek hartu zuten parte, hau da, 2016ko Kultura Katalanaren Hiriburutik, zeinak presente egon nahi izan baitzuen senidetze modu horren bidez.

Egiako haurrek ahalik eta modurik autonomo eta seguruenean egin dezaten ikastolako joan-etorria, auzoko hainbat elkarte eta biztanlek hartu zuten parte **Egia Segurua** jardueran. Egiatarrek eraldatu egin zuten auzoa, auzolanari esker eta jai-giroan.

Miramongo basoan, **Basoka 2.0**ekin izan zen hitzordua. Proposamen folk hori ostiraleko arratsalde-gauean egin zen, eta honako hauek hartu zuten parte: **Iker Lauroba, Luke Armstrong, Charlie and the Colors, Araoz abesbatza**... Giro aparta sortu zen, naturarekin bat egiterainokoa.

Olatu Talkaren **amaiera-ekitaldia** modu lasaian egin zen. Ordura arteko jarduerak bizitasun handikoak izan baziren ere, amaieran “dezibelioak jaitsi” ziren, eta iraunkortasuna, kontsumo arduratsua eta ingurumen-kontzientzia izan ziren printzipio nagusiak. **Slow Jaiaz** ari gara, 2016ko jaialdiaren apustu sendoenetako batez. Eguraldi txarrak programazioa berregitera behartu zuen, eta

Antiguako tunelera egokitzea; hasierako ideia, hala ere, Kontxako paseoaren gehiena trafikoari ixtea zen. Hala, bertaratuek gozagarri izan zituzten musika-errezitaldiak, yoga-jarduerak, tai-txia, *jam contact*, kontsumo arduratsua irizpidetzat hartuta jateko eta edateko postuak, erakusketak...

Literaktum

Literaktum jaialdian **19 literatur proposamen** izan ziren, askotarikoak, eta nazioartean sona duten izenak bildu zituen **maiatzaren 2tik 14ra** bitarte. Bereziki magikoa gertatu zen **James Rhodesek** eta **Mikel Chamizo** kazetariak San Telmo Museoa egindako solasaldi-kontzertua. **Juan José Millásek** bete egin zuen Okendo Kultur Etxeko ekitaldi-aretoa, eta beste hainbeste lortu zuen **Elvira Lindok** Tomasenen.



Literaktum. Juan José Millás Okendo K.E.an



Bernardo Atxaga

Gainera, Literaktumek literaturaz gozatzeko beste modu bat proposatu zuen, **Bernardo Atxagaren** Muskerraren Bidean egindako bidaia baten bidez, haren jaioterri Asteasuko kale eta parajeetan barrena.

Literaktum literaturaz hainbat ikuspuntutatik, zenbait hizkuntzatan eta formatu desberdinez gozatzeko proposamen bat da, sarean egina. Literaktum energia-metaketa da. Donostia Kulturako Kultur Ekintza, **Liburutegi Zerbitzua** eta **San Telmo Museoa** elkartu egiten dira **Koldo Mitxelena Kulturunearekin**, **Gipuzkoako Liburuzainen Elkartearekin** eta **Euskal Idazleen Elkartearekin**, **sareko jaialdi bat** sortzeko. Zentro eta ekipoen elkartze horri esker, Literaktumek ertz guztietatik eta era guztietako jendeentzat ekiten dio literaturari.



XI. Donostikluba Jaialdia. Lloyd Cole



Donostikluba. Stylo G JamRock Jaialdian

Ikastaroak

Donostia Kulturak kultur etxeetan eskaintzen dituen ikastaroek harrera ezin hobe izan zuten 2016an. 2016-2017 ikasturtean, **8.000 lagunek** baino gehiagok eman zuten izena **614 ikastaro**tan. Ikastaroetan parte hartzen duten gehienak **emakumeak** dira, hirutik lau, hots, **% 75** baino gehiago. Beraz, bistan da ikastaroak oso errotuta daudela herritarren artean, eta batez ere emakumeen artean. 2015-2016 kanpainarekin alderatuta, ikus daiteke matrikulazio-datuak berdintsuak direla, eta hori, berez, oso esanguratsua da, kontuan izanik zenbateraino zabaldu den prestakuntza-eskaintza, esate baterako, Tabakalera ireki ondoren.

2016-2017 kanpainan ahalegina egin zen **ikus-entzule berriak** erakartzeko, batez ere **gazteak**; esate baterako, 30 urtetik beherakoentzako ikastaroak proposatuz. Orobat, edizio horretako berritasunetako bat ikastaro batzuk **Olatu Talka** jaialdian parte hartzea izan zen, urtean zehar egindako lana ikusgai jarritz.

Donostia Kulturako ikastaroak ondo sustraituta daude herritarren artean, hein handi batean eskaintza askotarikoa delako, bai formatuei dagokienez (ikasturte osokoak, lau hilekoak, autore-ikastaroak, haurrentzako eta gazteentzako ikastaroak...), bai edukiei dagokienez (arte plastikoak, komunikazioa, arte eszenikoak, literatura...).

Dkluba

Donostikluba, 2016an, **Dkluba** bihurtu zen, marka eta diseinu berri bat bere betiko printzipio eta balioei eusten dien musika independentearen zirkuitu batentzat. Hala, Dklubak apustu ausarta egin zuen **bertako musika-taldeak** bultzatzeko, nola eta kontzertuak ugarituz hiri osoko taberna eta aretoetan, eta talde gonbidatu gisa jotzeko bidea erraztuz areto-kontzertuetan.

46 kontzertu programatu ziren, eta **11.000 ikus-entzule** izan ziren kontzertuetan. Aipamen berezia merezi du Donostikluba 2016 jaialdiak; bi asteburutan egin zen Gazteszenan, eta, besteak beste, **Lloyd Cole**, **Holy Fucks**, **Izaro** eta **Iban Zaldia** (hau DJ gisa) izan ziren bertan.

Bereziki arrakastatsuak gertatu ziren **Mojo Working** jaialdia, non "sold out" kartela jarri behar izan baitzen, eta **JamRock Festivala**, gero eta jende gehiagoren erakarle urtetik urtera. Dklubaren beste hitzordu handi bat kalean izan ohi da, **Musikaren Eguna** ospatzeko, Fnac-ekin lankidetzan. 2016an, 3.000 lagunetik gora hurbildu ziren kaleko agertokira, Loiola kalean, **Marky Ramone's Blitzkrieg**, **Sky Beats**, **Eraul**, **Howdy** eta beste artista batzuekin gozatzeko.

Intxaurrondo Kultur Etxeko aretotik pasatu ziren, besteak beste, **Nada Surf**, **Laura Cox**, **Alice Francis** eta **WAS**. Eta, amaitzeko, aipatzekoak dira jarraitzaile leialak dituzten eta hiriko zenbait taberna eta aretotan (**Doka**, **Dabadaba**, **Le Bukowski**, **Undermount...**) egiten diren formatu txikiko kontzertuak.

Musikagela

2016an, Musikagela zerbitzua musikarekin lotutako **beste arlo batzuetara** hedatu zen, proba-saioetarako gelen eskaintzaz gainera: **aholkularitza-zerbitzua** eskaini zen, **maketak grabatzekoa** eta **zuzenekoetarako ekipoa** alokatzeko aukera. Musikagelak **proba-saioetarako gelak** eskaintzen ditu Egia eta Intxaurrondo Kultur Etxeetan, eta arrakasta handia izan dute orain artean.

Orobat, zerbitzuak dinamizazio-lan handia egin zuen, **ikastaroak**, **masterclassak**, **lantegiak** eskainiz; horrez gainera, **Musikagela Weekend** ezaguna, zeinak zerbitzuaz baliatzen diren talde batzuk biltzen baititu martxoan. Bestalde, Musikagelak musika-zirkuitu bat antolatzen du urtean zehar Donostiako tabernetan, eta hartara zuzenean aritzeko aukera ematen die bertako taldeei. Egian bakarrik, Le Bukowskik, Dabadabak, La Tabernak eta Apal Dendak hartu zuten parte zirkuitu horretan. Bestalde, **bideo-elkarriketak** grabatu ziren zerbitzuko talde batzuk sustatzeko.



XXV. Poltsiko Antzerkia. Pepín Tre

Poltsiko Antzerkia

Poltsiko Antzerkiko jaialdiaren **25. urteurrena** handikiro ospatu zen. Formatu txiki eta ertaineko antzerki-ikuskitzunen jaialdi horrek **3.000 ikusle** inguru erakarri zituen Donostiako taberna eta aretoetan eskaini ziren **26 emanaldietara**. Jaialdiaren **amaierako ekitaldia** urteko gertaera handien artean sartzeko modukoa izan zen.

Poltsiko Antzerkia sendotuz doa edizioz edizio; ikus-entzule gazteak ditu jomugan, eta *varietés* antzerkira erakarri nahi ditu ohiko antzerki-guneetara joateko ohiturarik ez duten ikus-entzuleak, nola eta antzerki-emanaldiak jende horiek ohiko dituzten lekuetan programatuz.

Poltsiko Antzerkiko XXV. edizioa bereziki orekatua izan zen **euskararen** erabilera eta **genero-ikuspegiaren** aldetik: ikuskitzunen **% 50**etan emakumeak izan ziren protagonista, eta euskaraz egin ziren.

Kale Antzerkia

2016an, kale-antzerkiaz gozatzeko aukera izan genuen Donostiako auzoetako plaza, kale eta parkeetan, eta **9.000 lagun** baino gehiago bildu ziren emanaldietara.

20 lanen 40 emanaldi eskaini ziren. Jaialdia udako hiletan izan zen, ekainetik irailera, eta erdialdeko kaleetan zein hiriko zenbait auzotan egin zen. Haurrei eta familiei zuzendutako proposamenez gainera, izan ziren helduentzako emanaldiak ere.

Musika Parkean

Musika Parkean **kutsu ingeleseko kontzertu-ziklo bat** da, La Salserak eta Donostia Kulturak antolatua.

Xedea gure inguruko zabalguneei erabilpen egokia sustatzea da, eta esan daiteke azken edizioetan eguraldiak ez duela askorik lagundu. 2016an, **kontzertu bat** besterik ezin izan zen egin, Bidebieten, zikloaren zaleen atsekaberako. **Euriak** ez zion barkatu Musika Parkeari, eta inoiz baino aproposagoa gertatu zen “Gipuzkoa ez da berde hargatik” delako esaera.



XXV. Poltsiko Antzerkia. Amaiera ekitaldia Dabadaban



JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	3.881	285.798
Antzerkia	273	36.670
Dantza	86	16.807
Bideoa	198	8.881
Musika	151	26.566
Hitzaldiak	199	10.915
Erakusketak	107	118.334
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	2.041	34.938
Areto alokairuak	77	6.892
Liburutegiko jarduerak	749	25.795
Besteak	64	4.599

ZERBITZUAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	2.816	680.753
Liburutegiko bisitariak		593.428
Haurtxokoa	992	33.024
Gaztelekua	844	27.412
Plus 55	415	12.602
Ikasgela		3.148
KZgunea	31	341
IT Txartela	376	3.860
Musikagela	77	6.832
Bideo tailerra	81	106



Prestakuntza

	IKASTAROAK	ERABILTZAILEAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
GUZTIRA	1.278	12.384		
DK Ikastaroak	871	8.183	6.137	2.046
KZgune ikastaroak	407	4.201		

BISITARIAK GUZTIRA: 1.267.582



Erakusketa: *Lungo Drom. Ijitoen bizierak*

2016an, Aiete Kultur Etxeak sei urte bete zituen; sei urteotan, auzoko kultur topagune nagusi bihurtu da.

Kultur Etxearen espezialitatea **Giza Eskubideak eta Bakea** dira, eta, Bakearen Etxearekin lankidetzan, gai horiekin lotuta egin izan ditu **erakusketak**, modu pedagogiko eta erakargarrian. Erakusketok beste erakunde batzuekin lankidetzan antolatu ziren; besteak beste, Gernikako Bakearen Museoa Fundazioarekin, Balmasedako La Encartada Fabrika Museorekin, Acción Cultural Españolaekin, Ijito Kulturako Institutuaren Fundazioarekin, Institut Français-ekin, Courrier International-ekin, Bakeola elkartearekin eta, jakina, DSS2016EU Kultur Hiriburutzarekin.

Kultur Etxeak **Gervasio Sánchezen Emakumeak. Afganistan** erakusketarekin eman zion hasiera urteari, eta ondoren **Ijitoen bizierak** erakusketa etorri zen. Giza Eskubideen Zinemaldiarekin batera, **Bakea josiz: gatazka, arpillerak, memoria** erakusketa. Udako erakusketa **Lesbos, Europara sartzeko lehen urratsa** izan zen, errefuxiatuei buruzkoa, **Marrazkiak askatasuneanekin** batera. Gerra Zibilaren urteurrenarekin, **Oroimena bizirik** inauguratu zen, Gerrateko



Erakusketa: *Lesbos, Europara sartzeko lehen urratsa*

eta Frankismoko biktimen oroimen historikoa berreskuratzeko erakusketa. Erakusketa horiekin guztiekin batera, hainbat jarduera egin ziren: proiektzioak, hitzaldiak eta bisita gidatuak.

Izan ziren beste erakusketa batzuk ere, areto nagusian egin ez arren beren munta eta ikusleak izan zituztenak. Elkar Ipuin eta Ilustrazioen Lehiaketa dagoeneko ohikoaren VII. edizioa, saritutako marrazki sorta batekin; DBUSek Gabonetako marrazkiekin egindakoa, Emaus Gizarte Fundazioak birziklapenaren gaiaz egindakoa, Aieteko Bentaundi baserrikoa, eta abar. Miguel de Aramburu Gipuzkoar Historialarien Elkartearen eskutik, Lehen Mundu Gerraren gaia jorratu zen bi erakusketatan: **Lehen Mundu Gerra eta Donostia** eta **Espioitza Donostian Lehen Mundu Gerran**.

Ilustrazioei dagokienez, 2016an **Iñaki Martiarena Mattin, Ainara Azpiazu Axi, Concetta Probanza** eta **Unai Zoco** marrazkilariek beren mundu magikora eramán zituzten bisitariak.

Aipamen berezia merezi du Londrestik ekarritako erakusketa batek: *House of Illustration*, Quentin Blake ilustratzailearenak. **Road Dahl** idazle galestarraren



Ilustratzailearen Txokoa: *Ainara Azpiazu "Axi"*



Haur antzerkia: *Musika margotuz*

jaiotzaren mendeurrena zela eta, haren ilustratzaile kutunena arduratu zen erakusketaz, argitara emandako marrazkiak eta baita **The BFG** liburuko argitaragabeak ere.

Donostian eta, oro har, Donostialde osoan, Aiete Kultur Etxeak erreferente izaten jarraitzen du **haurrentzako programazioan**. Urtean zehar kontu handiz hautaturiko filmak eta antzerkianak eskainiz, askotariko ahotsak haurrei hurbiltzen saiatzen da. Ospakizun bereziak ere baditu, hala nola Haurren Egun Unibertsala, Mestiza elkartearekin eta Bakearen Etxearekin batera, ekitaldi multikultural paregabea.

Bestalde, Aieten **arte-formatu berriak** sortzeko eta haiekiko sentiberatasuna lantzeko programen aldeko apustua egin da 2016an ere. Horixe egin da musika zuzenean eta zeinu-hizkuntza erabiltzen zuten ipuin-kontalarien kasuan. Horrez gainera, *Soinu Magikoak* tailerrak, txikienei musikazaletasuna goiz sortzeko, festagiroa ekarri zuen ekitaldi-aretoa. Orobat, *Musiklasik* programak ere, maila handiko artista euskal herritarak biltzen zituelarik, musika klasikoko kontzertu erakargarriak eskaini zituen jende guztientzat, interesgarriak adituentzat eta esperimentalak artistentzat, eta tresna eta formatuen konbinazio berriak sortzeko gunea izan zen.

Auzoari dagokionez, azpimarratzekoa da Lantxabe elkartearekiko proiektu eta jardueretikiko lankidetzeta estua: zine eta literatura-solasaldien zikloa, zenbait kultur hitzaldi urtean zehar, Manuel Matxain aietetar ospetsuari egindako omenaldia, Pedro Berriotxoak Aieteko baserri, etxe eta familiei buruz idatzitako liburuaren aurkezpena, eta abar.



Haur programazioa: *Vademekun*

Bestalde, Kultur Etxeko **liburutegiaren** zerbitzuen barruan, udal liburutegien sarea Euskadiko irakurketa-sare publikoan integratu zen, eta horrek aldaketa ekarri zuen barne-funtzionamenduan, eta egokitze aldi bat. Hala ere, zerbitzu handia eta jarduerak eskaintzen jarraitu zuen, eta jendeak harrera ona egin zion.

Haurtxoko eta Gazteleku

zerbitzuek jarduera ugari eskaini zituzten egunero, bai eta epe luzerako proiektuak ere, hala nola *Aiete paint*, Haurtxokoa apaintzen eta *Aiete Faktor*. 2016-2017 ikasturtean, Gazteleku zerbitzuak mugatu egin zuen ordutegia, eta aldatu egin zituen erabiltzaileen adinak, baina esan behar da eguneroko bisitari-kopuruak handituz jarraitu zuela, eta hiriko bisitatuena izan zela.

Azkenik, Aiete Kultur Etxeak parte hartu zuen Hiriburutzan erakusketen, **Olatu Energia** lantegien eta **Olatu Talka** jaialdiaren bidez.

Ikusirik nola jarraitzen duten haziz bai auzoak eta bai hiriak, espero dugu aurrerantzean ere erantzungo diegula hiritarren beharrei eta eskakizunei.



Musiklasik: Itziar Lujanbio, oboea; Francesca Romana di Nicola, harpa



JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	382	34.633
Antzerkia	11	1.271
Bideoa	75	2.511
Musika	14	1.534
Hitzaldiak	9	478
Ikastaroak eta tailerrak	50	7.835
Erakusketak	19	13.063
Elkarteen bilerak eta jarduerak	146	6.239
Areto alokairuak	1	20
Liburutegiko jarduerak	57	1.682
ZERBITZUAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	355	70.634
Liburutegiko bisitariak		62.955
Haurtxokoa	199	4.940
Gaztelekua	156	2.739



Prestakuntza **EMAKUMEAK**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
2015/16 ikastaroak	25	232	4	38	21	194
2016/17 ikastaroak	25	297	3	30	22	267

Prestakuntza **GIZONAK**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
2015/16 ikastaroak	25	75	4	7	21	68
2016/17 ikastaroak	25	81	3	16	22	65

BISITARIAK GUZTIRA: 105.267



CASARES-TOMASENE

Kultur Etxea



Olatu Talka: *Altzaquillo*

2016an, prestakuntza hobetzeko egin zen lan, sortzaile berriei adierazpideak errazteko eta laguntzaile-sareak sendotzeko eta zabaltzeko.

DSS2016EUrekiko lankidetzak aberastu egin zuen programazioa urtean zehar zenbait proposamenen bitartez, eta horien artean **Mugalariak** proiektua nabarmendu zen, zeinari esker **Elirale** dantza-taldea egoiliar gisa egon baitzen Casaresen. Hartara, **Altzako** ikastetxeetako haurrek **Oa-huetak** lanaren sorkuntza prozesuan hartu zuten parte.

Altzako ikastetxeekin batera egiten den **hezkuntza-jardueren** programak jauzi kualitatiboa egin zuen 2016an, eta erantzun bikaina jaso zuen jendeagandik: aurreko edizioetako asistentzia-datuak hirukoiztu zituen. Tomasenetik pasatu ziren, besteak beste, **Paco Cascón** eta **Guillermo Ballenato**, hezkuntzari buruz

argibideak eta irizpideak eskaintzeko.

Haurrentzako bi programa sendotu ziren **Artista Gazteak** eta **Zientziarekin Jolasean**. Aldikotasun jakin batez, arte-arloak eta zientzia-ezagutzak hurbildu zizkieten haurrei, modu parte-hartzaile eta jostalarian hurbildu ere.

Prestakuntza da kultur etxeko zutabeetako bat. 2016an, lehen ebaluazio bat egin zen, eta hari esker modu arinagoan jardun ahal izan genuen ikasleen gogobetetasuna handitzeko xedez. Bestalde, arlo batzuetan jarduera jakin batzuen bidez ahalegindu ginen prestakuntza osatzen. Orobat, 2016-2017 ikasturtean izena emandako ikasleen kopurua aurrekoa baino handiagoa izan zen.

Ikus-entzunezkoen arloak leku berezia izan zuen programazioan; prestakuntzatik, sorkuntzatik eta erakusketatik jorratu zen arloa.

Argazki-ikastaroak, Argazki Rallyea -Gipuzkoako Argazkilari Elkartearekin eta AHMrekin batera antolatua-, eta zenbait erakusketa, non bertako artista batzuen lanak jarri baitziren ikusgai: **Antonio Valencia** eta **Jaime Ballestarenak**.

Ilido beretik, **zeramikaren** arloari ekin genion. Lantegian ikasle gehiagok hartu zuten parte, kalitateak ere gora egin zuen, eta egindako lana agerian geratu zen ekainean egindako erakusketan. Orobat, profesional ospetsu baten lana ezagutu ahal izan genuen hurbiletik: **Ramón Fortena**.

Poltsiko Antzerkiaren zikloaren datak aldatu egin ziren, eta jende askorengana iritsi zen. Ikus-entzuleek gozatu egin zuten Inazio Tolosa eta



Hezkuntza jardunaldiak: Guillermo Ballenato



Ramón Forten Master Class bat



CASARES-TOMASENE

Kultur Etxea



Poltsiko Antzerkia: Putinen Guardasola

Ramon Agirreren **Putinen guardasola** edo Mirtaren **Los espejos son para mirarse** lanekin.

Kolaboratzaile-sarea zenbait elkartetara zabaldu zen; Atarik, esate baterako, **Arkitekturari eta Naturari buruzko Jardunaldietan** hartu zuen parte, eta beste jarduera batzuk lehendik datozen lankidetzen bidez egin ziren. Ildo horretatik joan zen **Bertso Astea** ere, zeinak, 2016an, Miren Amurizaren **Kapulana bat zintzilik** ekarri baitzigun, edo dagoeneko ohikoa den bertso-saioa, zeinean **Sustrai Colinak** eta **Igor Elortzak** hartu baitzuten parte, besteak beste. Bestalde, euskararen egunaren inguruan programaturiko jarduerari dagokionez, **Bertso marraztuak** lana izan genuen gozabide, **Unai Gaztelumendi**, **Andoni Egaña** eta **Uxue Alberdirekin**, besteak beste.



Bertso Marraztuak

Auzoarekiko lankidetzari esker, beste programa bat sortu zen: **Musika kalez kale**. Proiektu horretan, musika-talde profesionalen kontzertuekin batera, bertako talde amateurrak ere izaten dira kalean, zenbait puntutan, edo ibiltari, Altzako gizarte-bizitza eta merkataritza suspertzeko helburuz.

Kalea izan zen, halaber, **Olatu Talka** jaialdiaren gertaleku. Casares Irratiak programa berezia eskaini zuen zuzenean jaialdi horretan, UrbanZientzia jarduerari buruz, eta Altxaquillo ikuskizunaren pieza berriak aurkeztu ziren.

Kale-antzerkiko programa Altzako zazpi aldetan gauzatu zen, hau da, aurreko edizioetan baino gehiagotan, eta berrikuntza bat ere izan zuen, bi lan ikus-entzule helduentzat egin baitziren.

Dibulgazio-lanari dagokionez, 2016an **Historiari buruzko Jardunaldiak** nabarmendu ziren. Aranzadiren lankidetzarekin, erromatar garaia gure inguruotan nolakoa izan zen jorratu zuten: azken ikerkuntzak zertan diren azaldu zen, eta era guztietako entzuleei hurbildu zitzairen iraganaren ezagutza zientifikoa eta objektiboa.

Literaturaren arloan, irakurketara bultzatzeko jarduera asko egin ziren haurrentzat, eta **Elvira Lindo** idazlea izan genuen gure artean, **Literaktum** programaren barruan, zeinak oso erantzun ona jaso baitzuen jendearen aldetik.

Tomasene liburutegia Euskadiko Irakurketa Sarean sartu zen, eta orain erabiltzaileek eskura dituzte sare

horretako liburutegietako funts guztiak.

Casares Irratiak % 50 emendatu zuen Internet bidezko entzuketa-kopurua, eta % 33 deskarga-kopurua. Orobat, **Hamaika Entzuteko** lehiaketaren bigarren edizioa egin genuen, pieza labur jatorrizkoak sortzea eta zabaltzea bultzatzeko. Lehen lehiaketaren aldean, bikoiztu egin zen parte-hartzaileen kopurua. Bestalde, **Gure Kabuz** ekinbideari esker, 29 gaztek beren irratsaioa sortzeko eta emateko aukera izan zuten.

Plus 55 programak sendotu egin zituen ohiko jarduerak, eta proposamen berriak garatu zituen. Parte-hartzaileen artean, gogobetetasun-maila oso altua izan zen: martxa nordikoa, sakelakoa erabiltzen ikasteko ikastaroak, Giza liburutegia, Antzerki-foruma.

2016an, **Altzako Tokiko Bildumaren** zerbitzuan lanean jarraitu zuten gure dokumentu-ondarea bildu, gorde eta ezagunarazteko. Bildumak 16.328 dokumentu ditu, eta horietatik 12.364 daude kontsultagai. Erabilera-datuak oso onak dira.



Literaktum: Elvira Lindo



Casares Irratia



CASARES-TOMASENE

Kultur Etxea

JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	413	18.887
Antzerkia	15	2.130
Dantza	2	598
Bideoa	22	646
Musika	12	998
Hitzaldiak	32	963
Erakusketak	8	1.246
Bilerak eta elkarteen ekitaldiak	256	10.081
Areto alokairuak	1	60
Liburutegiko jarduerak	41	1.386
Besteak	25	779

ZERBITZUAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	66	78.923
Liburutegiko bisitariak		72.296
Plus 55	34	1.105
KZgunea	32	4.443
Inplantaris Lanbide	7	20
IT Txartela	72	613
Casares Irratia	11	446



Prestakuntza **EMAKUMEAK**

	GUZTIRA		EUSKERAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
2015/16 ikastaroak	28	227	7	47	21	225
Udako ikastaroak 2016	2	28	0	0	2	28
2016/17 ikastaroak	31	279	5	50	26	229

Prestakuntza **GIZONAK**

	GUZTIRA		EUSKERAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
2015/16 ikastaroak	28	142	7	36	21	97
Udako ikastaroak 2016	2	0	0	0	2	0
2016/17 ikastaroak	31	150	5	32	26	118

BISITARIAK GUZTIRA: 116.883



Treblinkara azken tren



Mollie Malone

Larratxo Kultur Etxeak lanean jarraitu zuen, dagoeneko sendotuta dauden **zikloak eta jaialdiak** daramatzaten lankideen sareari eusteko eta indartzeko. 2016an, dena den, ahalegin berezia egin zen **sorkuntzan** eta **bitartekaritzan**, **DSS2016EU**rekin eta Vaivén antzerki-taldearekin batera gauzatutako proiektu bati esker, zeina antzerki-emanaldia baino harago iritsi baitzen: **Treblinkarako azken tren**. Hiru hilabeteko egonaldiaren ondoren sortu zen produkzio hori, ohiz kanpokoa, Varsoviako ghetoko umezurztegi bihurtu baitzuen Larratxo Kultur Etxea, eta horri esker esperientzia desberdina bizitzeko aukera eman zien hiru astez eta 20 funtziotan aretoa bete zuten ikusleei. Horrekin guztiarekin, bitartekaritzalana, 2.000 gazte baino gehiagori eskaini baitzuen giza eskubideei, elkarbizitzari eta norberaren askatasunari buruzko gogoeta egiteko aukera.

Arte eszenikoen arloan, Estatu osoan beren arte-kalitateagatik ospetsuak diren lanak pasatu ziren Larratxotik, hala nola **Pequeña Max**, Arena en los bolsillos taldearena, edo **Tripula**, Farres Brothers-ena, zeinak harritu egin baitzituen ikus-entzuleak espazio eszenikoa oso modu originalean erabilita. Izan ziren kalitatezko euskal produkzioak ere, hala nola Markeliñeren **Uharte ezezaguna** edo Txalo taldearen **Magia lapurra**.

Musikari dagokionez, **Masterplan**, **Sacramento**, **Bonfire** edo **Crisix** taldeak pasatu ziren Larratxoko agertokitik **Heavy Jaia** eta **Euskal Metal Fest** jaialdietan, eta **Etengabeko zarata**ren beste edizio bat egin zen.

Euskarazko musikari eskainitako jaialdiak, **Altzatarockek**, **Sorkun**, **Eraso** eta **Voltaia** ekarri zituen, eta egun hartan beste zenbait jarduera



Etengabeko Zarata Jaialdia



Max Txikia

eta kontzertu ibiltari bat izan ziren Altzako kaleetan barrena.

Aretoa bete egin zen berriz ere Altzako elkarte eta kolektiboek antolatutako gizarte-ekitaldietan, hala nola **Emakumeen Astea** edo **Solidaritza Jaia**en.

Larratxoko **liburutegia** Euskadiko Irakurketa Sarean sartu zen, eta orain erabiltzaileek eskura dituzte sare horretako liburutegietako funts guztiak.

2016an, **Plus 55** programak sendotu egin zituen bere ohiko jarduerak: **Larunbatak dantzan** edo antzerki amateurreko emanaldiak, zeinek parte hartu zuten pertsonen gogoeta bete baitzuten.



JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	268	16.029
Antzerkia	45	7.502
Dantza	16	2.305
Bideoa	1	170
Musika	7	1.064
Hitzaldiak	2	305
Erakusketak	1	495
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	174	3.819
Areto alokairuak	1	150
Liburutegiko jarduerak	20	179
Besteak	1	40
ZERBITZUAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	10	23.113
Liburutegiko bisitariak		21.314
Plus 55	10	1.799



Prestakuntza **EMAKUMEAK**

	GUZTIRA		EUSKERAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
2015/16 ikastaroak	2	37	0	0	2	37
2016/17 ikastaroak	4	75	1	25	3	5

Prestakuntza **GIZONAK**

	GUZTIRA		EUSKERAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
2015/16 ikastaroak	2	5	0	0	2	5
2016/17 ikastaroak	4	7	1	0	3	7

BISITARIAK GUZTIRA: 47.648



Francoren Bilobari Gutuna

2016an, Egia Kultur Etxeak **kultur erreferente eta topagune** izaten jarraitu zuen Egia auzoan. Auzoaren ezaugarri bat da dinamika aktiboa eta parte-hartzailea, eta ikusgarriak dira zinez artearekin zerikusia duten jardueren kopurua eta urtean zehar horietan izaten den parte-hartzea. Musika, dantza eta antzerkia eguneroko kontua dira auzoan, eta hitzaldiak eta erakusketak ere izaten dira zenbait gunetan. Nabarmentzekoa da gazteek lantegietan edo programazioan duten presentzia, bai eta parte-hartze gero eta handiagoa ere, arte-arlo guztietan aurkeztzen baitituzte beren proiektuak.

Liburutegi-zerbitzuak lan handia egin zuen irakurketa bultzatzeko; jardueren programa adin guztietako erabiltzaileei zuzenduta zegoen. Ipuinaren ordua, Yogipuinak -yoga eta ipuinak batzen zituzten-, literatur solasaldiak, erakusketak -hala nola **Ciudades Fantásticas en el comic, Luis Gasca-**, irakurketa errazeko lantegia ATZEGIrekin lankidetzan, edo kafe inguruko solasaldia. **Ikastaroen** eskaintza zabala izan zen: aireko dantza, joskintza, serigrafia, altzariak zaharberritzea, pilates eta dantza garaikidea, besteak beste. 545 lagunek hartu zuten parte.

Plus 55ek presentzia handiagoa izan zuen Kultur Etxean; arreta pertsonalizatua eta jarduera-



Pintura tailerra

programa zabala eskaini zituen: lantegiak, antzerkia, abesbatzak, giza liburutegia liburutegiarekin lankidetzan... Igor Calonge koreografoaren dantza garaikideko lantegia nabarmendu zen, non, urtebeteko lan eta ikaskuntzaren ondotik, koreografia bat aurkeztu baitzen.

Kultur Etxea Arte Eszenikoetan espezializatua izaki, dantza-, zirku- eta antzerki-taldeak etorri ziren Gazteszenara, eta proposamen berritzaileak ekarri zituzten. **Chapitô** portugaldarrak **Ediporen** bertsio zoragarria eskaini zuen. **Karl Stes** eta **Aireonarek**, berriz, zirku-mundua. Euskarazko antzerkian, Hika Teatroak **Koaderno zuria** ekarri zuen, eta Artedrama, Le Petit Théâtre du Pain eta Dejabu Panpin Lorategiak, berriz, **Francoren bilobari gutuna**, zeinak 1.200 ikus-entzule bildu baitzituen bost emanalditan.

Hasieratik egin da ahalegina dantzak leku nabarmena izan dezan Donostiako kultur programazioan, eta sorkuntza-prozesu osoa ezagutzera emateko. Hori dela eta, Egia Kultur Etxeak dantza garaikideko programazio jarraitua eskaintzen du, bi programaren bitartez: bat, Eusko Jaurarlitzarekin lankidetzan, **Dantza Zirkuitua** izenekoa, eta bestea, Red Española de Teatros, Auditorios, Circuitos y Festivales-ekin, **Danza**



Edipo



Time takes the time time takes

a **Escena** izenekoa. Bi programa horiei esker, dantza garaikideko eskaintza interesgarria da zinez. **Roberto Olivan, Daniel Abreu, Guy Nader & Maria Campos** eta **Pere Faurak** beren ikuskizunak aurkeztu zituzten. Bestalde, **Dantzagunearekin** lankidetzan, **master class** irekia eskaini zitzaion dantzako profesional eta zaleei. Jarduera hark oso harrera ona izan zuen, eta iritzi hori azaldu zuten parte hartu zutenek. Azpimarratzekoak, halaber, arte-

egonaldiak eta euskal konpainien ikuskizunen estreinaldiak: Lasala, bere **Now** bikainarekin; Cielo Raso eta **Jardín de invierno** emozionala; eta Ertzaren **Hariak**, dantza eta txotxongiloa elkartzen dituen ikuskizun ezin ederragoa.

Egia Kultur Etxeak eutsi egin zion **antzerki amateur**raren aldeko apustuari, **Gazte Antzerki Topaketak** eta Aitor Ikastolaren **Antzerki Astearekin**, non gazte donostiarrak



La Baldufa

izan baitziren protagonista, hots, arte eszenikoen etorkizuna direnak. Biga taldeak arrakasta handiz estreinatu zuten **Urtain**.

Programazioaren beste alderdi garrantzitsu bat **haurrentzako eskaintza** da. **Maduixa, Aracalanza, La Baldufa, Gorakada**, antzerkia, dantza eta zirkua programazio irekian eta eskolentzako emanaldietan, **Eskolatik antzokira** programaren bitartez.

Egian, musikak leku nabarmena izan zuen 2016an: kontzertuak **Gazteszenan** edo auzoko zenbait aretotan **DKlubaren** eta **Musikagela** zerbitzuaren eskutik, bai eta zenbait kolektiborekiko lankidetzara ere: **Ttan Ttakun Irratia** eta **Revolutionary Brothers**. 2016an, ugaritu egin ziren bertako taldeen emanaldiak, eta haietako zenbaitek grabazio-estudioa erabili zuten beren maketak egiteko.



Now



Poltsiko Antzerkia: *Putinen Guardasola*



iDisparate!

Bestalde, aholkularitza-zerbitzuak eta zuzeneko emanaldietarako Musikagelako ekipoa alokatu ahal izateak kalitatea hobetu zuten. Saio-aretoak alokatzeko zerbitzu bat da Musikagela; 30 talde eta artista baino gehiago baliatzen dira hartaz, hala nola **Liher** kantaria edo **Nothing Box** taldea, biak ere hauts asko harrotutakoak urtean zehar. Beste batzuk, beteranoagoak, hala nola **Los Hormigones**, Musikagelaren erabiltzaile dira, Joxe Beltza, Arkaiko edo **Painheads** eta abarrekin batera. Gainera, badira artista izendunak ere, hala nola **Niña Coyote** eta **Chico Tornado**, **Grande Days** eta **Havoc**; Musikagelako aretoez baliatzen jarraitzen dute, beren birak egitearekin batera.

DSS2016EUK, hots, Kultur Hiriburutzak, bere lekua izan zuen Egiakultur Etxearekiko zenbait lankidetzaren bitartez. **Mugalariak** egitasmoan, **Dantzaz** konpainiak **Dantzarrantzan** proiektua garatu zuen, musika, dantza, arrantza eta kazetaritza bateratuz. Proiektu horretan, Egiako Aitor Ikastolako eta Angeluko Collège Endarrako ikasleek

hartu zuten parte. **World Puppet Festivalek** La Licorne konpainia frantsesaren **Spartacus** ikuskizunaren bi emanaldi eskaini zituen. **Matejka-Z Polskik**, bertako dantzari eta interpreteekin egindako lantegiak, bi emanaldi eskaini zituen Gazteszenan. Urteari amaia emateko, **Kooperarock** arte- eta lankidetzaproiektua aurkeztu zen, familiei zuzendua.

Egiako auzoak **Olatu Talka** programan hartu zuen parte **Egia Segurua, haurren Egia** esperientziarekin. Herritarren ekinbide horrek auzoko mugikortasunaz berriro gogoeta egitea proposatu zuen 2016an ere, eta ibilbide seguruak diseinatzea haurrentzat.

Pintura, argazkilaritza, eskultura, grabatua, instalazioak, bideoa..., arlo guztiek dute beren lekua Kultur

Etxeko bi erakusketa-aretoetan. Areto horiek jaso zuten, halaber, zenbait elkarte eta kolektiboren lana ere, eta haien zeregina hedatzen lagundu zuten. 2016an zehar, proposamenak aurkeztu zituzten talde eta artista hauek: **Juan Moreno**, **Alaitz Gomez**, **Patxi Txiki**, **Fortu**, **Iñigo Malvido**, **Gorosabel** eta **ExP kolektiboa**. **Dandai** emakume-kolektiboak margolanak jarri zituen ikusgai, eta **Gorka Bravok**, Dantzagunearen eskutik, lan bikaina eskaini zuen, Dantzategia dantza-programaren kariatara egindako argazki-tailerraren emaitza.

2016. urteaz oso ebaluazio positiboa egiten dugu, bide eman baitzien proiektu berriei, non protagonistak kolektiboak, kultur eragileak eta zenbait arlotako artistak izango baitira, topaguneak eta harremanetan jartzeko espazioak bilatuz.



Dantzategia



JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	683	40.681
Antzerkia	43	7.555
Dantza	51	9.485
Antzerki eta dantza entseiluak	84	558
Bideoa	15	459
Musika	24	7.724
Hitzaldiak	6	140
Erakusketak	13	4.874
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	254	4.390
Areto alokairuak	18	2.858
Ikastaroak eta tailerrak	93	1.372
Liburutegiko jarduerak	82	1.266

ZERBITZUAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	393	50.829
Liburutegiko bisitariak	1	31.826
Gaztelekua	115	4.431
Plus 55	51	1.240
Ikasgela	1	3.148
KZgunea	1	4.293
IT Txartela	168	1.848
Musikagela	56	4.043



Prestakuntza **EMAKUMEAK**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
2015/16 ikastaroak	31	400	13	154	18	246
2016/17 ikastaroak	34	481	14	201	20	280

Prestakuntza **GIZONAK**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
2015/16 ikastaroak	31	86	13	35	18	51
2016/17 ikastaroak	34	79	14	39	20	40

BISITARIAK GUZTIRA: 158.650



Put yourself in my place, Ida Hansson & Milijana Babic erakusketa

2016 urte betea izan zen Ernest Lluch Kultur Etxean. **Eztabaida, literatura, sorkuntza** eta arloen arteko **elkarrizketa** izan zituen bere programazioko ildoak.

Erakusleihoa programak biltzen du ondoen espiritu hori. Espazio ireki bat da, proposamen hibrido eta arriskatueta irekia, zeinek arte-hizkuntzaren nahasketa arakatzen baitute. 2016ko lanen artean, nabarmentzekoak dira, esate baterako, **Nola belztu behar zuria**, Bide Ertzean taldearen eta Metrokoadroka Kolektiboaren arteko lankidetzak, Oier Guillan eta Asier Sarasolarekin; **Gaizki moldatzen dira**, Gari, Iñigo Astiz eta Oier Larrañagarekin; **Dalí en blanco y negro** mikroantzerkia, Unai Izquierdo eta Gemma Martínezekin, edo **El arte de la siesta y la contemplación** kontzertua, Elena Setién eta Beatriz Setiénekin.

Poch musikari eta kantari donostiarraren irudia ere zenbait ertzetatik arakatu zen, apirilean programaturiko ziklo batean. Abiapuntua **Derribos Arias** liburuaren aurkezpena izan zen, Carlos Rego musika-kazetariak idatzitako liburuarena. Autorearekin batera, **Alejo Alberdi** eta **Rafael Berrio** aritu ziren. Berriok kontzertu gogoangarria eman zuen solasaldiaren ondoren, eta, ikus-entzuleak guztiz alde zituela eta bere estilo hain bereaz, Pochen kanta ezagun asko interpretatu zituen. Zikloan, izan ziren **bi erakusketa** ere: **Pochen collageen** birproduktzioa eta proiektu oso berezi bat, Ernest Lluch Kultur Etxeak ekoitzia: **Pochicuentos**. Marivi Ibarrolak 80ko hamarkadan Zurriolako hondartzan Pochi egindako argazki sorta bat, Germán Coppiniren testu argitaratu gabe batzuekin batera.

Hori ez zen izan Ernest Lluchek 2016an produtzituriko erakusketa bakarra.

Universo Z Unibertsoa, Juan Herrero eta Lance argazkilaria, eta **En clave personal** proiektu kolektiboa, Javi Etchezarreta, Gari Garaialde, Rafa Gutiérrez, Javier Hernández, Juan Herrero, Ion Urbe eta Josu Trueba fotokazetariena, biak ere sorkuntza sustatzeko helburuaren adierazle argiak. Kapitulu horretan, azpimarratzekoa da, halaber, EHUKo Pintura Masterrarekiko lankidetzak. Horren barruan, Ernest Lluchek ikasle baten edo gehiagoren erakusketa bat ekoitzi ohi du urtero.



Nola belztu behar zuria kontzertu-errezitaldia



Pochipuinak, Marivi Ibarrola & Germán Coppini



ERNEST LLUCH

Kultur Etxea



Jon Busseloren kontzertua Via Foran

Literatura protagonista da beti Ernest Lluh Kultur Etxearen programazioan.

Santiago Roncagliolo, Bernardo Atxaga, Luis García Montero edo **Aixa de la Cruz** izan ziren 2016an gonbidatutako autore batzuk. Literatur jardueren artean, **Hitzak denboran** hitzaldi eta irakurketen zikloa nabarmendu zen, Txirrita, Baroja, Blas de Otero, Lorca eta Unamunoren bizitza eta obra jorratu zituen, 2016an horien urteurrenak ospatu zirela eta.

Solasean... eta **Zientziaren bide berriak** izan ziren, beste urte batez,



Luis García Montero

Ernest Lluh Kultur Etxearen beste ildo nagusi batzuk; besteak beste, **Ramon Saizarbitoria** eta **Marta Macho Stadler** izan genituen gonbidatu. Eta beste hainbeste Kultur Ekintzak antolaturiko sareko zenbait jaialdi eta programari dagokienez ere: **Poltsiko Antzerkia, Olatu Talka, Literaktum, Kale Antzerkia** edo **Abesbatzen Astea**.

Eta, nola ez, **zinea**. Asteleheneroko hitzordua, 2016a urterik onenetakoa izan baitzen: **8 ziklo, 32 film, 2.500 ikusletik** gora. Autore-zinea, generokoa, klasikoa, garaikidea... Dena sartzen da zineklub honetan, 10 urte baino gehiagoko ibilbidea baitu.

Ernest Lluhcheko **Liburutegian** hainbat berritasun izan ziren. Liburutegi hori Donostiako bisitatuenetarikoa bat izan zen. Otsailean, **automailegu**-zerbitzua jarri zen abian, irakurleei beren maileguak errazteko. Urte horretan sendotu zen liburu elektronikoaren zerbitzua ere, eLiburutegia, 2015aren erdialdean abian jarria.

Liburutegiaren ekinbideen artean aipatzekoa da, noski, **Amaraura**, zeinak mikrosite bat estreinatu baitzuen, non ikus baitaiteke nola joan den handituz proiektu hori, Amararen historia, memoria eta ondareari buruzkoa. 2016an ireki zen beste lan-ildo bat ere, **Amarapedia**

atalaren barruan. QR kodeak ipini ziren auzoko zenbait puntutan, euskarazko wikipediarekin lotuak, Amarako toki, eraikin edo pertsonen buruz.

Amaitzeko, esan behar da Ernest Lluh buru izan zela 2016an bi atal garrantzitsutan Donostia Kulturaren kultur etxeen sarean: denen artean ikastaro eta ikasle gehien izan zituen Kultur Etxe honek, eta bere aretoen lagapen gehien egin zizkien kultur elkarte eta eragileei.



Automailegu zerbitzua



JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	454	15.505
Antzerkia	24	2.450
Dantza	1	65
Bideoa	34	2.051
Musika	8	1.019
Hitzaldiak	13	684
Erakusketak	8	2.112
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	245	5.023
Liburutegiko jarduerak	116	1.856
Besteak	5	245
ZERBITZUAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	574	145.727
Liburutegiko bisitariak		119.002
Haurtxokoa	239	7.253
Gaztelekua	118	5.849
Plus 55	79	2.625
KZgunea	67	10.375
IT Txartela	71	623



Prestakuntza **EMAKUMEAK**

	GUZTIRA		EUSKERAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
2015/16 ikastaroak	46	798	10	133	36	665
2016/17 ikastaroak	39	650	8	78	31	572

Prestakuntza **GIZONAK**

	GUZTIRA		EUSKERAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
2015/16 ikastaroak	46	225	10	27	36	198
2016/17 ikastaroak	39	216	8	26	31	190

BISITARIAK GUZTIRA: 264.656



LARROTXENE

Kultur Etxea



Kalebegiak proiektuko kideak



Lagunekin kantari: Antxon Valverde

Larrotxene Kultur Etxea **bideo ekoizpenean erreferentea** da hirian, eta atal honetan azpimarratzekoa da bideo langintzaren aparteko gorakada; urtetik urtera gero eta nabariagoa.

XXVIII. Bideoaldia izan zen 2016koa. Larrotxenek hiriko erdialdera Bideoaldia eramateko apustuari jarraipena eman zion, eta horrela, Antzoki Zaharrean Larrotxeneko ikastaroetan egindako hamaika produkzio eta beste hainbat koprodukzio ikusteko aukera izan zen. Ekainean izan zen hori eta irailean, berriz, tartetxoan egin zitzaion Trueban, urtero legez, Donostiako 64. Zinemaldiaren barneko programazioaren baitan. 2016an 110 material lagapen egin ditu Larrotxenek, aurreko urtean halako bi, eta dagoeneko 700 jarraitzaile ditu facebooken.

Bideo ikastaroek oso harrera izan zuten, ikasle kopuruak gora egin baitzuten eta egindako lanen emaitzak oso onak izan baitziren. Horren isla izan ziren 39. Lekeitioko Zine Bileran lortutako sariak, izan ere, Lekeition eman ohi diren 12 sarietatik 6 lortu zituzten Larrotxeneko ikasleek: amateur sailean **Koldo Garcia** eta **Maite Bidarteren *Karta Astrala*** lanak lortu zituzten Film eta Gidoi Onenaren Sariak; **Felipe Ugartek** berriz, Zuzendaritza Onenaren Saria jaso zuen ***Hasiera*** izeneko filmarengatik; eta **Joxean**

Coyak, azkenik, Ekoizpen Onenaren Saria ***Korronteari aurre. Euskal Balezaleak Islandian*** lanari esker.

Baina, dudarik gabe, aipamen berezia **Kalebegiak** proiektuak merezi du. Larrotxenen sorturiko filma da, gidoigintzako irakasle Michel Gaztanbideren eskutik. Kalebegiak proiektuko 12 film laburretan ikusentzunezkoen arloan diharduten hainbat profesionalen elkar ziren Larrotxeneko ikasleak; dudarik gabe, proiektuaren arima izan zirenak. Estreinaldia Donostiako Belodromoan izan zen 3.500 ikusleren aurrean.

Eta, bideo arloa alde batera utzi aurretik, **Musikene** Goi Musika Eskolarekin Larrotxenek duen harremana aipatu behar, 2016an ere Larrotxenen sortutako film laburren **soinu-bandak** konposatu baitzituzten eskolako ikasleek. Bestetik, Olatu Talka jaialdiaren



Bideoaldia



Lagunekin kantari: Pantxix Bidarte

barruan prestaturiko **bideo pilulak** lan benetan interesgarria izan zen.

Baina, bideoaz gain, Larrotxeneri izaera berezia ematen dioten hainbat jardura badira, horien artean aipagarriena **Lagunekin Kantari**. Auzotik bertatik sortutako egitasmo arrakastatsua da, kantuzaleen urteroko elkargune. 2016an **Pantxix Bidarte** eta **Antton Valverde** izan ziren. Emanaldi guztietan bete zen Larrotxene.

Bestelakoan, **liburutegiak** urteroko bisitari kopuruari eutsi zion eta maileguen zerbitzua indartu eta hobetu egin zen. Ikastaroek, oro har, oso harrera ona izan zuten eta haurrentzako liburuaren gaineko ekitaldi bereziak antolatu ziren, auzoko hainbat eskoletako ikasleekin lan eginez, eta oso emaitza onak lortuz. Horrez gain, ezin ahaztu hilero antolatu ziren haur antzerkiak, harrera ezin hobea izan baitzuten.



JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	43	5.173
Antzerkia	8	587
Bideoa	2	444
Musika	5	670
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	13	196
Areto alokairuak	1	180
Liburutegiko jarduerak	13	3.091
Besteak	1	5
ZERBITZUAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	81	12.769
Liburutegiko bisitariak		12.663
Bideo tailerra	81	106



Prestakuntza **EMAKUMEAK**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
2015/16 ikastaroak	3	19	1	4	2	15
2016/17 ikastaroak	12	146	5	76	7	70

Formación **HOMBRES**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
2015/16 ikastaroak	3	21	1	9	2	12
2016/17 ikastaroak	12	60	5	29	7	31

BISITARIAK GUZTIRA: 31.856



INTXAURRONDO

Kultur Etxea



Doctor Deseo

Intxaurreondo Kultur Etxea **musika** arloan dago espezializatuta eta zuzeneko kontzertuei dagokienean erreferente nagusienetakoa da hirian. 2016An, zehazki, **25 kontzertu** eskaini ziren; hiru emanaldi hileko, eta bertan izan ziren, besteak beste, **Outa Sittes, Tulsa, Cycle, Flamin Grooves + Roy Loney, Doctor Deseo** (sarrerak agortuta bi saioetan), **Damien Jurado, Pil** (Public Image Ltd), **Capsula, Jupiter Jon, Paul Collins, Nothing Places, Alice Francis, Allah-las, Nada Surf, Laura Cox, Zea Mays** eta **Was**.

2014an abiatutako prestakuntza, sorkuntza eta zabalkunde helburuei jarraitu zien eta 2015eko irailean

abiatutako **Musikagela** zerbitzua egonkortu egin zen 2016an. Bost gela intsonorizatu ziren bertan eta zerbitzu honen bitartez bertako taldeek entsegu lokalak dituzte eskuragarri; bai hileko alokairua ordaintzen dutenentzat zein egoitza-egonaldi gisa bisitatzen dutenentzat. 2016an, gainera, ekimenarekin lotutako jarduera anitz antolatu ziren eta harrera ezin hobe izan zuten: **VI. Musikagela Weekend** jaialdia ospatu zen lehenbizikoz Intxaurreondon eta bertan jardun zuten Luke Armstrong, Sky Beats eta Howdy taldeak; publiko zabala biltzea lortu zutenak. Guztira 350-400 bat pertsona bildu ziren. Hainbat master class ere antolatu ziren; **Ariel Rot**,



Musikagela

Diego Garcia El Twanguero eta **Jean Marie Ecay** artistekin. Azken hori Musikari Euskal Herriko Musikarien Elkartearekin elkarlanean.

Bada aipamen berezia merezi duen beste oinarritzko arloa Intxaurreondon, **Liburutegian komikigintzari** ematen zaion bultzada, hain zuzen. Urtetik urtera handitzen doa komiki bilduma eta, ildo horretan, eskaintza gaurkotua izatea lortu da. Donostian erreferente bihurtu da dagoeneko, Komikiarenganako erakarpene sustatuz. Horretarako, bildumaz gain, literatur zein komiki solasaldiak antolatu ohi dira ikasturtean zehar.

Urtean zehar jarduera eta egitasmoak ugari antolatu ohi dira, asji auzoko eragileekin elkar lanean eta dagoeneko errotuta daudenak. Horietako batzuk izan ziren, esate



Dkluba. Alice Francis



Emakumeen Astea: Emakume ausartak

baterako, **Emakumeen Astea, XXII. Ibiltarien Astea**, edo **Extremadurako Kultur Astea**. 2016an, Emakumeen astean, adibidez, **Amparo Sanchez** izan zen eta **Amama** filma edota **Ausartak** antzerki taldea izan genituen gure artean. Ibiltarien Astean berriz **Mikel Labayen** eta **Naiara Agiñako**, eta **Juan Vallejo**ren lanak izan ziren. Auzotarren lankidetzari esker eginiko ekimena aukera paregabea izan zen munduko hainbat herrialde ezagutzeko.

V. Intxaurrondo Eguna ere ezin ahaztu. Intxaurrondo oso auzo zabala denez, egitasmoaren helburua auzoaren alde ezberdinak batzea da, eta 2016an Sagastiederren egin zen. Eguna antolatzerako ezinbestekoa izan zen auzotarren lankidetzeta eta konplizitatea, eta jarduerak urtetik urtera izan duen harrera ona ikusita, aurrera jarraitzeko asmoa sendotu egin da.

Olatu Talka, Antzerki Feria, Izarrak plazara, Giza Eskubideen Zinemaldia eta **Poltsiko Antzerki Jaialdiak** eta antzeko ekimenek beren lekua izan zuten auzoan.

Bestalde, azpimarratzekoa da ere eguneroko jardunean kultur etxean txertatuta dauden hainbat zerbitzu, **+55, Gaztelekua, Haurtxokoa**, hain zuzen ere. Eta horiei esker kultur etxeko jardunaren harrera asko zabalduta zen. Haurtxoko eta Gazteleku zerbitzuei dagokienez, ekimen ugari egin zituzten, bai egunerokoan zein epe luzeko proiektuetan parte hartuz; horien artean, **Gure Baratza, Birziklatuz, Clown, Batukada** edota **Adin gutien topaleku!** izeneko

egitasmoak; Cristina Enea, Educo, +55 eta Txararekin elkarlanean buruturikoak.

Eta, Plus 55 zerbitzuaren bitartez berriz, aurtan 18 jarduera egin dira eta 2154 pertsonak hartu dute parte horietan. Besteak beste, aurtan berria izan den "Larunbatak Dantzan" egitasmoaren barruan egindako lau saiotan. Edota Clown ikastaro arrakastatsuan.



Tomasen abenturak



Ibiltarien XXII. Astea



INTXAURRONDO

Kultur Etxea

JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	161	16.385
Antzerkia	14	2.358
Bideoa	2	120
Musika	32	3.953
Hitzaldiak	5	647
Erakusketak	8	3.066
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	55	4.910
Areto alokairuak	1	20
Liburutegiko jarduerak	44	1.311

ZERBITZUAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	65	85.510
Liburutegiko bisitariak		71.799
Haurtxokoa	12	4.286
Gaztelekua	12	6.086
Plus 55	20	1.550
Musikagela	21	2.789



Prestakuntza **EMAKUMEAK**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
2015/16 ikastaroak	16	201	5	48	11	153
2016/17 ikastaroak	16	233	4	44	12	189

Formación **HOMBRES**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
2015/16 ikastaroak	15	67	5	25	10	42
2016/17 ikastaroak	13	125	4	27	9	98

BISITARIAK GUZTIRA: 135.229



Poltsiko Antzerkia: Pepín Tre

2016. urtea oso ona izan zen Loiola Kultur Etxearentzat, programazioaren kantitatearen zein kalitatearen aldetik.

2016an Donostia Europako Kultur Hiriburu izan zela eta, ekitaldi asko egin ziren DSS2016EU bulegoaren eskutik: **Olatu Talka; DSSirez; Hidrologikak; World Puppet Festival; Lekurik gabe, denborarik gabe; Itsasoratze Artibista, Korale...**

Ohiko programazioari dagokionez, hona hemen eduki azpimarragarrienak:

Arte eszenikoak: Poltsiko Antzerkiaren Jaialdiaren 25. urteurrena, Pepín Tre nabarmendu zelarik; **Kale Anzerkia**, Binéfarko txotxongilolarien **Bandido Cucaracha** lanarekin; Nazioarteko **Folklore** Jaialdia, Afrikako eta Amerikako taldeekin; edo **Abesbatzen Astea** **Batavia Madrigal Singers** abesbatza indonesiarrek Tolosako Abesbatzen



Abesbatzen Astea: Batavia Madrigal Singers

Lehiaketako irabazi ondoren emandako kantaldia..

Aipamen berezia merezi du Loiolako hileroko **Kantujirak**, kaleko musikarien jardunaldiekin: **Barry Manley, Metazaharreko Mutiko Alaiak, Joteras navarras...**

Lantegiak eta ikastaroak: Ohikoez gainera (Pilates/Yoga/Dantzak, PNL-Coaching/Mindfulness/Meditazioa...) hiri-arte gazteari lotutako lantegiak

eskaini ziren. Nabarmentzeko moduko ikastaro bat **Street Photography** izan zen, 1989ko Pulitzer saria irabazitako **David Hornback** argazkilariarekin.

Erakusketak: 5 erakusketa-gune (erakusketa-aretoa, Kultur Etxeko atondoa eta bainuak, Lekuona drogeriako erakusleihoa eta Etxarriene) eta erakusketa asko. Nabarmentzekoak, **M-etxearen**



Loiolako XXVIII Folklore Jaialdia



LOIOLA Kultur Etxea



Euskararen eguna

Loiolako hiri-artearena, **Gipuzkoako Artisten Elkarteen Casas para pájaros**, Martuteneko kartzelako lantegiak, Loiolako **argazki historikoak** drogerian, **Frackingari** buruzkoa edo **Corrado Masacci** italiar artistarena.

Zikloak, asteak eta beste: Loiolako eta Martuteneko Euskara Batzordeek bi film labur egin zituzten: **Engraxi eta Klaus**, Martutenen, Juan Luis Zabalaen gidioan oinarriturik, eta **Loiolako X-espedienteak**, Mikel Pagadiren gidioaren gainean.



Corrado Masacciren erakusketa

Gainera, 2016an Labrit Multimediaren **Ni, Urumea** dokumentala, Gaizka Aranguren zuzendua, eta **Harriak-Piedras**, Maria Cristina erreginak Lorategi Hiriko lehen harria jarri zueneko 1916ko film laburraren bigarren *remakea*.

2016an, beraz, nabarmendu egin zen Kultur Etxea komunikabideetan, betiere auzoetako **eragile soziokulturalekin** lan eginez: Sustrai, M-etxea, Tan Tai...

Urteurrenei dagokienez, nabarmentzekoa 2016an **Villa Betaniaren** 25. urteurrena ospatu zela, **Ibaiertz** abesbatzaren 10.a, eta aurrez aipaturikoak: **Lorategi Hiria**ren lehen harria ipini zeneko mendeurrena eta **Poltsiko Antzerkiaren** Jaialdiaren 25. urteurrena.

Martutenen, Etxarrieneren bidez dinamizaturiko espazioan, indartu egin zen Euskara Batzordea, eta kultur ekintzak modu zeharkakoan aberastu ziren, auzoa egituratu eta espazio publikoa sorkuntza gisa tratatu.

Loiola Kultur Etxearen beste lan-ildo batzuk: etnografiarekin, historiarekin, baserri-munduarekin, hirigintzarekin (Loiolako Boulevarda, ibaiaren kanalizazioa, Txomin Enea eta Lorategi Hiriko proiektuak), ibaiarekin... zerikusia dutenak, honako hauen bidez, besteak beste: **ibaiaren artxibo bat sortzea, tokiko bilduma**, auzotarrei egindako **elkarriketak**, eta Cristina Enea

Fundazioarekiko, Haritzalde Naturzale Elkartearikiko, Arrauning-ekiko... **lankidetzak**.

2016an, topoa berritzeko lanek eragina izan zuten; 2010etik hona, oztopoa izan da hori Kultur Etxea eraberritzeko. Lanak direla eta, Iñigo Urkullu lehendakariaren eta Eneko Goia alkatearen bisita izan genuen, bai eta zenbait unibertsitatetako ingeniari-ikasleena ere, denak ere topoaren trenbidea bikoizteko lanak zertan diren ikustera etorriak.



Harriak-Piedras, Maria Cristina erreginak Lorategi Hiriko lehen harria jarri zueneko 1916ko film laburraren bigarren *remakea*



JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	190	40.880
Antzerkia	25	2.932
Dantza	2	2.000
Bideoa	6	400
Musika	29	4.176
Hitzaldiak	2	90
Erakusketak	22	26.346
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	42	1.358
Areto alokairuak	412	412
Besteak	3.166	3.166
ZERBITZUAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA		28.029
Liburutegiko bisitariak		28.029



Prestakuntza **EMAKUMEAK**

	GUZTIRA		EUSKERAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
2015/16 ikastaroak	18	219	5	54	13	165
2016/17 ikastaroak	12	155	2	27	10	128

Prestakuntza **GIZONAK**

	GUZTIRA		EUSKERAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
2015/16 ikastaroak	18	56	5	13	13	43
2016/17 ikastaroak	12	28	2	5	10	23

BISITARIAK GUZTIRA: 57.302



Penev



Nano Cabaret

2016an ere, **arte eszenikoen** programazioak osatu zuen Kultur Etxeko jardueren ardatza; antzerki-emanaldiak 50etik gora izan ziren, eta musikakoak, berriz, hamabost baino gehiago. Antzerki-programazioaren ezaugarria askotariko estiloak eta formatuak eskaini izana da, hasi Yllanaren **Nano Cabaret** ospetsutik eta erregistro dramatikoagoetaraino, hala nola **Penev**eko aktore-pareak edota **Sexpeare** konpainiak eskainia. Guztien artean, nabarmentzekoak, halaber, Astrolabium Teatrok Julio Villarren **iEh, petrel!** lanaz egindako egokitzapena edo Bernardo Atxagaren **Declaración de Guillermoren** eszenaratzea, Jose Kruz Gurrutxagaren eskutik.

Lan horiek eta interes handiko beste produkzio batzuek osatu zuten urteko programazioa. Horri emanaldi amateurrek gehitu behar zaizkio, bai eta Kultur Hiriburutzarekin lotutako produkzio munta handiagokoak ere, 2016ko emaitza biribiltzeko.

Bestelako ikus-entzuleengana ere hurbildu zen antzerkigintza. Esate baterako, haurrengana, ezin harrera hobe egin baitzioten Escena Creativaren **Faboori** edo La enana naranjaren **Kontukantari**. Bestelako ikus-entzule horien artean, ezin ahaztu Antiguako kaleak eta plazak bete zituen antzerki-programazioa ere. Besteak beste, **Paki Paya** konpainiaren produkzio arrakastatsua nabarmendu zen, zirkuaren eta antzerkiaren artean.

Aipamen berezia merezi du **Poltsiko Antzerkiaren** zikloko lau lan eszenaratzeak, zeinen bidez Igeldo eta Añorgaraino ere iritsi baitzen eskaintza; eta aipamen berezia merezi du, nola ez, Lugaritzek Donostian antzerkiarekin den hitzordurik garrantzitsuenean parte hartu izanak: **dFERIA**n.

Antzerkiari buru emateko, azpimarratzekoa Théâtre des Chimères konpainiaren **egonaldia**,

zeinean, udazkenaren hondarrean, **Azken itzulia** lana landu baitzuen Amasorrain ikastolako ikasle talde batekin eta Plus 55 programako beste zenbait adindurekin batera. Jarduera hori kultur hiriburutzaren **Mugalariak** proiektuaren barruan sartzen da.

Musika-sailari dagokionez, ohiko martxari eutsi zitzaion: kontzertu bat hilero. Nabarmenenak,



dFERIA: *Erase una vez*



Faboo

Igelaren Bandako musikariek eskainia, **Karlos Gimenez**, **Francisco Herrero** eta **Amaia Zubiriak** osatutako hirukotearena, edota **Lou Topet** banda zarauztarrak eskainia.

Bestalde, **Dklubak** eta beste ziklo batzuetako kontzertuek ere musikaz blaitu zuten hala Imanol Larzabal aretoa nola auzoko beste zenbait areto. Azpimarragarria, halaber, Ibaetan egindako kontzertua, **Abesbatzen** programaren barruan, edota **Musikeneren** ekarpen beti bero eta arrakastatsua, oraingoan **Reunion Big Bandek** eskainitako kontzertu bikainaren bidez, zeinak amaiera ezin hobea eman baitzion urteko musika-eskaintzari.

Zineari dagokionez, oihartzun berezia egin zuen **Giza Eskubideen Zinemaldiko** filmen proiektzioak, bai eta herritarren beste ekinbide batzuek ere, interes handia sortu baitzuten. Halaxe gertatu zen **Lobarekin**, edo **Mami, ¿dónde está el dinero?** rekin, biek ere eztabaida bizia eragin baitzuten bertan zirenen artean.

Kultur ekitaldiz betetako urte horretan, programa asko gauzatu ziren Kultur Hiriburutzaren babesean. Sailez sail aipatzen direnez gainera, nabarmentzekoa da **Olatu Talkaren** barruan egindako maratoi ludiko-kulturala, Antiguako elkarte askok hartu baitzuten parte.

Erakusketen sailean, munta berezia izan zuten **Eider Ibarrondorenak**, eszenografiaren munduaren inguruan, edota **Maite Gurrutxaga** ilustratzailearenak, zeinak sorkuntzarako bultzada eman baitzien ipuingintzako lehiaketaren 2016ko edizioan parte hartutako ikasleei. Esandakoez gainera, harrera bikaina izan zuen **Innovartek** egindakoak, Marokoko kolore eta harmonia kromatikoen sorta osoa eskaintzeko lanaren emari. **Sergio de la Fuente** zenbait artistari egindako karikaturen bidezko hurbilpen jostariak amaiera polita eman zien erakusketei.

2016an egindako **ikastaroek eta lantegiek**, hala Kultur Etxean bertan nola Antigua eta Ibaetako beste gune batzuetan, harrera ezin hobea izan zuten herritarrengan.

Liburutegi-zerbitzuari dagokionez, dokumentu eta erreferentzia bibliografikoen kontsulta eta maileguaren

osagarri, irakurtzera bultzatzeko jarduerak izan ziren, bai haurrei zuzenduak **-Ipuinaren Ordua, Txikikluba** edo **Gusen marionetak-**, eta bai helduei zuzenduak, hala nola **Literatura & kafea** edo Plus 55rekiko lankidetzan egin zen **Giza liburutegia**. Beste urtebetez, literatura musikarekin batu zen **Literaktum** zikloan, **Lekord** taldea izan baikenuen gure artean ibili berezi bat egiteko euskal poesian barrena, hartarako sortutako musikaren laguntzaz.

Plus 55eko adinekoentzako jarduerak asko izan ziren aipaturiko sailetan, baina pisu berezia izan zuten honako hauek: hondartzako jarduerak, bideo-forumak eta Kultur Etxean zein kanpoan egindako hitzaldiak.

Amaitzeko, elkarteek eskaera gehiago egin zituzten **Merkatuko ekipamendua** erabiltzeko, eta bere hartan jarraitu zuen Antiguako **Haurtxoko** eta **Gazteleku** zerbitzuak zabaltzeko beharrak, oraingoz egun bakar batez eskaintzen baitira areto horretan.



Lou Topet



Igelaren banda



JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	1.599	31.313
Antzerkia	65	6.961
Dantza	5	1.066
Bideoa	4	300
Musika	20	1.763
Hitzaldiak	5	128
Erakusketak	5	3.451
Elkarteen bilerak eta jarduerak	1.424	14.049
Areto alokairuak	14	2.278
Liburutegiko jarduerak	57	1.317

ZERBITZUAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	222	40.840
Liburutegiko bisitariak		36.369
Haurtxokoa	102	2.050
Gaztelekua	80	1.065
Plus 55	40	1.356



Prestakuntza **EMAKUMEAK**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
2015/16 ikastaroak	32	258	10	65	22	193
2016/17 ikastaroak	31	321	8	60	23	261

Prestakuntza **GIZONAK**

	GUZTIRA		EUSKARAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
2015/16 ikastaroak	32	168	10	56	22	112
2016/17 ikastaroak	31	117	8	31	23	86

BISITARIAK GUZTIRA: 114.890



7 euskal eskultore

Okendo Kultur Etxeak erreferente izaten jarraitu zuen 2016an, auzoan ez ezik, baita hirian ere, eta Donostia 2016rekin elkarlanean gauzatu zituen zenbait proiektu: **Constelaciones Gaur**, **Ondasun lapurtua, XX. mendeko maisu-maistrak**, **Tirabirak** eta **Corale**. Hala ere, nabarmendu beharrekoak dira **Star Treken 50. urteurrena**, **Fantasiatzko** eta **beldurrezko Zinemaren Astea**, eta **7 euskal eskultore** erakusketa.

Ezin ahaztu, hala ere, eraikin zaharreko erakusketa-aretoa, non gure artisten erakusketak izan baitira urte osoan zehar: **Jose Mari Razkinena**, **Ikastola Zurriola**, **Aranzadi** eta **Club Vasco de Camping** kolektiboenak...

2016an, Kultur Hiriburutzarekin elkarlanean jardun genuen **Street Tartar** eta **Energia Olatuak** proiektuetan, bai eta **Olatu Talkarekin** ere **UrbanZientzia** proiektuan, besteak beste; orobat, Katalunia plazan egindakoetan, hala nola Vic-eko 150 castellers-ena, zeinak Hiruburutzak gonbidaturik etorri baitziren.

Auzoko **elkarateekiko** lankidetzak oso erraza izan zen, bai Kultur Etxeak aretoak lagatzerakoan eta bai auzoko jaiak koordinatu eta haietan parte hartzerakoan; besteak beste, **San Joan** eta **Santo Tomas** egunetako **musika-kontzertuekin**.

Kultur Etxeak **Arte Plastikoetan** duen espezialitatea indartu eta areagotu egin zen 2016an, eta nabari geratu zen hori **autore-ikastaroetan** eta **ikastaldi magistraletan**, maila handiko artistak etorri baitziren.

2016an, indartu egin zen, halaber, hiriko zenbait kolektibo eta erakunderekiko lankidetzak. Esate baterako, osasuna, natura, ekologia jorratu zituzten **zikloak eta hitzaldiak** antolatu ziren, baina batez ere **Jornadas Jacobeas** eta **Erregio Etxeen Topaketak** dira nabarmenezkoak.

Zerbitzu integratuek **-Liburutegia, KZ gunea, Gazteleku, Haurtxoko** eta **Plus 55-** ondo funtzionatzen jarraitu zuten, ohi bezala; jendeari arreta behar bezala eskainiz eta programaturiko jarduerak arrakasta zutelarik. Hartara, areagotu egin zen zerbitzu horien izaera irekia eta publikotasuna.



Belartxo jatuna



Master Classa Raul Compadrerekin



JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	459	87.688
Antzerkia	23	2.924
Dantza	9	1.288
Bideoa	37	1.780
Musika	19	3.665
Hitzaldiak	125	7.480
Erakusketak	23	63.681
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	149	1.906
Liburutegiko jarduerak	70	4.600
Besteak	4	364
ZERBITZUAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	786	167.045
Liburutegiko bisitariak		137.175
Haurtxokoa	322	8.646
Gaztelekua	363	7.242
Plus 55	100	5.421
KZgunea	0	8.548
IT Txartela	1	13



Prestakuntza **EMAKUMEAK**

	GUZTIRA		EUSKERAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
2015/16 ikastaroak	28	287	28	47	21	240
2016/17 ikastaroak	25	316	4	33	21	283

Prestakuntza **GIZONAK**

	GUZTIRA		EUSKERAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
2015/16 ikastaroak	49	102	28	16	21	86
2016/17 ikastaroak	25	107	4	12	21	95

BISITARIAK GUZTIRA: 235.201



LIBURUTEGIAK



Udal Liburutegi Nagusia

Donostiako liburutegi-sarea Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen (EIPSaren) sistema

informatikoaren **baitara bildu** berria da, azaroaren 15ean, eta hori izan zen 2016an abiatutako proiekturik handiena.

Bat-egite informatiko horrek aldaketa handia ekarri du alderdi guztietan: planifikazioan, prozesu teknikoaren kudeaketan, katalogazioan, zerbitzu berrien eskaintzan... Aldaketa orok egokitze prozesua eskatzen du eta.

2017an online erabiltzaileekin lotutako alderdi guztiak jorratzen jarraituko dugu. Ezin dugu ahaztu liburutegi publikoak garela eta **OPAC katalogoa dela geure eginkizunak eta zerbitzuak ezagutarazteko bidea** eta gaur egungo online zerbitzurik nagusia. Fondoak kontsultatzeko ez ezik, liburutegiek eskaintzen dituzten zerbitzu guztietarako atariak dira

OPAC katalogoak. Behar-beharrezkoa da argiak eta intuitiboak izan daitezen.

Sistema berriarekin, estatistika-datu gehienak lortuko ditugu, baina datu batzuk ezin izango ditugu konparatu aurreko urteetakoekin, esate baterako bazkideen kopurua. Gure bazkideak EIPSKo bazkide bihurtu dira. Aurreko sisteman (Amicus), 135.698 bazkide ziren, eta, horietatik, 72.538 bazkide migratu ditugu, denak bazkide aktiboak.

2016ko datuek agerian uzten dute beste behin zer-nolako garrantzia duten liburutegiek donostiarrentzat. 2015arekin erkatuta, beherakada txiki-txiki bat izan zen bisitaldien, %0,054 eta maileguen kopuruan, % 0,094. Azken lau urteetako beherako joera txikia mantentzen da. Liburu digitalen mailegua egonkor mantendu da. Dena dela, liburutegietan antolatzen ditugun jardueren kopurua hazi egin

da, bai eta bertan partzen hartzen dutenen kopurua ere.

2016n, **959.187 bisitaldi** eta **495.731 mailegu** egin ziren guztira.

Donostia Kulturaren Donostiako liburutegien sareak, orain artean, **informazioa eta ezagutza donostiar guztien eskura jartzea** izan du helburu, eta haren baitan sortutako **ekimen eta jarduerak guztiek donostiarren irakurzaletasuna sustatzea** bilatu dute. 2016tik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoko herritar orori zabalduko zaio zerbitzua. Aro berri honetan, espero dugu kudeaketa-eredu eraginkor bat garatzea, eta egoki erantzutea zerbitzu-erabiltze biei, donostiarrei eta EAEko herritarrei. Hori guztia, betiere, liburutegietako taldea zaintzetik hasita, bera izan baita, neurri handi batean, udal-liburutegien sareak izan duen arrakastaren giltzarri 1992an sortu zenetik 2016ra arteko ibilbidean, iaz integratu baitzen EIPS sarean, esan bezala, eta sare barneko sare bihurtu.



Haur Liburutegia

Bisitak eta maileguak

2016an, 959.187 bisita egin ziren gure liburutegietara. Beherakada txiki-txiki bat izan dugu kopuruan, % 0,054.

Maileguak, berriz, 495.731 izan ziren. Horrek esan nahi du **2,70 mailegu** egin zirela **biztanleko**, eta datu hori



Haur Irakurketa Kluba

esanguratsua da, Europaren parekoa baita batez beste (3-4 mailegu biztanleko). Bestalde, 4.505 liburu digital mailegatu ziren eta erabiltzaileak 1.864 izan ziren.

Erosketei dagokienez, **24.779 dokumentu** erosi ziren. Berritze-kuota % 6,32 izan zen. Horrek esan nahi du erosketa-gastua biztanle bakoitzeko 2,18 € izan zela.

Bazkideei dagokienez, udal-liburutegien sareak **135.698 lagun** zituen bazkide, eta, horietatik, azken bost urteotako bazkide aktiboak migratu ditugu EIPS sarera, guztira 83.608 lagun.

EIPSRako migrazioa: zenbait datu

- **MARC formatoan igorritako erregistro bibliografikoen kopurua: 269.953**
- **Kopia edo ale kopurua: 530.518**
- **Bazkide kopurua: 83.608**



Tailerra

Proiektuak

2016an, munta handiko beste proiektu tekniko bat burutu zen: Konstituzio Plazako **gordailu bibliografikoa antolatzea eta atontzea**. Horretarako, apalategi konpaktuak jarri, liburuak berariaz garbitu -haien kontserbazioa bermatzeko- eta liburu zaharrak azaleztatu behar izan ziren, besteak beste. Irakurketa publikoa lehentasunezkoa dugu, dudarik ez, baina Konstituzio Plazako udal liburutegiak ondare-bilduma baliotsua osatu du, sortu zenetik (1874) **81.028 dokumentu** bildu baititu.

Argitalpenei dagokienez, urtero bezala, **sareko orri-markatzailea** argitaratu zen, eta 2016an, **Iker Ayestaranek** egin zituen ilustrazioak. Bestalde, IrakurLee irakurketa-gida argitaratu genuen, familia osoarentzat.



Irakurri aurretik irakurri

Ohiko argitalpen horiez gain, bi liburu bikain argitaratu ditugu: **Unai Belaustegik** idatzi eta **Antton Olariagak** ilustratutako **II. Errepublika eta Gerra Zibila. Kronika Donostiatik**, eta **Aritz Gorrotxategik** idatzi eta **Arkaitz Barriolak** ilustratutako **Gabriel Celaya 1911-1991**, poetaren omenez argitaratua, apirilaren 18an 25 urte bete baitziren bera hil zenetik.

Lanean jarraitu dugu, halaber, haurrak irakurle bihurtzeko. Nabarmentzekoa da batez ere urte osoan zehar izandako programazioa: **Irakurri baino lehen irakurri** jarduera, 0-3 urteko haurrentzat, Mestiza elkartearekin lankidetzan; **Ipuinaren ordua** jarduera, ohikoa, 2-4 urteko haurrentzat; larunbatetan, **Irakurketa-kluba** eskaini dugu, 6-8 urtekoentzat, Galtzagorriekin, eta **Irakurketa digitaleko kluba**, 11-12 urteko haurrentzat, Fernando Morillo idazlearekin. Saioretan, batez beste, 20 haurrek hartu dute parte.

Berritasunen artean, udan **Haur literatura 0-8 urtekoentzat** izeneko tailerra programatu zen, Udako Euskal Unibertsitatearekin lankidetzan, eta **Oihana Etxegibel, Juan Kruz Igerabide** eta **Itziar Zubizarreta** idazleek zuzendu zuten. Nabarmentzekoa da, halaber, **Ipuin kontalarien II. Maratoia**. Lau saio izan ziren, eta 150 lagunek hartu zuten parte. Jarduera hau sendotu egin da.



Belén Gopegiuren aurkezpena

Sare sozialen sailean, eutsi egin zaie zerbitzuaren bi blogei. **Liburu dantza** liburuak gomendatzeko blog irekia da eta liburuzainak arduratzen dira hartaz; 3.509 bisita izan zituen. **Liburutegien ahotsa** blogak post bat du hilero euskaraz eta gaztelaniaz, eta liburutegien, teknologiaren eta irakurketaren berri ematen du; **3.504 bisita** izan zituen.

Jarduerak

Liburutegien zerbitzuak bi abagune ditu seinatuak: **Liburuaren Nazioarteko Eguna**, apirilaren 23an, eta **Liburutegiaren Eguna**, urriaren 24an. Horrez gainera, beste erakunde eta departamentu batzuen lankidetzaz dugu **Literaktum** egiteko. Bestalde, nabarmentzekoak dira ibilbide literarioak.

Literaktum jaialdian, **Manuel Rivas**, **Jordi Fibla**, **Anjel Lertxundi** eta **Ixiar Rozas** idazleak izan genituen iaz. Dударik gabe, **Muskerraren bidea** izeneko ibilbide literarioa izan zen jarduera arrakastatsua: Asteasun egin zen, eta Bernardo Atxaga izan zen gidari.



Zilarrezko Euskadi Saria

Liburuaren Egunean, Gipuzkoako Plazan egindako ohiko feriaz gainera, jarduera asko antolatu genituen. Haurrentzat, Ikusi Makusi taldeak **Kontaidazu beste bat** ikuskizuna eskaini zuen, eta Shakti Olaizolak, berriz, **Irakurriz** izeneko. Helduentzat, **Lou Topet** taldeak **-Rafa Rueda, Harkaitz Cano eta Oier Aranzabal-**, kontzertu literario bat eskaini zuen. Hirian barrena egin genuen ibilbide literarioak, berriz, **Mila Beldarrainen** **Bajo el cerezo** nobela izan zuen oinarri, eta, bestalde, gerra zibilaren garaiko Donostia gehiago ezagutzeko aukera izan genuen **Inaxio Mujika Iraolaren** eskutik.

Liburutegiaren Egunerako antolatu genituen jardunaldietan, hausnarketa-gaia izan zen zer funtzio duten liburutegiek ezagutza-sortzaile eta -zabaltzaile gisa. Antton Olariagak egin zuen jardunaldiak iragartzeko kartela. Tabakalera eta Koldo Mitxelena Kulturuneaz gain, Donostia 2016 Fundazioak ere partu hartu zuen programan, zehazki **Donostiapedia** proiektua aurkeztu zuen. Bestalde, Wikipediak eta liburutegiek zer harreman duten ere aztertu zen, eta **Tomás Saorín**, **Carme Fenoll**, **Rubén Ojeda** eta **Francisca Hernández** izan genituen hizlari. Goizeko saioan, Kataluniako GLAM WIKI, Donostiapedia eta Wikidata esperientziak aztertu ziren. Arratsaldean, berriz, gure inguruari begira jarri ginen, **Joseba Agirreazkuenaga**, **Maria José Villa**, **Josu Arambarri**, **Xabi Cañas**, **Elena Oregi** eta **Aitzol Astigarragaren** eskutik.

Irakurketa-klubek jarraitzen dute izaten liburutegi-zerbitzuaren apustu indartsuenetako bat, eta saio batzuek idazlea izaten dute bertan. Iaz, **Belén**

Gopegui, Lara Moreno, Harkaitz Cano, Bea Salaberri, Unia Villena eta Jaime Zulaika izan genituen gure artean.

2016an, bestalde, beste literatur solasaldi bat sortu zen, frantsesez hain zuzen, Miren Garmendiaren eskutik.

2016ko Europako Kultur Hiriburutzarekin lankidetzan, beste bi programa osatu genituen. Batetik, **Irakurketak** programaren bidez, hiributza inguruko biblioteka txiki bat eratu genuen, zenbait liburu-saltzaile, editore eta liburuzainek aukeratutako liburuez osatua. Bestetik, haurrentzako euskal literaturari buruzko dokumentazio-zentroak lideratuta, programa bat jarri genuen abian: .

Urtero bezala, iaz ere poesiak leku nabarmena izan zuen liburutegi-zerbitzuaren erronken artean, jada errotuta dauden bi jardura lekuko: batetik, Juan Ramon Makusok koordinatzen dituen **Poesia eta pentsamendua** jardunaldiak; bestetik, Euskal Jaietako egitarauen barnean antolatzen diren **Poesia orduak** (bi jardunaldi).

Bukatzeko, begi-bistakoa da liburutegiak oso egoera aldakor eta iragarrezinean mugitzen direla, oro har, zenbait urtetik hona, eta horrek hausnarketa egitera behartzen gaitu ezinbestean. Hala, **Koldo Mitxelena Kulturunearekin batera, hausnarketa-prozesu bat abiatu genuen 2016an**; horren ondorioz, litekeena da Udal Liburutegi Nagusiak eta Koldo Mitxelena Kulturunearenak bat egitea, eta, hartara, gure hiriak behar duen Liburutegi Nagusia lortuko genuke. Proiektu honetarako, kanpo-aholkulari aditu baten laguntza dugu: Jordi Permanyer.



LIBURUTEGIAK

LIBURUTEGI ZERBITZUA DATUTAN



Liburutegi kopurua	17
Populazioa	183.113
Bilduma modernoko funtsak (1)	439.101
Liburu eta liburuxkak	338.912
Entzuteko dokumentuak	35.083
Dokumentu elektronikoak	4.584
Ikus-entzunezko dokumentuak	52.981
Musika inprimatua	7.084
Grabatuak	306
Mapak	32
Liburu elektronikoen irakurleak	69
Ordenagailuak (eramangarriak, Ipads, autoformakuntza)	50
Euskarazko funtsa	83.191
Gaztelaniazko funtsa	313.339
Beste hizkuntzetako funtsa	42.571
Bilduma historiko katalogatua	81.028
Mikrofilmak / Mikrofitxak	8.109

Altak	24.779
Bajak	9.926
Bildumaren hazkundera %-tan	3,64%
Bildumaren berrikuntza %-tan (2)	5,65%
Ordenagailu publikoak	309
Internet / CDROM sarbide-postuak	267
OPAC	38
OPAC kontsultak (bisitak)	244.233
OPAC kontsultak (orriak)	2.025.822
Web kontsultak (bisitak)	145.728
Web kontsultak (orriak)	512.939
Hemeroteka digitaleko kontsultak (bisitak)	1.853
Hemeroteka digitaleko kontsultak (orriak)	45.661
Liburu Dantza Blog-a (bisitak)	3.509
Liburu Dantza Blog-a (orriak)	6.681
Liburutegien ahotsa Blog-a (bisitak)	3.509
Liburutegien ahotsa Blog-a (orriak)	5.472



LIBURUTEGIAK


LIBURUTEGI ZERBITZUA DATUTAN

Amicus-eko bazkideak	135.698
Azken bost urteetako bazkide aktiboak	83.608
Absysnet-era migratutako bazkideak	72.538
Liburutegira egindako bisitak	959.187
Bisiten batez bestekoa / eguneko	3.198
Maileguak	495.731
Maileguen batez bestekoa / eguneko	1.652,44
Liburu-maileguak	313.251
Entzuteko dokumentuen maileguak	21.861
Dokumentu elektronikoen maileguak	1.588
Ikus-entzunezko dokumentuen maileguak	138.241
Musika inprimatuaren maileguak	2.115

Aldizkarien maileguak	9.021
Bideo-jolasen maileguak	3.948
Liburu elektronikoen irakurleei egindako maileguak	237
Ordenagailu eramangarrien maileguak	2.523
Autoprestakuntzarako ordenagailuen maileguak	964
Eliburutegia maileguak	4.505
Internet / CDROM / WiFi kontsultak	174.469
KZ aretoetan	65.385
Aretoan	49.537
WiFi	59.547
Jarduera kopurua	1.219
Perte-hartzaileak	44.064
Erakusketak	11

(1) Ez dira sartu Amundarain Mediatekako funtsak

(2) Bertelsman Fundazioaren PAB programaren arabera (liburutegiak aztertzeke programa)





Sorrera urtea	Sail historikoa 1874
	Alderdi Eder 1999
Funts historikoa (katalogazio prozesuan. 2015 amaiaeran katalogatuta)	69.228
Funtsak	58.013
Altak	4.064
Bajak (incluye bajas definitivas y relegación a depósito)	1.623
Bisitariak	237.694
Bisitariak eguneko	792,31

Maileguak	115.430
Maileguak eguneko	384,77
Internet kontsultak / CDROM	33,880
Erabilera publikoko ordenagailuak	40
Prentsa historikoaren kontsultak	4.072
Ikus-entzunezko kontsultak	1.111
Ekintza kopurua	183
Ekintzetara bertaratutakoak	5.093
Erakusketak (Alderdi Ederren eta San Jeronimon eginak)	5




Sorrera urtea	1994
Funts historikoa	11.800
Funtsak	29.633
Altak	1.309
Bajak	1.487
Bisitariak	57.436
Bisitariak eguneko	199,43

Maileguak	26.802
Maileguak eguneko	93,06
Internet kontsultak / CDROM	5.226
Erabilera publikoko ordenagailuak	12
Ekintza kopurua	42
Ekintzetara bertaratutakoak	4.791



LIBURUTEGIAK




LIBURUTEGIA AIETE K.E.



Sorrera urtea	2010
Funtsak	27.188
Altak	2.651
Bajak	228
Bisitariak	62.955
Bisitariak eguneko	210,55
Maileguak	52.884

Maileguak eguneko	176,87
Internet kontsultak / CDRom	9.890
Erabilera publikoko ordenagailuak	17
Ekintza kopurua	57
Ekintzetara bertaratutakoak	1682
Erakusketak	6



LIBURUTEGIA ALTZA K.E. (Larratxo)



Sorrera urtea	1987
Funtsak	18.035
Altak	740
Bajak	138
Bisitariak	21.314
Bisitariak eguneko	93,89
Maileguak	7.955

Maileguak eguneko	35,04
Internet kontsultak / CDRom	1.779
Erabilera publikoko ordenagailuak	5
Ekintza kopurua	20
Ekintzetara bertaratutakoak	179



LIBURUTEGIAK

LIBURUTEGIA CASARES-TOMASENE K.E. (Altza)



Sorrera urtea	1986 (2006)
Funtsak	35.302
Altak	2.078
Bajak	664
Bisitariak	72.274
Bisitariak eguneko	241,72

Maileguak	40.949
Maileguak eguneko	136,95
Internet kontsultak / CDROM	15.490
Erabilera publikoko ordenagailuak	27
Ekintza kopurua	256
Ekintzetara bertaratutakoak	10.081

LIBURUTEGIA EGIA K.E.



Sorrera urtea	1997
Funtsak	32.118
Altak	1.461
Bajak	981
Bisitariak	31.826
Bisitariak eguneko	140,82
Maileguak	21.718

Maileguak eguneko	96,10
Internet kontsultak / CDROM	8.903
Erabilera publikoko ordenagailuak	28
Ekintza kopurua	82
Ekintzetara bertaratutakoak	1.266



LIBURUTEGIAK



LIBURUTEGIA ERNEST LLUCH K.E. (Amara)

Sorrera urtea	2001
Funtsak	43.669
Altak	3.058
Bajak	965
Bisitariak	119.002
Bisitariak eguneko	395,36
Maileguak	60.948

Maileguak eguneko	202,49
Internet kontsultak / CDROM	27.601
Erabilera publikoko ordenagailuak	45
Ekintza kopurua	116
Ekintzetara bertaratutakoak	1.856



LIBURUTEGIA INTXAURRONDO K.E.

Sorrera urtea	2000 (2011)
Funtsak	41.858
Altak	2.418
Bajak	976
Bisitariak	71.799
Bisitariak eguneko	319,11

Maileguak	39.817
Maileguak eguneko	176,96
Internet kontsultak / CDROM	20.355
Erabilera publikoko ordenagailuak	31
Ekintza kopurua	44
Ekintzetara bertaratutakoak	1.311



LIBURUTEGIAK

LIBURUTEGIA LARROTXENE K.E. (Intxaurrondo)



Sorrera urtea	1988
Funtsak	13.870
Altak	475
Bajak	147
Bisitariak	12.663
Bisitariak eguneko	56,28
Maileguak	8.912

Maileguak eguneko	39,61
Internet kontsultak / CDROM	3.947
Erabilera publikoko ordenagailuak	7
Ekintza kopurua	13
Ekintzetara bertaratutakoak	3.091

LIBURUTEGIA C.C. LOIOLA



Sorrera urtea	1987
Funtsak	30.382
Altak	1.630
Bajak	813
Bisitariak	28.029
Bisitariak eguneko	124,02
Maileguak	16.981

Maileguak eguneko	75,14
Internet kontsultak / CDROM	2.997
Erabilera publikoko ordenagailuak	8
Ekintza kopurua	24
Ekintzetara bertaratutakoak	412



LIBURUTEGIAK

LIBURUTEGIA C.C. LUGARITZ (Antiguo)



Sorrera urtea	1993
Funtsak	30.000
Altak	1.700
Bajak	116
Bisitariak	36.369
Bisitariak eguneko	159,51
Maileguak	22.827

Maileguak eguneko	100,12
Internet kontsultak / CDROM	5.317
Erabilera publikoko ordenagailuak	30
Ekintza kopurua	57
Ekintzetara bertaratutakoak	1.317

LIBURUTEGIA C.C. OKENDO (Gros)




Sorrera urtea	1987 (2004)
Funtsak	39.671
Altak	2.650
Bajak	1.590
Bisitariak	137.175
Bisitariak eguneko	455,73
Maileguak	71.191

Maileguak eguneko	236,51
Internet kontsultak / CDROM	34.265
Erabilera publikoko ordenagailuak	41
Ekintza kopurua	70
Ekintzetara bertaratutakoak	4.600




LIBURUTEGIAK



Sorrera urtea	1997
Funtsak	4.995
Altak	202
Bajak	106
Bisitariak	2.807
Bisitariak eguneko	35,99
Maileguak	457

Maileguak eguneko	5,86
Internet kontsultak / CDROM	150
Erabilera publikoko ordenagailuak	3
Ekintza kopurua	19
Ekintzetara bertaratutakoak	466



Sorrera urtea	2002
Funtsak	17.421
Altak	750
Bajak	42
Bisitariak	55,632
Bisitariak eguneko	244
Maileguak	6.335

Maileguak eguneko	27,79
Internet kontsultak / CDROM	2.466
Erabilera publikoko ordenagailuak	8
Nº de actividades	133
Ekintzetara bertaratutakoak	1.940



LIBURUTEGIAK

SAN TELMO MUSEOKO LIBURUTEGIA

Sorrera urtea	2011	Maileguak	1.606
Funtsak	14.522	Maileguak eguneko	8,19
Altak	864	Erabilera publikoko ordenagailuak	3
Bajak	14	Ekintza kopurua	90
Bisitariak	2.827	Ekintzetara bertaratutakoak	5.962
Bisitariak eguneko	14,42		

CRISTINA ENKO INGURUMEN BALIABIDEEN LIBURUTEGIA

Sorrera urtea	2006	Bisitariak eguneko	12,24
Funtsak	2.424	Maileguak	120
Altak	142	Maileguak eguneko	0,33
Nuevos socios	36	Erabilera publikoko ordenagailuak	2
Bisitariak	4.406		

AMUNDARAIN MEDIATEKA. ARANTZATZUKO AMA IKASTOLA

Sorrera urtea	2006	Maileguak eguneko	3,58
Funtsak	7.875	Internet kontsultak / CDROM	1.141
Altak	561	Erabilera publikoko ordenagailuak	2
Bajak	93	Ekintza kopurua	3
Bisitariak	4.979	Ekintzetara bertaratutakoak	17
Bisitariak eguneko	22,33		
Maileguak	799		



© MiquelAngelDaniel

Silvia Pérez Cruz

Donostia Kulturean, Musikaren emanaldiei eta hedapenari dagozkien ekintzetan, hainbat eta hainbat agertoki, lankidetzak, proposamenak eta estilo izaten dira tartean.

Dagokion atalean adierazi denez, **Victoria Eugenia Antzokiaren** programazioak eskaintza horretako proposamen interesgarrienetako batzuk bildu zituen 2016an. Horren lagintxo bat ematearren, aipa daitezke izen batzuk: **Ismael Serrano, Barbara Hendricks, Silvia Pérez Cruz, Graham Nash** edo **Judith Jauregui**. Horrez gainera, oso nabarmentzekoa da programazio hori ahal izan zen neurrian bertako eragile, agentzia eta elkarteekin batera gauzatu zela.

Antzoki Zaharrak, berriz, hurbilagoko talde eta elkarteek eskaini zuten bere agertokia. **12 musika-emanaldi** izan

ziren 2016an, era askotako artisten eskutik; tartean, **Pantxo Carrere, Bide Ertzean** edo **Petti**.

Donostia Kulturako Musika Departamenduak programatu zuen **Kursaal Eszenaren** Herri Musika saila. 2016an, **12 emanaldi egin ziren Kursaaleko agertokietan. Buika, Tricky, George Benson, Elvis Costello** dira izenik ezagunenak. Baina, horiekin batera, aipa daitezke beste proposamen batzuk ere, jendearen artean oso harrera ona izan zutenak: **Momix** zirku eta dantzako ikuskizuna, edo **Tecalitlango Mariachi Vargasen** eta **Orfeo Donostiarraren** artean eskainitako emanaldi bitxia.

2016an ere, ekainaren 21a, Musikaren Europar Eguna, aitzakia polita izan zen Adarra Saria emateko. Urtero, sari horren bidez, Euskal Musikaren

arloan jardun duen edo diharduen artista baten ibilbidea eta lana nabarmentzen dira. Aitortza hori **Benito Lertxundi**ri egin zitzaion honako honetan. Besteak beste, euskal folklorako pieza tradizionalak berreskuratu eta gaurkotu izana aitortu zitzaion, bere jatorrizko kantak herri-kantutegian sartu izana, euskal musikako beste interprete batzuegan eragina izan duen estilo bat sortu izana, eta artista-belaunaldi berriei emandako laguntza eta belaunaldien arteko lan-ildoak ireki izana.

2016an ere, bistan denez, nabarmendu beharrekoak dira **Elkarriketak** ildoko musika-emanaldiak, Europako Kultur Hiriburutzaren programaren barruan. Titulu horren azpian, DSS2016EUK kultura-munduko eragile, gune,



Bide Ertzean



programatzaile eta sortzaileen arteko konplizitatea ehundu zuten proiektu guztiak bildu zituen, zertarako eta Hiriburutzaren balioak sustatuko zituzten jardura guztiak argitzeko helburu zehatzaz, hala nola parte-hartzea, aniztasuna, Europarekiko lotura eta elkarbizitzaren sustapena. **12 Points** musikaldiaz gainera, zeina uztaileko 20tik 23ra egin baitzen europar jazzeko talentu gazteak aurkitzeko eta bultzatzeko helburuz, sei kontzertu programatu ziren, non eta Victoria Eugenia Antzokiko Klub Aretoan, Antzoki Zaharrean eta Kursaalako Auditorioan. Horien artean, nabarmentzekoak **Mariachi Vargasek** eta **Orfeoi donostiarrak** batetik eta **Michael Nymanek** bestetik izan zuten harrera ona.

Bestalde, azpimarratzea komeni da bertako musika-erakundeekin izandako harremanak oso onak izan zirela; honako hauekin, besteak beste: Musikene, EGO, Euskadiko Orkestra, Asociación de Cultura Musical, Musikagileak, Francisco Escudero Kontserbatorioa, Udalaren Musika eta Dantza Eskola. Horri esker, sinergiak ezar daitezke, eta musika-arlorako ongarri gertatuko diren lankidetzak.



Benito Lertxundi

© Iker Garaizabal

Orobat, Departamendu honen esku dago **Heineken Jazzaldiaren** programazioa ere; 2016an, 51. edizioa egin zen, eta arrakasta handia izan zuen entzuleen eta kritikaren aldetik. **177.000 entzule** baino gehiago izan ziren **131 kontzertu** baino gehiagotan, uztailaren 20tik 25era bitarte.

Musika Unitateak **68 kontzertu** sustatu zituen bere aretoetan (**25.000 entzule**, gutxi gorabehera); horietatik, 16 euskarazko emanaldiak

izan ziren. 68 kontzertu antolatu zituen Donostia Kulturako Musika sailak, eta beste 131 kontzertu Heineken Jazzaldiaren barruan.

68 kontzertuon datuak:

- 28 kontzertu Victoria Eugenia Antzokiko Areto Nagusian
- 15 kontzertu Victoria Eugenia Antzokiko Club Aretoan
- 12 kontzertu Antzoki Zaharrean
- 12, Kursaallean (areto balioanitzak eta Auditorioa)



Michael Nyman



HELBURUAK NORAINO BETE DIREN

Euskararen alde:

Euskal musikako 16 kontzertu programatu ziren.

Txikijazz-en, zeina haur eta gazteei zuzendua baita, euskara izan zen komunikazio-hizkuntza; horrez gainera, programazioan kalitateari eusteko, Euskaditik kanpoko eragileez baliatu behar izan zen.

Jazzaldian, indarrean den araudiaren arabera jokatu zen beti, komunikazio orotan hizkuntzaren erabilera bermatzeari zegokionez.

Berdintasunaren alde:

Programaturiko 10 kontzertutan, emakume bat edo batzuk izan ziren protagonistak. Gainera, Heineken Jazzaldian, 12 kontzertutan behinik behin emakumeak izan ziren buru.

Tokikoaren alde:

Sailak programaturiko 40 kontzertutan, bertako artistek jardun zuten. Horrez gainera, Jazzaldian diren zenbait atalek, definizioz, bertako artisten presentzia eskatzen dute: 11 talde zuzeneko hautespen-prozesu batetik datoz; beste 5, aurreko urteko jarduera diskografikotik hautatuak dira, eta beste hiru, berriz, Musikenek bere ikasleen artean hautatuak. Gainera, beste kontzertu batzuetan, interes artistikoaren beraren eraginez, beti izaten dira Jaialdian parte hartzen duten Euskal Herriko artistak. 2016an, San Telmoko goizeko kontzertuen erdia baino gehiagotan, bertako artistak izan ziren protagonista.

Gure erkidegoko sustatzaile pribatuei, bestalde, lehentasuna eman zitzaion hitzarmenak egiteko edo emanaldiak kontratatzeke. Esandako 68 kontzertuetatik 20tan, bertako enpresek parte hartu zuten hitzarmenean edo kontratazioan.

Hitzarmenak eta lankidetzak akordioak egin ziren bertako musika-erakundeekin; besteak beste, Musikene, EGO, Euskadiko Orkestra, Asociación de Cultura Musical, Musikagileak, Francisco Escudero Kontserbatorioa eta Udalaren Musika eta Dantza Eskolarekin.

Iraunkortasunaren alde:

Jazzaldiak segida eman dio duela urte batzuk hasitako kanpaina bati, ingurunearen iraunkortasunaren, segurtasunaren eta osasungarritasunaren alde.

Laburbilduz, hona hemen neurri horien aurkezpenean esandako batzuk:

Heineken Jazzaldiak musikaldi jasangarri, garbi eta segurua izan nahi du. Horretarako, Musikaldiak material birziklagarri guztia bilduko du bere aretoetan, eta bildutako kopuruen berri emango du egunero bere webgunean. Orobat, beira eta latak jasotzeko sistema bat jarriko da martxan Musikaldiko aretoen sarreretan, material horiekin bertan sartzerik egon ez dadin. Antolakuntzako langileak izango dira Musikaldiaren aretoetan, ikus-entzuleei argibideak emateko jasangarritasun, garbitasun eta segurtasun helburuok bete daitezzen.

Gomendio horiek guztiak (10 orrialdeko testua) jaso ziren Musikaldiaren webgunean.

Lehiaketa amaitu zenean, datuak eman ziren argitara, agerian jartzeko antolatzaileek eta ikus-entzuleek birziklatze-lanetan egindako ahalegina.

Sorkuntzaren alde:

Atal hau nabarmen geratu da 12 Points-eko parte-hartzaileak ikusita, hots, Heineken Jazzaldiaren 51. Edizioaren barruko europar musikaldi horretan parte hartu dutenak ikusita.

Orobat, lanean ari dira euskal konpositoreei eskainitako ziklo bat egin dadin, Musikagileak elkartarekin lankidetzan.

Parte hartzearen alde:

Bertako taldeen programazioari buruz esandako guztiari beste hauek erantsi behar zaizkio: Txikijazz-eko programazioa, kartelen lehiaketa bat zeinean 1.900 artistak hartu baitzuten parte, eta Jazzaldian izandako 177.000 ikus-entzuleak. Gainera, sare sozialen arduradunen lan nekaezin eta etengabeari esker, puntan ibili ginen Facebook eta Twitter-eko erabiltzaileen artean.



Ismael Serrano



Programazioa ARTE ESZENIKOAK



Hotel Splendid

2016an, Europako Kultura Hiriburu izan zen Donostia, eta urte hori berezia izan zen arte eszenikoen programazioan ere, Donostia Kulturak **DSS2016EU proiektuarekin lankidetzan estuan** diseinatu baitzuen.

Ahalegin handia egin zen, urtea hasi baino lehen aurkeztu baitzen urteko antzerki- eta dantza-programazioa. Hamabi hilabeteak ikuskizun garaikidez eta nazioarteko, kontinente guztietatik etorritako, beteta egon ziren, zeharkakotasuna, kulturantzitasuna eta konpromisoa xede.

Zertarako antzerkia? leitmotiv-aren inguruko **antzerki-lanak** gizarteko, kulturako eta politikako arazo eta errealitateetara hurbildu ziren, ikus-entzuleei erakargarri eta gozabide gertatzeko. Izan ere, zertarako balio du gizarteko bidegabekeriak salatzen ez dituen antzerki batek? Edo sexu-aukeragatiko diskriminazioak edo emakumeen kontrako erasoak salatzen ez dituenak? Zertarako balio du antzerkiak, gizartean gertatzen dena kontatzen ez badu? Ez genuen beste alde batera begiratu, eta **ikuspegi garaikidea eman genuen gaurko eta betiko gaiez.**

Antzerkian, hauek nabarmenduko ditugu: **Labio de liebre**, Kolonbiako indarkeriaren ondorengo aldia; **Hotel Splendid**, Japoniak Bigarren Mundu Gerran 200.000 emakumeren sexu-esplotazioa nola egin zuen kontatzen duen korear ikuskizuna; **Incendios**, Libanoko gerran kokatutako historia harrigarria, Wadji Mouawad-ek idatzia eta Nuria Espertek eta Ramón Bareak jokatu Mario Gasen zuzendaritzapean.

Dantzari dagokionez, leitmotiv-a **Ezberdinen arteko topaketa** izan zen. Alegia, higidura zerbait unibertsal, mugarik gabe, itzulpenik behar ez duena... dela oinarritzat hartuta, dantza-programazioak desberdinen arteko zubiak eraiki zituen. Bila. Solasean. Antagonia geografiko eta kronologikoen artean gune komunak aurkituz... Arrazen, jatorrien, dantza-estiloen artean... Errealitate desberdinak aurkituz, aberastuz eta inplementatuz, denon lekuetarantz bideratzeko, eta han eraikitzen hasteko.

Ikuskizun horietan, bat egiten dute kultura tradizionalak eta abangoardiak, arte-adierazpen desberdinek, jatorri desberdineko artistek eta kulturek... Denek ere gauza bera xede dutela: hitz egitea, ikuspuntu garaikideak bilatzea eta eskaintzea.

Dantzan, GöteborgsOperans Danskompani-k **Noetic** aurkeztu zuen,



Mamma Mia!



Programazioa ARTE ESZENIKOAK



Donostia Antzerki Saria

Sidi Larbi Cherkaoui sinatutako koreografia, hau da, dantza-munduan puntarri den batek. Oreak Tx-ek **Hybrid rhythm & dance** estreinatu zuen, Hirayama Motoko eta Toko Emirekin egindako produkzioa. Kukaik **Oskara** ekoitzi zuen La Veronalekin batera, euskal kulturari buruzko lana.

Euskarazko **antzerki-programazio erregularrak** sendo jarraitu zuen. Urtero, martxoaren 27an, **Donostia Antzerki Saria** ematen zaio aurreko urtean programaturiko euskarazko antzerkilaran bati. 2016an, Ados Teatroaren **Maitasunaren ostean maitasuna** izenekoak jaso zuen sari hori.

Dantzan, ezin ahaztu Dantzaren Gala, Gipuzkoako Dantza Profesionalek Elkartearekin batera antolatua.

Donostiatik pasatu zen biran zen musikal garrantzitsuenetako bat, **Mamma mia!**, bai eta zarzuelako zenbait obra ere; besteak beste, **La del manojo de rosas**, **Marina** eta **La tabernera del puerto**. Opus Lirica elkarteak **Don Pascuale** aurkeztu zuen Victoria Eugenia Antzokian.

Donostia Kulturaren lau antzokiak (Victoria Eugenia, Antzoki Zaharra, Gazteszena eta Imanol Lartzabal) 351 funtzio baino gehiago programatu zituzten guztira, antzerkia eta dantza, eta 104.185 ikusle baino gehiago bildu zituzten.

Gainera, 2016an **Eskolatik antzerkira** programaren edizio berri bat egin genuen Arte Eszenikoak txikiaren

artean sustatzeko, ikastetxeen lankidetzaz izanda. Donostiako **6.825** neska-mutil pasatu ziren bertatik, helburua arte eszenikoetara hurbiltzea eta sentiberatzea izanik.

Jaialdiei dagokienez, dFERIA 2016k, **Elkarriketak** gaitzat hartuta, **40 ikuskizunen** 35 emanaldi eskaini zituen **9 agertokitari**. **8.400 parte-hartzaile** baino gehiago, eta **406 profesional akreditatu** bildu ziren. Okupazioa, batez beste, % 85ekoa izan zen. ARTEZ aldizkaria lankide izan genuen 2016an ere, dFERIAren programa egiten eta hedapena ematen. **Poltsiko Antzerki Jaialdiak 3.000 ikus-entzule** inguru erakarri zituen 29 emanaldietara.

Azkenik, nabarmentzekoa Biarritz eta Baionarekiko **lankidetzak**; Biarritzekin, **Malandain Ballet Biarritzen** bitartez, eta Baionarekin, berriz, **Scène Nationale**ren bitartez; bieiek esker, Arte Eszenikoetara hurbiltzeko eta sentiberatzeko jarduera orotarikoak eskaini zaizkie interesa dutenei, eta horrek ikus-entzule jakitunago eta sentiberagoak sortuko ditu.

Euskararen presentzia zaindu eta **emendatu** genuen programazioan, **Euskararen Udal Zerbitzuarekin** lankidetzan, eta **arreta berezia** eskaini genion **dantza garaikideari** gure agertokietan, batez ere Egiako Gazteszena aretoan, eta, formatu txikiagoan, baita Lugaritzeko Imanol Lartzabal aretoan ere. Baina, batez ere, lortu genuen antzerki-eta dantza-muntaketa handiekin batera beste txikiago batzuk ere



Oskara

izatea, beren txikian interesgarriak gertatu baitziren gizarte-, giza edota poesia-edukien aldetik. Euskal ekoizpenik onenak pasatu ziren Donostiako agertokietatik, bai eta espainiar eszenako izen handiak eta nazioarteko konpainia garrantzitsuak ere. Gainera, leihotxo bat ireki genuen Latinoamerikara begiratzeko.

Nabarmentzekoak, halaber, **haurrei** zuzenduriko lau **programazio** egonkorak, Victoria Eugenia eta Antzoki Zaharrean eta Imanol Lartzabal, Gazteszena eta Altzako aretoetan.



Programazioa ZINEA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK



Nosferatu, Screwball Comedy zikloa

2016. urtea oso beteta egon da zine-jardueraz; izan ere, ohiko programazioei Kultur Hiriburutzarekin lotutako ekitaldi bereziak gehitu zaizkie.

Donostia Kulturak eta Euskadiko Filmmategiak **Kieslowski** zuzendari poloniarrari egindako omenaldia burutu zuten 2016an. Harrera ezin hobea egin zitzaion Nosferatu zikloak Tabakalerako 1. aretora

aldatu izanari. Are arrakasta handiagoz hasi zen azaroan, leku hartantxe, **Screwball Comedy** iparramerikarrari eskainitako denboraldia.

Urtarrilean, **Dock of the Bay** izan genuen berriro Antzoki Zaharrean eta Trueba zinemetan, dokumental musikalaren zinemaldia, Qualia elkarteak bultzatua. Berriz ere, Ikus-entzule Berrien sailari eman zitzaion

garrantzia, eta izan zen zineari buruz gogoeta egiteko mintegi bat ere.

Donostia Kulturak lagundu egin zuen beste zenbait ekitalditan ere; esate baterako, **Itsaspeko Zinemako Nazioarteko 40. Zikloa**, **Menditour** edo urteroko **Cine Creative Commons** programazioa gauzatzen. Emakumeen Etxeko **V. Jardunaldiak Emakumeek**



Zinema eta antimilitarismoa: Senderos de gloria



Programazioa ZINEA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK



Dock of the Bay kartela



Emakumeek egindako zinema, Sally Potter, *Orlando*

egindako Zinemaz ekitaldia **Sally Potter** zinegileari eskaini zitzaion 2016an. Eta EHGAM kolektiboak hiru saio egin zituen **Zinegoak** zinemaldia aurkezteko. Atzegi elkarteak ere ez du ahazten zinea bere kanpainetan. Festak arloak, berriz, errepikatu egin zuen **Zinema Hondartzan** esperientzia Aste Nagusian; proiektzio-gau gehiago egin ziren 2016an.

Bang Bang Donostia proiektzioak oso arrakastatsu izatera iritsi dira, Antzoki Zaharrean bi hilabetez


behingo emanaldiekin, non josteta, nostalgia eta zine-kalitatea nahasten baitira.

Emanaldi berezien artean, aipatzekoa Kresalaren urteurrena. Horren kari, **La monja alférez** proiektatu zen, pastoral baten emanaldiarekin lotuta. Bitxia gertatu zen **Zinea eta Matematikak** lotzen zituen minizikloa.

2016ko Kultur Hiriburutzak ikus-entzunezkoetara jo zuen, Fundaziotik zuzenean edo beste

erakunde batzuekiko elkarlanean. Hala, Antzoki Zaharrean zenbait proiektzio eman ziren Beldurrezko eta Giza Eskubideen zinemaldiekin batera, Hiriburutzaren inaugurazioa zela eta; orobat, **Human** dokumentala eta zine antibelizistari eskainitako maratoi bat ere izan ziren.

Donostia Kulturak **Filmazpit** programaren seigarren urtea kudeatu zuen 2016an, Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz; euskaraz azpidatzitako film sorta bat, kultur zirkuituetan zabaltzeko.



Zinema eta Matematikak, *La habitación de Fermat*



Programazioa

ZINEA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea

Astearen XXVII. edizioak **japoniar kutsu nabarmena** izan zuen, **Fundación EU-Japan Festen** eta **Donostia 2016**ren arteko lankidetzari esker. Horren adierazle izan ziren kartela, mende honi buruzko atzera begirako ziklo bat, sei zuzendari japoniarren presentzia eta liburu monografiko baten argitalpena. Inaugurazioan eta zenbait jarduera paralelotan ere nabaritu zen japoniar kulturaren ukitu hori.

Baina, horrez gainera, ikusleek eta kritikak ondoen baloratutako film luzeen uztza ekarri zuen 2016ak. Lehiaketa-sailean, sari guztiak eman ziren, eta SyFy telebista-kateak diru-sari bat eman zuen espainiar film labur onenarentzat. Proiektzioak Antzoki Zaharrean eta Victoria Eugenia Antzokian izan ziren edizio horretan ere.

Zinemaldia hiriko puntu gehiagotara iristeko ahalegina egin zen, aurrez bezala; Tabakalera lehen aldia izan zen. Komikilabea ekinbidearekin batera jardun genuen.

Eragina denboran eta espazioan luzatzeko euskarrietako bat erakusketak izan ziren. 2016koetan, geure produkzio bat zegoen DSS2016rekiko proiektuaren barruan, Misterioaren Itsasargia, **Star Trek-en 50. urteurrenari** eskainitako beste bat, eta **Julen Ribas** marrazkilaria euskal herriarraren obrari eskainitakoa (Irunen ere ikusgai egon zen).

Giza Eskubideen Zinemaldia

Udaleko Giza Eskubideen sailarekin batera antolatuta, zinemaldi honen hamalagarren edizioa izan genuen 2016an. Kontzientziak suspertu eta eztabaida sustatzen duen zinemaldia da hau. Zinemaldia inoiz baino **nazioartekoagoa** izan zen 2016an, Donostia 2016rekin lankidetzan burututako ekinbide bereziei esker: **Human Rights Film Network Europar Foruma** eta **Giza Eskubideen Zinemaldiko Nazioarteko Gazte Topaketa**. Jarduera horietan, beste herrialde batzuetako zinemaldi eta erakundeetako ordezkariak hartu zuten



Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astearen karteleko protagonista

parte, eta zenbait film eta ekinbide aurkeztu ziren zinea aldaketarako tresnatzat hartuta. Victoria Eugenia Antzokia egoitza enblematikoa izan zen berriz ere ekitaldi gehienentzat, baina beste gune batzuk ere erabili ziren, hala nola UBIK Tabakalera, Aieteko Jauregia...

Jarduera paraleloei bost erakusketa gehitu behar zaizkie: **Bakea josiz; gatazka, arpillerak, memoria; Maitatzea ez da delitua, Gure borroka Afrikan; Artea eta Giza Eskubideak: Haur eta Gazteen XII. ekitaldia; "Una flor mixe" eta beste erreportaje batzuk;** eta **Hondar artean**.

2016an, lehiaketako **ohorezko saria Tony Gatlif** zinegilearentzat izan zen, ijito herriari ahotsa ematen baitio bere produkzio gehienetan. Errefuxiatuen drama izan zen proiektio eta eztabaida bat baino gehiagotako gaia, eta egon zen astirik oromen historikoa eta ekologia jorratzeko ere, edota Richard Oribe olinpiarren kemena miresteko.

Surfilm festival

Festivalaren 14. edizioa ez zen erraza gertatu, izenburu handirik ez zelako izan estreinaldien artean, eta eguraldia ere ez gurelako alde izan kanpoaldean egindako bi egunetan. Nahiz eta babesleak galtzeak mugatu egin zituen zenbait proposamen, ekitaldiak

frogatu zuen, beste urte batez, baduela gaitasunik **egokitzeko**, eta beti bezain **original** agertu zen edukien eta formen aldetik. Hala, Albaolako Abentura Ozeanikoak sekulako arrakasta izan zuen jendearen, ontziolako taldearekiko lankidetzaren eta edukiaren aldetik. Leku guztiak bete ziren, eta gau magikoa izan zen surf-kultura ospatzeko.

Berriz ere, munduko surfean ezinbestekoak diren lagunak biltzea lortu zen, eta zinea, kultura, ingurumen-proiektuak, musika eta giro ona nahastu zituen proposamenak.

2015eko edizio paregabearen ondotik, hondartzako jardueraren proposamenari ez zioten lagundu eguraldiak eta olatuek, baina, hala eta guztiz ere, eta nahiz eta jende gutxiago bildu, zaleek eta belaunaldi berriek hartu zuten parte Zurriolako Olinpiadetan. Formatu originala, inondik ere, aldi on bat pasatzeko, surflariak eta surflari ez zirenak nahastuta, Donostiako hondartzetan eta inguruetan, festivalera nazioartetik etorritako gonbidatuekin batera.

Positibo eta errealista izanik, Surlfilm Festivalak bilakatzen jarraitu beharra du, eta lan egin beharra dago gazteenetara iristeko, orain 14 urte ez bezala kontsumitzen baitute edukia eta hartzen baitute parte jardueretan.



2016. urtea Europako Kultur Hiriburutzaren urtea izan zen, eta, nola ez ba, Donostia Kulturako Festak unitatetik hainbat jarduera egin ziren hiriburutzaren programaren osagarri.

Besteak beste, Danborrada, Kaldereroak, Su Festak, Aste Nagusia, Euskal Jaiak edo Santo Tomas programak sendoagotu egin genituen, hau da, herritarrekin ospatzen ahalegindu ginen gure hiriak azken urteotan bizi izan duen gertakari garrantzitsuenetariko bat izan den hori.

Baina horrek ez zuen ekarri Festak unitateak alde batera uztea Donostiako auzo eta kaleetan jai-giroa sortzeko hartutako 100 konpromisotik gora; bere eskarmentua eskaini zuen eta lankidetzan jardun zuen herritarren elkarteekin, aisiarakoekin, gastronomiakoekin... proiektuak aurrera ateratzeko.

Hori guztia, kontuan izanik udal politika zeharkakoak eta gero eta jai parte-hartzaileago, berdinzaleago eta ingurumenaren aldekoagoak gauatzeko beharra.

Errege Magoak

2016an, Donostian den hondartzarik surferoena bisitatu nahi izan zuten, Zurriolakoa; handik, gameluen gainean, beren jaimetara hurbildu ziren, Udaletxe aurreko terrazan baitzeuden, haur guztiekin egoteko harrera-ekitaldian, zeina 15:30etan izan baitzen. 18:00etan, beren zalgurdietan, desfileari ekin

zioten Donostia erdialdeko kaleetan barrena. Desfilea amaitu ondoren, eta ohi bezala, Rezola eta Villa Sacramentoko gerontologia-zentroak bisitatu zituzten.

Gainera, Erregeek Altzako auzoa bisitatu zuten, eta han Harria parkera hurbildutako haur guztiak hartu zituzten.





FESTAK




Haur Danborrada

Danborradan, lehen aldiz, sukaldariak ere izan ziren, parte hartzen zuten taldeek hala erabakirik. Dena den, lehenago ere izaten ziren sukaldariak, bezperan eta 20ko arratsaldean ibili ohi diren danborradetan. 2016an, 22 konpainiatan izan ziren sukaldariak.

Konpainiak eta pertsonaiek urtarrilaren 18an –astelehenarekin– egindako jai batean aurkeztu ziren, Victoria Eugenia Antzokian.

Haur Danborradak ere bere aletxoa jarri nahi izan zuen Kultur Hiriburutzan, eta zenbait ekintza gehitu zituen (Danborradari egindako aitortza-ekitaldian hartu zuten parte, San Telmo

Museoan; Europaren ereserkia jo zuten Poloniako Wroclaw-eko haurrekin batera; Hiriburutzaren urtea gogorazten zuten gorbata bat erantsi zieten beren estandarteei; eta parte hartu zuten Kontxako hondartzan egindako danborrada-kontzentrazioan).



7.613 parte-hartzaile, kontuan izanik ikastetxeek auzoetan egindako haur-danborradak.



FESTAK



Helduen danborradak

Helduen danborradak ekitaldi bat izan zuen aurrez, hots, Konstituzio plazan eta Donostiako auzo guztietan festari hasiera emateko egiten dena baino lehen: urtarilaren 18an, arratsaldean, San Telmo Museoa, Haur Danborradako konpainien ordezkariekin batera, Udaleko agintariak egindako aitortza-ekitaldian hartu zuten parte. Ekitaldi hartan, gorbata bat ezarri zitzaion konpainia bakoitzari oroigarri gisa, San Sebastian egunean estandarteetan eraman ohi dituztenei eransteko.

Hiru bandera jaso ziren Konstituzio plazako eraikinean, gure hiriak Europako Kultur Hiriburu titulua izan zueneko jaiari eta urteari hasiera emateko: Donostiako bandera, ikurriña eta Europako bandera.

Gaztelubideko danborradarekin batera, 95 lagunek hartu zuten parte beste hainbeste danborradaren ordezkari gisa, eta Orfeoi Donostiarrak, Europako ereserkiak gainera, festa hauetako ohiko kantak abestu zituzten

Parte hartu zuten, halaber, Danborradako Danbor Nagusiak

eta Haur Danborradako jeneralak; Danborradako ordezkariekin batera, DSS2016EU inskripzioa zeramatzaten danborrak jaso zituzten, auzoetan jartzeko, eta halaxe eman zitzaion hasiera Europako Kultur Hiriburutzari.

Helduen danborradek auzo bakoitzeko ohiko gune guztietara hedatu zuten abagune berezi haren ospakizuna.

Banderak jaisteak eta DSS2016EU inskripzioa zeramaten danborrak itzultzeak -hilaren 20ko 24:00etan- eman zioten amaiera jaiari. Unión Artesanarekin batera, kultur munduko gonbidatuak, Easo Abesbatza, Danbor Nagusia eta Haur Danborradako jenerala eta Danborradaren zona guztien ordezkariak.

Baina ez zen hor amaitu danborradek Donostiako festa-egutegian izandako parte-hartzea: hilaren 23an, goizez, 6.500dik gora danbor, errada, barril, banderadun..., Kontxako hondartzan bildu ziren, iragartzeko hasiera emango zitzaiola Europako Kultur Hiriburutzaren urtea inauguratzeko ekitaldi-programari.

Bertso Eguna

Bertso Egunaren 47. edizioa urtarilaren 30ean egin zen, larunbatarekin. Hamar bertsolarik jardun zuten ekitaldi nagusian, Kursaaletiko auditorioan, 18:00etan. Goizean, bertsoz eta musikaz osatutako jarduera bat izan zen Picachilla tabernan, Kursaaletik gertu. Eguna amaitzeko, afaria egin zen, eta ondoren jaia, non 12 bertsolarik hartu baitzuten parte.



136
Danborradak



8

Berriak
(7 mistoak +
1 emakumeak)

16.227
parte-hartzaileak



%0,7
emakumeak

%6,7
gizonak



%92,6
mistoak



FESTAK




Donostiako kaldereroak

Urtarrilaren 30ean, larunbatarekin, Hungariatik etorritako kaldereroen tribuak iritsi ziren Donostiara, Inauteriak bazetozela iragartzeko.

Hungariako kaldereroen ohiko konpartsan hiru gonbidatu ohorezko izan ziren, Poloniako Wroclaw hiritik etorriak, hura ere Europako kultur hiriburu izan baitzen 2016an: Krzysztof Kucharczyk, Gabriela Agnieszka Kociszewska eta Anna Maria Zygmunt.

Parte Zaharreko kaldereroak



Auzoetako kaldereroak



Inudeak eta Artzainak

Urtarrilaren 31n eta otsailaren 6an, zenbait konpartsa ibili ziren Donostiako auzoetan barrena.



Urtarrilaren 31

Parte Zaharra
Kresala Elkartea

Gros
Groseko Artzai eta Iñudeak "Artainu"

Amara Berri eta Loiolako Erribera
Ikasbide Guraso Elkartea



Otsailaren 6a

Antigua
Antiguotarra Dantza Taldea



Inauteriak

75 jarduerak osatu zuten otsailaren 4tik 8ra bitartean egindako Inauterien programa. Gero eta jende gehiago da, urtetik urtera, moztortuta kaleratzeko prest.

2016an, Momo jainkosa -Wendy Cerezo- eta haren segizioa -Saray Fuente, Ainara Laskibar eta Laura Plaza- Odyssey konpartsakoak izan ziren.

Altzak eta Bidebietak ere ospatu zituzten Inauteriak, zenbait jarduera programatuz hartarako.





FESTAK



San Joan bezpera

Donostiako alkatea eta zinegotziak, Txistularien Udal Bandak eta dantza-taldeak lagunduta, agintarien "Soka-dantza" dantzatu zuten Konstituzio plazan ipinitako lizarren inguruan. Ekitaldia 19:00etan hasi zen, zuhaitzari egindako agurrarekin.



Auzoak

Erdialdea	Lorea
Morlans	Aiete
Sagues	San Roke
Amara Zaharra	Igeldo
Loiola	Oleta
Txomin Enea	Intxaurrondo
Parte Zaharra	Antigua
Martutene (2)	Herrera
Bidebieta	Amara Berri

Aste Nagusia

Jardueraz betetako astea, 427 guztira. Abuztuaren 13tik 20ra bitarte egin ziren.

Jaiei hasiera emateko, "Artillero" kantatu zuten *Alli abajo* telesaileko zenbait euskal aktorek, Gurutziaga Eskolako abesbatzak lagunduta. Gero Axular eta Eureka Dantza Eskolako dantza-taldeek koreografia bat egin zuten iparra eta hegoa hurbiltzea adierazteko.

Programazioak zenbait keinu egin zizkion Europako Kultur Hiriburutzaren proiektuari. Besteak beste: Celtas Cortos-en kontzertua, Irungo Bandak lagunduta, eta europar zinearen zikloa Ondarretako hondartzan.



Aste Nagusia
(abuztuaren 13tik 20ra)

Ikusleen zenbatespena
1.050.000

Agertokiak
23

Jarduerak
427

Aste Nagusiko Sariak

Herri-kirolak
Urrezko Kopa:
Aitzol Atutxa
Igeldoko Harria:
Jokin Eizmendi

Aste Nagusiko IX.
Marmitako Saria
José Ignacio Martínez,
Pepe Pérez

Bertako produktuak erabiliz
egindako Gazteentzako V.
Lehiaketa Gastronomikoa
Joxe Arruebarrena,
Gonzalo Chausson
Biok Bat



FESTAK



Su Festen Nazioarteko 53. Lehiaketa Jaialdia

Su Festen Lehiaketak *Kulturaren europar hiriak* hautatu zuen gaitzat bere programarako, eta Hiriburutzaren ospakizunetan parte hartu zuen hala.

Parte hartu zuten zazpi enpresa piroteknikoak (4 Espainiakoak eta

3 kanpokokoak) Europako Kultur Hiriburu izandako hirietakoak ziren.

Asteari amaia emateko, ikuskizun piromusikal bat egin zen, non Ricasa pirotekniaren suak eta musikak -zeinaren parte bat zuzenean jo baitzuen Ciudad de Hondarribia musika-bandak Juan Jose Oconek zuzenduta- emankizun handia eskaini baitzuten elkarrekin.



Euskal Jaiak

Irailaren 1aren eta 11ren artean egin ziren, era askotako jarduerekin: kirola, gastronomia, folklorea, kultura, haurrentzakoak... euskararen eta gure kulturaren inguruan, ohi bezala.

Hiriburutzaren ospakizunak ere izan zuen bere lekua jai hauetan, honako jarduera hauek programatu baitziren: argazki-erakusketa eta erraketisten erakustaldi-partida, habaneren kantaldia kaian, Urkoren kontzertua Bilboko Udal Bandak lagunduta, *Soinu zaharretik dantzara* (24 "soinu zahar" dantzarako egokituta), Kantu Jiraren 10. urteurrenaren ospakizuna... besteak beste.

Su Festen
Nazioarteko 53.
Lehiaketa Jaialdia
(Abuztuaren 13tik 20ra)

Ikusleen zenbatespena
720.000

-  **Urrezko Maskorra:**
Pirotecnia López
-  **Zilarrezko Maskorra:**
Astondoa Piroteknia
-  **Brontzezko Maskorra:**
Pirotecnia Discomfa
-  **Gazteriaren Saria:**
Pirotecnia López
-  **Herri Epaimahaiaren Saria:**
Pirotecnia López



Pirotekniak parte-hartzaileak

- Alpha Pyro Pirotechnie**
(Paris-Frantzia)
- Astondoa Piroteknia**
(Areatza-Bizkaia)
- Nanna Fireworks**
(Florentzia-Italia)
- Pirotecnia Discomfa**
(Madril)
- Enigma Fireworks**
(Plovdiv-Bulgaria)
- Pirotecnia López**
(Santiago de Compostela)
- Grupo Luso Pirotecnia**
(Lisboa-Portugal)



FESTAK



Donostiako Estropadak

Estropadak, emakumeena eta gizonezkoena, egun beretan eta formatu berekin egin ziren: sailkatzekoa, irailaren 1ean; eta finalak, bi igandeetan, 4an eta 11n. Lehen aldiz, emakumeen

estropadak bi txanda izan zituen finalean. Beste urrats bat emakumeen kirolaren aurrerabidean.

Lehen aldiz, halaber, gizonezkoen banderan edizioari zegokion zenbakia agertu zen: 120.

Banderak ematea "Ciudad de San Sebastián" katamaranetik egin zen, portu barruan.

Donostiako Estropadak (Irailaren 1, 4 eta 11n)

Ikusleen zenbatespena
35.000
lagun eguneko



Kontxako IX. Bandera (emakumeentzat)

Trainero parte-hartzaileak:
11

Sailkatuak:
Arraun Lagunak-Donostiako
Berdintasuna
Cabo
Deustu-Bilbo
Hernani-Iparragirre
Sagardotegia
Hibaika-Jamones Ancin
Orio - Babyauto
San Juan - Iberdrola
Zarautz - Getaria

Irabazlea:
San Juan - Iberdrola

Kontxako 120. Bandera (gizonezkoentzat)

Trainero parte-hartzaileak:
25

Sailkatuak:
Bermeo-Urdaibai-Avia-
Campos-Enagas
Donostiarra
Kaiku Producha
Nt2 Hondarribia
Orio-Babyauto
San Juan Iberdrola
Tirán - Pereira
Zierbena Bahías de Bizkaia

Irabazlea:
Bermeo-Urdaibai-Avia-
Campos-Enagas



FESTAK



Santo Tomas Feria

Santo Tomas feria abenduaren 21ean egin zen, baserri-giroko eta gure kulturarekin lotutako programazioarekin, eta adin guztietako jendeentzat. 216 postutan, txistorra, taloak, gozokiak, gazta, kontserbak, eskulanak... eta programazio ondo osatu bat: fruta, barazki, ezti, txistor lehiaketak; abereen erakusketa, haurrentzako lantegiak eta jolasak, bertsolariak...

Bestalde, Trinitate plazan emakumeentzako Esku-pilotako I. Lehiaketa egin zen, bai eta Emakume Aizkolarientzako Urrezko I. Kopa ere, eta jende asko erakarri zuten biek ala biek. Bi pauso berri kirola sustatzeko Donostiako jaien arloan.

2016an, bederatzi auzok hartu zuten parte ferian, zenbait jarduera antolatuz: Antigua, Amara Berri, Amara Zaharra, Gros, Ibaeta, Intxaurrondo, Loiola, Morlans eta Ibaeta.

Ikusleak zenbates-pena
70.000 lagun

216 Postuak



Urdemea "Potxola"



Jatorria: **Leitza**
Pisua: **408 kg.**

Olentzero eta Mari Domingi

Abenduaren 24ko 16:00etan, txalapartaren, adarraren eta dultzainen soinuek iragarri zuten mendian behera zetozela Olentzero eta Mari Domingi.

Erraldioen konpartsa lagun zutela, Udaletxera iritsi ziren, eta han hartu zituzten gutunak entregatzera etorritako haurrak.

Bien bitartean, Eskola eta Gero Axular dantza-taldeek zenbait

jarduera egin zituzten Udaletxe aurreko terrazan (baserritar jantziaren zapia behar bezala ipintzeko lantegia, gaztaina erreten banaketa...)

18:30etan, zanpantzar talde bat ibili zen buru erdialdeko kaleetako desfilean, non artzainak, galtzagorriak, farol-eramaleak, abereak... baitzihoazen Olentzerori eta Mari Domingiri lagun egiten. Bi hauek, berriz, bildutako jendetza agurtzen zuten zalgurdi gainetik.

500 parte-hartzaileak



100 kg ikatza

16 taldeak



1.000 kg gozokiak

23 taldeak auzoetan






FESTAK

Donostiako auzoetako jaiak


Festak unitateak kudeatzen ditu jaiak egiteko behar diren baimen eta udal zerbitzuak; gainera, azpiegitura eskueran jartzen eta muntaketak koordinatzen ditu, batzorde antolatzaileei eginkizunak errazteko asmoz.

Urtarrila




Antiguako San Sebastian: 10 / 14-24

Otsaila




Ibaetako Jaiak: 27-29

Martxoa




Ibaetako Jaiak: 1-7

Apirila




Maiatza




Morlans: 13-15
Txanpontxo Jaiak: 19-23

Ekaina




Antiguako San Juanak: 5/10-12/16-19/23
Larratxoko Jaiak: 9-12
Herrerako Jaiak: 11-23
Amara Berriko Festak: 17-19/23
Oletako Jaiak San Joanak: 22-26
Igeldoko San Pedro Jaiak: 23, 25, 29, 30
Intxaurrondoko San Juan Jaiak: 23
Intxaur Jaiak-Intxaurrondo: 24-26
Altzako San Martzial Jaiak: 25/29-30

Uztaila




Igeldoko San Pedro Jaiak: 1-3
Altzako San Martzial Jaiak: 1-3
Karmengo Jaiak (Amara Berri): 8/15-17
Añorgako Jaiak: 9-10/14-17
Karmengo Jaiak (Kaia): 14-17
Zipotz Jaiak: 14-17
Zubietako Herri Jaiak: 23-25/27/29-31
Amarako Jaiak: 28-31
Loiolako San Inazio Jaiak: 28-31

Abuztua




Iraila




Añorga Txikiko Jaiak: 2-3
Txomin Eneako Jaiak: 2-4
Jolastokieta: 5-11
Intxaurrondo Zaharreko Jaiak: 7-11/14
Aieteko Jaiak: 9-18
Porrontxo Jaiak: 10/12-18
San Festo (Loiolako Erribera): 16-18
Udaren amaiera (Altza): 16-18

Urria




Amara Berriko Jai Herrikoia: 5-10
Martu Jaiak: 7-9/10-11

Azaroa



Abendua





FESTAK



Beste jarduera batzuk

Festak unitatetik, behar ziren baimen eta zerbitzuak kudeatu ziren hainbat kolektibo eta elkartek proposatutako jarduerak kalean egin ahal izateko, eta hartarako behar ziren azpiegiturak eskueran jarri eta muntaketak koordinatu ziren.

7 Jarduerak Etxe erregionales jaiak

Beste jarduerak 62

- Eskularen azoka
- Minbiziaren kontrako lasterketa
- Casal de Catalunya – calçotaden debordaldia
- Tango jaialdia - AGATA
- Liburu zahar eta berrien azokak
- Lauarin jaialdia
- Gipuzkoako marinel zaharrei omenaldia
- AFAGI
- Argazki Hiria
- Train d'Union
- Barra klasikoko erakustaldia Kontxako eskudelean
- Zipristin – Tamayo Pintura Lehiaketa
- Rallye histórico Vasco-Navarro
- Tasta Catalunya
- Sagardo Apurua
- Txakoli Eguna
- Santa Ageda
- Kanoa hawaiarren lehiaketa
- ...

Senidetzeak

Marugame: Urteroko garaikur-trukea egin zen eskolarteko futbol-txapelketetarako.

Trento: Urpelozaleak igeriketa elkarteko talde bat parte hartzekoa zen *Pallio dell'Oca* baltsa-lehiaketa (ekainaren 17-20an), San Vigilioren festetan izaten baita, baina ezinezko gertatu zen, egun haietan Italiako aire-kontrolatzaileek greba egin zutelako.

Wiesbaden: Musikari donostiarren jardunaldia Wiesbadenen, apirilaren 21etik 24ra egindako Hiri Senidetuen topaketetan

Wiesbadengo Mädchenchor abesbatza bisitan izan zen Donostian, urriaren 16tik 21era bitartean.



Eskerrak babesleei

Beste urte batez, eskerrak eman nahi dizkiegu honako marka hauei, berak gabe zenbait jarduera egin ezinik geratuko baikenen: Amstel, Coca Cola, Euskaltel, El Diario Vasco, Kutxabank, AFADE, FCC, Eroski, Supermercados BM, Insalus, Nestle, Frigo, Super Amara, ADEGI, EKP, Kirolbet...



EL DIARIO VASCO



SUPER AMARA

ADEGI



ESTADÍSTICA
LABOR
PORTUARI

PUNTOS
DEPORTIVOS
DE BILBAO





Jaialdiak

51 HEINEKEN JAZZALDIA

51 Heineken® Jazzaldia

Donostia / San Sebastián

Uztaila 20 - 25 Julio 2016





Jaialdiak 51 HEINEKEN JAZZALDIA



© Lolo Vasco - Heineken Jazzaldia

Diana Krall

175.000 entzule inguru izan ziren guztira jaialdian eta giro ezinhobea izan zen hirian 51. Heineken Jazzaldiak aurreikuspen guztiak gainditu zituen, bai ikusle kopuruari bai artisten mailari dagokienez. **175.000 entzule** inguru izan zituen guztira jaialdiak; horietatik **19.075 ordainpeko kontzertuetan** eta gainerakoak doako kontzertuetan.

Trinitate Plazako, Kursaal Auditorioko, San Telmo Museoko eta Victoria Eugenia Antzokiko hainbat emanalditan sarrerak agortu ziren. Giro ederra izan zen Donostian, bisitariz gainezka zegoen hiria, eta jaialdiaren egitarau oparoak harrera ezinhobea izan zuen.

Inoiz baino **agertoki gehiago** izan zituen jaialdiak, **20 guztira**. Hiriko toki enblematikoenetako bat, **Konstituzio plaza**, Heineken Jazzaldiaren agertokia izan zen estreinakoz. **132 kontzertu** izan ziren, horietako **84 doakoak**. Gainera, hiriko establezimendu ugari jazz emanaldiak izan zituzten euren terrazetan, jazz hiriko doinu bihurtuta.

Ellis Marsalis pianista handiak, ospe handiko musikari familiaren sortzaileak (Wynton, Branford, Delfeayo, Jason), jaso zuen **Donostiako Jazzaldia Saria**. Kontzertua eskaini zuen, eta

bukaeran haren seme **Branford Marsalis**ekin balada hunkigarria jo ostean, semeak saria eman zion aitari. Ondoren, Branford Marsalisek kontzerturik gogoangarrienetako bat eskaini zuen, **Kurt Elling** kantaria lagun zuela.

Itzela izan zen jaialdiaren hasiera: **Gloria Gaynor**rek jendetza batu zuen Zurriolako hondartzan. 45.000 ikusleko gozatu zuten Gaynorren kontzertuaz eta lau telebistek zuzenean eskaini zuten emanaldiaren hasiera albistegietan. Jazz Band Ballean askoz emanaldi gehiago izan zen: **Dave Douglas, Marc Ribot, Cyrus Chestnut, Buster Williams, Lenny White, Terje Rypdal, Elephant9...** Goi mailako emanaldiak denak ere.



© Lolo Vasco - Heineken Jazzaldia

Ainara Ortega



Festivales 51 HEINEKEN JAZZALDIA



© Lolo Vasco - Heineken Jazzaldia

Ellis Marsalis, Branford Marsalis y Miguel Martin en la entrega del Premio Donostia Jazzaldia

Punta-puntako jazzza izan zen ere Kursaal Auditorioan: urrezko hirukote bat (**John Scofield, Brad Mehldau, Mark Guiliana**), **Jan Garbarek Trilok Gurtu** perkusionistak lagunduta eta **Christian Scott** tronpeta-jotzaile estatubatuarra. Halaber, **Ibrahim Maalouf** tronpeta-jotzaile frantziar-libanoarrak musika proposamen eztabaidagarria eman zuen, Kursaal Auditorioa lepo zegoela.

Aretoak maiz bete ziren 51. edizioan eta kontzertu andanako sarrerak agortu ziren: Trinitate Plazako Marsalis aita-semeak, Steve Coleman eta Diana Krall;

Kursaaleko Ibrahim Maalouf eta Mehldau-Scofield-Guiliana; Victoria Eugenia Clubeko Jerry Bergonzi eta San Telmoko eguerditako bost kontzertuak.

Bete-beteen asmatu zen San Telmo Museoan izan ziren **eguerdiko kontzertuekin**. Sarrera guztiak agortu zituzten bertan izan ziren artistek: Workshop de Lyon proposamen bikain eta ausarta, **Josemi Carmona & Javier Colina, Jerry Bergonzi Perico Sambeatek** lagunduta, **Ainara Ortega** euskal jazz musikari gorenez inguratuta eta **Mikel Andueza** bere disko berri interesgarriarekin.

Konstituzio Plazako agertokiak ere arrakasta izan zuen, bai bertaratutako entzule kopurua bai *Souletik jazzera* lelopeko egitaraua kontuan hartuta.

Azken urteetan bezalaxe, **Heineken Agertoki Berdea** festarako, gozamenerako eta bizikidetzarako gune bilakatu zen. Gloria Gaynorrekin festa lehertu zen, baina **Charles Bradley** ez zen atzean geratu eta soul ikuskizun ikaragarria eskaini zuen. Arrakasta handia izan zuten, halaber, **Snarky Puppy** sutsuek, **John Nemeth** eta **Nick Waterhouse** artista bakanek, **Grupo Fantasma**ren erritmo latinoek eta etengabe gora ari den



© Lolo Vasco - Heineken Jazzaldia

Ibrahim Maalouf



Festivales

51 HEINEKEN JAZZALDIA



© Lolo Vasco - Heineken Jazzaldia

Gloria Gaynor

bertako **Rural Zombies** taldeak. **Kursaaleko Terrazek** arratsaldeaz nahiz gauaz musika entzuteko primerako aukera eskaini zuten. Euskal Herriko eta Musikene Goi Mailako Musika Ikastegian ikasten duten kanpoko musikariz osatutako taldeek euren abileziak agertzeko plaza aparta izan ziren.

Frantziako **Arfi** kolektiboak bi musika proposamen oso ikusgarri aurkeztu zituen eta nabarmendu

beharrekoak, zalantzarik gabe: Workshop de Lyon eta Marmite Infernale.

51. Heineken Jazzaldia beste jaialdi bati eman zion aterpe 2016an: europar jazz talentu berriak deskubritzea xede duen **12 Points jaialdiari**. Donostia 2016 Kultur Hiriburuaaren Elkarriketarako lerroarekin elkarlanean antolatutako jaialdi ibiltari hau Dublinen egiten da bi urtero eta

gainerako edizioak Europako beste hiriburutan egiten dira. 10. edizioa Donostian egiteak zentzu guztia zuen, kultur hiriburutzaren urtean. Europako 12 hiritako 12 talderen kontzertuak izan ziren 12 Points jaialdiaren muina eta jazz adituen parte-hartzea izan zuen Jazz Futures mintegiak eta Tabakalerako Kutxa Kultur Kluban egin ziren jam session gautiarrek biribildu zuten egitaraua.

ESZENATOKIAK

IKUSLEAK

Trinitate Plaza

9.471

Kursaal Auditorioa

5.456

Victoria Eugenia Antzokia

3.034

San Telmo Museoa

942

Doako Kontzertuak (Frigo Gunea, Berde Heineken Agertokia, Heineken Terraza, Coca Cola Gunea, Konstituzio Plaza eta Nauticool)

156.097

GUZTIRA: 175.000



Jaialdiak

FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN ASTEA

27:

DONOSTIA / SAN SEBASTIAN 2016

FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN ASTEA
SEMANA DE CINE FANTASTICO Y DE TERROR

ABERRIA 29 OCTUBRE - AZAROA 4 NOVIEMBRE



27. Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astearen kartela



Jaialdiak FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN ASTEA



Train to Busan filma, ikusleen saria

Astearen XXVII. edizioak **japoniar kutsu nabarmena** izan zuen, **Fundación EU-Japan Festen** eta **Donostia 2016**ren arteko lankidetzari esker. Horren adierazle izan ziren kartela, mende honi buruzko atzera begirako ziklo bat, sei zuzendari japoniarren presentzia eta liburu monografiko baten argitalpena. Inaugurazioan eta zenbait jarduera paralelotan ere nabaritu zen japoniar kulturaren ukitu hori.

Baina, horrez gainera, ikusleek eta kritikak ondoen baloratutako film luzeen uzta ekarri zuen 2016ak. Lehiaketa-sailean, sari guztiak eman ziren, eta SyFy telebista-kateak diru-sari bat eman zuen espainiar film labur onenarentzat. Proiektzioak Antzoki Zaharrean eta Victoria Eugenia Antzokian izan ziren edizio horretan ere.

Zinemaldia hiriko puntu gehiagotara iristeko ahalegina egin zen, aurrez bezala; Tabakaleran lehen aldia izan zen.

Komikilabea ekinbidearekin batera jardun genuen.

Eragina denboran eta espazioan luzatzeko euskarrietako bat erakusketak izan ziren. 2016koetan, geure produkzio bat zegoen DSS2016rekiko proiektuaren barruan, Misterioaren Itsasargia, **Star Trek-en 50. urteurrenari** eskainitako beste bat, eta **Julen Ribas** marrazkilari euskal herritarren obrari eskainitakoa (Irunen ere ikusgai egon zen).



Halloween



Fantasiatzko Japonia, XXI. mendea



Jaialdiak
**GIZA ESKUBIDEEN
ZINEMALDIA**

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

**GIZA ESKUBIDEEN
XIV. ZINEMALDIA**

**XIV FESTIVAL DE CINE
Y DERECHOS HUMANOS**

**14TH HUMAN RIGHTS
FILM FESTIVAL**

15 - 22

apirila / abril / April
2016

Human
Rights
Film
Network



Giza Eskubideen XIV. Zinemaldiaren kartela



Jaialdiak GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA



Tony Gatlif, Giza Eskubideen Saria

Udaleko Giza Eskubideen sailarekin batera antolatuta, zinemaldi honen hamalaugarren edizioa izan genuen 2016an. Kontzientziak suspertu eta eztabaida sustatzen duen zinemaldia da hau. Zinemaldia inoiz baino **nazioartekoagoa** izan zen 2016an, Donostia 2016rekin lankidetzan burututako ekinbide bereziei esker: **Human Rights Film Network Europar Foruma** eta **Giza Eskubideen Zinemaldiko Nazioarteko Gazte Topaketa**. Jarduera horietan, beste herrialde batzuetako zinemaldi eta erakundeetako ordezkariak hartu zuten parte, eta zenbait film eta ekinbide aurkeztu ziren zinea aldaketarako

tresnatzat hartuta. Victoria Eugenia Antzokia egoitza enblematikoa izan zen berriz ere ekitaldi gehienentzat, baina beste gune batzuk ere erabili ziren, hala nola UBIK Tabakalera, Aieteko Jauregia...

Jarduera paraleloei bost erakusketa gehitu behar zaizkie: ***Bakea josiz: gatazka, arpillerak, memoria; Maitatzea ez da delitua, Gure borroka Afrikan; Artea eta Giza Eskubideak: Haur eta Gazteen XII. ekitaldia; "Una flor mixe" eta beste erreportaje batzuk; eta Hondar artean.***

2016an, lehiaketako **ohorezko saria Tony Gatlif** zinegilearentzat izan zen, ijito herriari ahotsa ematen baitio bere produkzio gehienetan. Errefuxiatuen drama izan zen proiektio eta eztabaida bat baino gehiagotako gaia, eta egon zen astirik oroimen historikoa eta ekologia jorratzeko ere, edota Richard Oribe olinpiarraren kemena mirestekoa.



Richard Oribe

I am Nojoom, Age 10 and divorced



Jaialdiak
SURFILMFESTIBAL

patagonia
PRESENTA:

SURFILMFESTIBAL™

14

surfilm festibal™
22/26.06.2016

OLATU GARBIAK **22.06** AQUARIUM
OCEANIC ADVENTURE **24.06** ALBAOLA SEA FACTORY
LA ZURRIOLA HANG OUT **25.06**
ZINEMA **25/26.06** ANTZOKI ZAHARRA
¡FIESTAAA!! **25.06** DABADABA
WWW.SURFILMFESTIBAL.COM



Jaialdiak SURFILMFESTIBAL



Daydream



The Man Who Sails With the Stars

Festibalaren 14. edizioa ez zen erraza gertatu, izenburu handirik ez zelako izan estreinaldien artean, eta eguraldia ere ez gnuelako alde izan kanpoaldean egindako bi egunetan. Nahiz eta babesleak galtzeak mugatu egin zituen zenbait proposamen, ekitaldiak frogatu zuen, beste urte batez, baduela gaitasunik **egokitze**ko, eta beti bezain **original** agertu zen edukien eta formen aldetik. Hala, Albalako Abentura Ozeanikoak sekulako arrakasta izan zuen jendearen, ontziolako taldearekiko

lankidetzaren eta edukiaren aldetik. Leku guztiak bete ziren, eta gau magikoa izan zen surf-kultura ospatzeko.

Berriz ere, munduko surfean ezinbestekoak diren lagunak biltzea lortu zen, eta zinea, kultura, ingurumen-proiektuak, musika eta giro ona nahastu zituen proposamenak.

2015eko edizio paregabearen ondotik, hondartzako jardueraren

proposamenari ez zioten lagundu eguraldiak eta olatuek, baina, hala eta guztiz ere, eta nahiz eta jende gutxiago bildu, zaleek eta belaunaldi berriek hartu zuten parte Zurriolako Olinpiadetan. Formatu originala, inondik ere, aldi on bat pasatzeko, surflariak eta surflari ez zirenak nahastuta, Donostiako hondartzetan eta inguruetan, festibalera nazioartetik etorritako gonbidatuekin batera.



Jaialdiak
dFERIA



Cartel de dFERIA



Welcome to the Montgomery Experience!, Montgomery

XXII. dFERIA, 31 ikuskizunen 40 emanaldi programatu ziren 10 eszenatokitan: Victoria Eugenia Antzokia, Victoria Eugenia Club, Antzoki Zaharra, Gazteszena (Egia), Imanol Larzabal (Lugaritz), Intxaurren K.E., Tabakalerako Patioa eta Ruiz Balerdi Aretoa eta DSS2016 Gune Antzokia eta Hangarra.

Guztira, 8.416 lagunek gozatu zuten programatutako emanaldiez eta, batez besteko okupazio maila %85koa izan zen. Orokorrean, 13.000 lagunek parte hartu zuten ferian, ikuskizunetako publikoa eta jarduera paraleloetako parte-hartzaileak kontuan hartuta, aurreko urteko parte-hartzea gaindituz (9.251 lagun). Sarrera salmentari dagokionez, azkeneko urteetako joera mantendu zen. Akreditatu kopuruari dagokionez, 406 profesional etorri ziren guztira; aurreko urtean baino %13 gehiago: 148 programatzaile, 48 banatzaile, 120 ekoizle eta konpainien ordezkariak, 24 kazetari eta bestelako 66. Espainia, Polonia, Mexiko, Uruguai, Argentina, Frantzia, Dominikar Errepublika, Brasil eta Kolonbiako programatzaileak izan ziren 2016ko ferian.

Jarduera paraleloetan 5.200 lagunek parte hartu zuten:

- Artista eta sortzaileentzako antzerki garaikide tailerra: *Clínica de la*



Teresa (Ora al Alma), Losdedae

obsesión: 6 lagun.

- Antzerkigintza berriak: 11 lagun.
- *Espainiar antzerkia poloniar kartelean* erakusketa: 2.000 lagun.
- Eider Ibarrondoren *Irudimenezko espazioak* erakusketa: 1.000 lagun.
- Akitania-Euskadi lan mahaia: 20 lagun.
- SAREAko asanblada: 46 lagun.
- Esquina Norteko bilera: 10 lagun.
- Hitzaldia *Chévere: prácticas de mediación en el contexto de una compañía residente*: 15 lagun.
- ADDE, Euskal Herriko Dantza

Profesionalen Elkarteko katalogoaren aurkezpena: 280 lagun.

- La Cuadra de Sevillako aurkezpena: 230 lagun.
- Kimu, Mercartes eta Cofae Sariko aurkezpenak: 210 lagun.
- ESKENA bilera: 12 lagun.
- COFAEren topaketa sektorearekin: 7 lagun.
- *La mirada del otro* antzezlaneko solasaldia: 165 lagun.
- Afari dominikarra: 160 lagun.
- Eguneko Topagunea: 690 lagun.
- Gaueko Topagunea: 345 lagun.



Quatro santos em três actos, Teatro do Bairro & Ar de Filmes

2016ko nobedadeak

- 6 ikuskizun azpititulatu ziren: 4 frantsesez eta ingelesez, 2 euskaraz eta gazteleraz.
- Bi agertoki berri izan ziren dFERIA-n: Tabakalerako Patioa eta Ruiz Balerdi Aretoa.
- Tabakalerako Kutxa Kultur Plazan eguneko topagunea izan zen eta bertan, bazkaldu, bildu eta aurkezpenetara joateko aukera izan zuten akreditatuek.
- Dominikar afaria feriarri amaiera emateko.
- DSS2016EUekin lankidetzan programatutako jarduerak.

Programazioa

31 ikuskizunen 40 emanaldi programatu ziren. Horietatik, %70 modu bateko edo besteko estreinaldiak izan ziren:

- Estreinaldi orokorrak: *Pim pam fuera* (En2do - Karra Elejalde), *Eroski Paraíso* (Chévere), *Dantzari* (Jesús Herrera), *Irrintzi* (Organik) eta *Kaspar Hauser, el huérfano de Europa* (La Phármaco).
- Gaztelerazko estreinaldiak: *Fuera de juego* (Borobil Teatroa).
- Estreinaldiak Euskal Herrian: *Amarga dulce* (Paula Quintana), *Welcome to the montgomery experience*

(Montgomery), *Llopis* (La teta calva), *Teresa (ora al alma)* (Losdedae), *Foot-ball* (Gelabert), *Hey bro! Hipster show* (Fabiolo), *Otelo* (Viajeinmóvil), *Libertino* (Marco&Chloé) eta *El canta, yo cuento* (Víctor Víctor).

- Estreinaldiak Estatuan: *Quatro santos em três actos* (Teatro do bairro & Ar de Filmes), *À la renverse* (Théâtre du Rivage) eta *Ether* (Collectif A.A.O.).
- Estreinaldiak Europan: *Tiranía das cores* (Ertza), *Érase una vez...* (Oc ye nechca) (Carretera 45) y *Ñucanchik antisuyu rimay* (Habla nuestra selva) (La mestiza).

2016ko dFERIA-n **euskararen erabilera** nabarmena izan zen:

- *Jokoz kanpo*, Borobil Teatroa.
- *Muxua*, Tanttaka Teatroa.
- *Oskara*, Kukai Dantza & Marcos Morau-La Veronal.
- *Irrintzi*, Organik.
- *Zergatik, Jamil?* Tartean Teatroa.
- *Kitto, nik utziko dut*, En2do.

Aurten ere, konpainiek dFERIAren aldeko apustua egin zuten, euren ikuskizunen estreinaldietarako erakusleho gisa hartuta.

Ferian %51 antzezlanak izan ziren, %39 dantza ikuskizunak eta gainerako %10 diziplina anitzekoak. Jatorriari dagokionez, %47,5 euskal ekoizpenak izan ziren, %32,5

espainiarrak eta %20 atzerrikoak.

Ondorioak

dFERIA 2016 arrakastatsua izan zen konpainien maila artistiko handiari esker. Arte eszenikoen sektoreak feriarekiko atxikimendu handia erakutsi zuen eta publikoaren harrera bikaina izan zen. Feriara hurbildu ziren ikusle eta profesionalen itxaropenak bete ziren. Aurkeztutako ikuskizunek kalitate handia izan zuten eta euskal antzerkiaren eta dantzaren mailaren erakusgarri izan ziren ikusle, zale eta komunikabideentzako. Duela zenbait edizio finkatutako erronka guztiak gainditu ziren, kalitatezko programazioa, berritzailea eta dantza eta antzerkiaren arteko oreka mantentzeko. Guztion artean -sektorea, administrazioak, prentsa eta ikuslegoa- antzerki eta dantzaren arloa sustatzen eta bistaratzen dFERIAk egiten duen lan garrantzitsua ezagutzera eman zen. dFERIAk ahalbidetu dituen salerosketen aurreikuspenak ere oso baikorrak izan ziren. Atzeritik etorritako profesionalen dagokienez, interes handia azaldu zuten euskal antzerkia eta dantza beraiei herrialdeetan aurkezteko.

dFERIAren errotzea nabaria da eta hiru berritasun nagusi azpimarratuko ditugu:



Tiranía das cores, Ertza

- Azpitituluen erabilera euskal konpainien testuetan, Etxepare Institutuari esker.
- Kutxak Tabakaleran duen gunearen erabilera eguneko topagune gisa.
- Azken urteetako joera jarraituta, euskararen presentzia nabarmena izan zen agertoki nagusietan, bai erabilera baita kontzeptu aldetik ere.

Etorkizunera begira, dFERIA duela urte batzuk osatutako lan taldea - eszena, antzerkia eta dantza munduko enpresak eta erakunde publikoak- mantenduko da.

Amaitzeko, azken urteetan lankide izan ditugun erakunde ugariei eskerrak

eman behar zaizkie, zinez: INAEM, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundia. Halaber, ezin aipatu gabe utzi KUTXA, SGAE Fundazioa, DSS2016EU, Etxepare Institutua, Iberescena, OARA (Office Artistique de la Région Aquitaine), AC/E (Acción Cultural Española) erakundeekin ezinbesteko lankidetzak. Urtero bezala, bereziki eskertu nahi dugu euskal antzerki eta dantza konpainien eta Eskenaren (Euskal Antzerki eta Dantza Konpainien Elkarteak) parte-hartze aktiboa, hala nola Euskal Aktoreen Batasunarena eta Artez aldizkariarena. Bestetan bezala, haiek guztiek euren alea jarri zuten 2016an ere. Izan ere,

ahalegin berezia egin zuten, baita ekonomikoki ere, besteak beste, salmenta sustatzeko promozioetan parte hartuz. Gainera, esker ona adierazi nahi diegu programatzaile, banatzaile, ekoizle eta enpresariei beren parte-hartze eta konpromisoagatik, eta komunikabideei eta bertako profesionalei dFERIAri emandako babesagatik. Azkenik, publikoa ere eskertu nahi dugu, eta azken urteetako joera jarraituz, erantzuna bikaina eman zuelako dFERIAz gozatuz.



La Mirada del otro



Zergatik, Jamil?



Jaialdiak
LITERAKTUM



HITZEN HIRIA

LA CIUDAD DE LAS PALABRAS

literaktum



James Rhodes

Literaktum jaialdian **19 literatur proposamen** izan ziren, askotarikoak, eta nazioartean sona duten izenak bildu zituen **maiatzaren 2tik 14ra** bitarte. Bereziki magikoa gertatu zen **James Rhodes**ek eta Mikel Chamizo kazetariak San Telmo Museoa egindako solasaldi-kontzertua. **Juan José Millás**ek bete egin zuen Okendo Kultur Etxeko ekitaldi-aretoa, eta beste hainbeste lortu zuen **Elvira Lindok**

Tomasenen. Gainera, Literaktumek literaturaz goatzeko beste modu bat proposatu zuen, **Bernardo Atxagaren** Muskerraren Bidean egindako bidaia baten bidez, haren jaioterri Asteasuko kale eta parajeetan barrena.

Literaktum literaturaz hainbat ikuspuntutatik, zenbait hizkuntzatan eta formatu desberdinez goatzeko proposamen bat da, sarean egina.

Literaktum energia-metaketa da. Donostia Kulturako Kultur Ekintza, **Liburutegi Zerbitzua** eta **San Telmo Museoa** elkartu egiten dira **Koldo Mitxelena Kulturunearekin**, **Gipuzkoako Liburuzainen Elkartearekin** eta **Euskal Idazleen Elkartearekin**, **sareko jaialdi bat** sortzeko. Zentro eta ekipoen elkartze horri esker, Literaktumek ertz guztietatik eta era guztietako jendeentzat ekiten dio literaturari.



Bernardo Atxaga



Elvira Lindo



Juan José Millás



Jaialdiak
DKLUBA



Izaro

Donostikluba, 2016an, **Dkluba** bihurtu zen, marka eta diseinu berri bat bere betiko printzipio eta balioei eusten dien musika independentearen zirkuitu batentzat. Hala, Dklubak apustu ausarta egin zuen **bertako musika-taldeak** bultzatzeko, nola eta kontzertuak ugarituz hiri osoko taberna eta aretoetan, eta talde gonbidatu gisa jotzeko bidea erraztuz areto-kontzertuetan.

46 kontzertu programatu ziren, eta **11.000 ikus-entzule** izan ziren kontzertuetan. Aipamen berezia

merezi du Donostikluba 2016 jaialdiak; bi asteburutan egin zen Gazteszenan, eta, besteak beste, **Lloyd Cole, Holy Fucks, Izaro** eta **Iban Zaldia** (hau DJ gisa) izan ziren bertan.

Bereziki arrakastatsuak gertatu ziren **Mojo Working** jaialdia, non "sold out" kartela jarri behar izan baitzen, eta **JamRock Festibala**, gero eta jende gehiagoren erakarle urtetik urtera. Dklubaren beste hitzordu handi bat kalean izan ohi da, **Musikaren Eguna** ospatzeko, Fnac-ekin lankidetzan. 2016an, 3.000

lagunetik gora hurbildu ziren kaleko agertokira, Loiola kalean, **Marky Ramone's Blitzkrieg, Sky Beats, Eraul, Howdy** eta beste artista batzuekin gozatzeko.

Intxaurrondo Kultur Etxeko aretotik pasatu ziren, besteak beste, **Nada Surf, Laura Cox, Alice Francis** eta **WAS**. Eta, amaitzeko, aipatzekoak dira jarraitzaile leialak dituzten eta hiriko zenbait taberna eta aretotan (**Doka, Dabadaba, Le Bukowski, Undermount...**) egiten diren formatu txikiko kontzertuak.



Jaialdiak
OLATU TALKA

OLA
TU !!!
TALK
A !!!

Hiria egin
Hacer ciudad !!!



Jaialdiak OLATU TALKA



Big dance

Olatu Talka jaialdia Kultur Hiriburutzak ondare gisa utziko duen proiektuetako bat izango da. Horregatik, 2016a oso urte garrantzitsua izan zen Donostia Kulturak eta Hiriburutzak bultzatu eta ekoiztutako jaialdi horrentzat, eta urte horretan ere arrakasta handia izan zuen. **25.000 lagun** baino gehiago bildu ziren 2016ko edizioan, eta **2.000 eragile** baino gehiago izan genituen, **200 jarduera** egiteko Olatu Talkaren hiru egunetan. Datu horiek are balio handiagoa dute kontuan izanez gero eguraldiak ez zigula askorik lagundu kalerik kale dabilen jaialdi horretan.

2016an, aldatu egin zen jaialdiaren goiburua, eta Astindu hiriaren ordezkari **Hiria egin** jarri zen. Helburua zera zen, Olatu Talka tresna bihurtzea hiria deritzogun giza ekosistema hori eraikitzeko. Hiria egiteko prozesu horretan, **Puntu Kritikoak** izan ziren elementu nabarmen bat: hiriko sei

gunetan jardun genuen, genero ikuspegitik segurtasunari zegokionez akatsak zituzten sei puntutan.

Olatu Talka jaialdia **maiatzaren 20tik 22ra** egin zen, eta nabaria izan zen auzo guztietan, aurreko urteetan donostiarrek egindako eskaerei erantzun baitzien; kultur etxeek bete-betean esku hartu zuten, jakina. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, hiru egunen balantzea oso positiboa izan zen.

Inaugurazioa Big Dance gertaeraren bidez egin zen, British Council-ekin batera antolatuta, eta mundu osora hedatu zen haren oihartzuna. Donostian, Kursaal-eko terrazak izan ziren agertokia, eta helburu nagusia hauxe izan zen: egun eta ordu berean, hainbat leku, kultura eta sinesmenetako pertsonak dantzaren inguruko esperientzia eta pasioa partekatzea.

Aurreko urtean bezala, Kontxako gau-azokak **-Kontxa Gaumarket-** agerian utzi zuen era askotara goza daitekeela Kontxako arkupeez. 50 saltoki, musika zuzenean eta, euria egin arren, milaka lagun hurbildu ziren Donostiako sortzaileen talentuaz goatzera.

Groseko Katalunia plazan, **hizkuntzekin eta kulturarekin** zerikusia zuten zenbait jarduera egin ziren. Une gogoangarrietako bat **castell handi bat** eraikitzea izan zen: Vic-etik etorritako 150 castellerrek hartu zuten parte, hau da, 2016ko Kultura Katalanaren Hiriburutik, zeinak presente egon nahi izan baitzuen senidetze modu horren bidez.

Egiako haurrek ahalik eta modurik autonomo eta seguruenean egin dezaten ikastolako joan-etorria, auzoko hainbat elkartek eta biztanlek hartu zuten parte **Egia Segurua** jardueran. Egiatarrek eraldatu egin zuten auzoa,



Kontxa Gaumarket





Basoka

auzolanari esker eta jai-giroan.

Miramongo basoan, **Basoka 2.0**rekin izan zen hitzordua. Proposamen folk hori ostiraleko arratsalde-gauean egin zen, eta honako hauek hartu zuten parte: **Iker Lauroba, Luke Armstrong, Charlie and the Colors, Araoz abesbatza...** Giro aparta sortu zen, naturarekin bat egiterainokoa.

Olatu Talkaren **amaiera-ekitaldia** modu lasaian egin zen. Ordura arteko jarduerak bizitasun handikoak izan baziren ere, amaieran “dezibelioak jaitsi” ziren, eta iraunkortasuna, kontsumo arduratsua eta ingurumen-kontzientzia izan ziren printzipio nagusiak. **Slow Jaiaz** ari gara, 2016ko jaialdiaren apustu sendoenetako batez. Eguraldi txarrak programazioa

berregitera behartu zuen, eta Antiguako tunelera egokitzea; hasierako ideia, hala ere, Kontxako paseoaren gehiena trafikoari ixtea zen. Hala, bertaratuek gozagarri izan zituzten musika-errezitaldiak, yoga-jarduerak, tai-txia, jam contact, kontsumo arduratsua irizpidetzat hartuta jateko eta edateko postuak, erakusketak...



Slow Jaia



Jaialdiak
POLTSIKO ANTZERKIA

2016 **POLTSIKO** **ANTZERKIA** TEATRO DE ROISILLO

25
URTE
AÑOS



Jaialdiak POLTSIKO ANTZERKIA



Pepín Tre



Amaiera ekitaldia Dabadaban

Poltsiko Antzerkiko jaialdiaren **25. urteurrena** handikiro ospatu zen. Formatu txiki eta ertaineko antzerki-ikusbizun jaialdi horrek **3.000 ikusle** inguru erakarri zituen Donostiako taberna eta aretoetan eskaini ziren **26 emanaldietara**. Jaialdiaren **amaierako ekitaldia** urteko gertaera handien artean sartzeko modukoa izan zen.

Poltsiko Antzerkia sendotuz doa edizioz edizio; ikus-entzule gazteak ditu jomugan, eta *varietés* antzerkira erakarri nahi ditu ohiko antzerki-guneetara joateko ohiturarik ez duten ikus-entzuleak, nola eta antzerki-emanaldiak jende horiek ohiko dituzten lekuetan programatuz.

Poltsiko Antzerkiko XXV. edizioa bereziki orekatua izan zen **euskararen** erabileran eta **genero-ikuspegiaren** aldetik: ikusbizun **% 50**etan emakumeak izan ziren protagonista, eta euskaraz egin ziren.



© Josu Trueba Leiva / Bostok Photo

Kursaala 2016ko Olatu Talka jaialdian

Europako Kultur Hiriburua izan zen Donostia 2016. urtean eta horrek eragina izan zuen Donostia Kulturaren jardunean ere. 2016. urtean Donostia Kulturak hainbat ikuskizun, programa eta jaialdi bultzatu zituen DSS2016Eurekin batera. Batzuk iazko programazioa izan ziren, baina beste batzuk jarraitzeko bokazioa dute eta Hiriburutzak utzitako legatuaren zati izango dira.

Hona hemen Donostia Kulturak 2016 Kultur Hiriburutzarekin batera iaz egindako programa nagusiak.

Olatu Talka

Olatu Talka jaialdiak Donostiako oinarrizko kultura sortzen duten pertsonen lana eta sormen grina bistaratzea du helburu. 2016. urtean **maiatzaren 20, 21 eta 22an** izan zen **7. Olatu Talka**, eta jaialdi arrakastatsua izan zen, azken egunean, eguraldi euritsua medio, Slow Jaia moldatu egin behar izan zen arren. Hiriburutzako hautagaitzaren harira sortutako jaialdia Donostia 2016k eta Donostia Kulturak elkarlanean antolatuko zuten iaz eta 2017tik aurrera Donostia Kulturak hartuko du beregain antolakuntza ardura osoa.


Beste Hitzak-Other Words

2015. urtean hastapeneko lanak burutu ondoren (proiektuko bazkideekin nahiz Europako ordezkariekin bilerak, dokumentazioa prestatzea, plangintza osatzea), 2016an, hizkuntza txiki eta gutxituak sustatzeko sortu zen Beste hitzak-Other Words ekimenak lehen urtea bete du. Hamabi hilabeteen zehar, hamar literatur egonaldi gauzatu ziren, proiektuko bazkide diren Europako bost lurraldeetan: **Irlanda, Mazedonia, Eslovenia, Frisia eta Euskal Herria**. Guztira, **hamabi idazlek** parte hartu dute sorkuntzara bideratutako literatur egonaldietan: narraziogileak, poetak, eleberrigileak.

Aipagarri jotzen dugu, bestalde, otherwordsliterature.eu webgunearen bilakaera. Aurreikusitako bezala, hori da ekimenaren euskarri nagusietako bat, eta bertan jasota geratzen da bazkideen nahiz idazleen jarduna. Hiru atal nabarmendu daitezke, proiektuaren egunerokotasunaren isla: hasierako orrialdea, idazleen blog-a eta agenda; guztiak, sei hizkuntzatan sailkatuta.



Other Words proiektuko kideen bilera



Labore

Mugalariak

Azken urteetan, Hego Euskal Herriko eta Akitaniako antzoki eta kultur zentroak ateak irekitzen ari dira, sorkuntza-fasean dauden dantza- eta teatro-proiektuak egonaldian hartzeko. Aldi berean, mugaren bi aldeetako elkarteak, herritarrak eta (batez ere) haurrak konpainia parte-hartzaileen prozesuak elkarbanatzen ari dira, proiektuok eta beren buruak aberastuz, bitartekaritza artistikoaren dinamiken bidez. Proiektuaren prozesua bera ezagutarazteko eta ondoren sortutako lanak zabaltzen parte hartu zuen 2016an Donostia Kulturak. Hala, hainbat proiekturen emanaldiak izan dira Donostia Kulturaren antzokietan eta bitartekaritza ekintzak ere izan ziren. Lugaritzek Compañía Théâtre

des Chimèresekin elkarlanean Azken itzulia sortu zuen; Gazteszenak eta Angeluko Antzokiak Dantzaz konpainiaren **Dantzarrantzan aurkeztu zuten, eta Victoria Eugenia Antzokiak eta Baionako Escene Nationalek Bivouac konpainiaren **Théâtre des Chimères** estreinatuko dute.**

Kimu

Kimu programan deialdi bidez hautatutako Iparraldeko eta Hegoaldeko lau artistek haurrei eta gazteei zuzendutako arte eszenikoen inguruko berariazko trebakuntza jaso zuten urtebetez. Programaren helburua master-classekin eta jaialdietako egonaldiak trebakuntza-ibilbide bat diseinatzea da, haur eta gazteei bideratutako euskarazko arte

eszenikoen sorkuntza aberasteko eta dinamizatzeko. Donostia 2016k, Donostia Kulturak eta Euskal kultur erakundeak antolatu zuten Kimu programa eta 2016an **Eneritz Zeberio, Amaia Hennebutte, Ander Fernandez eta Ainara Gurrutxagak** jaso zuten haur eta gazteei zuzendutako arte eszenikoetan trebakuntza. 2017-2018 ikasturtera arte iraungo du prozesuak.

Antzerkigintza berriak

Proiektuaren helburua idazketa dramatiko propioa sustatzea da. Bekak eman zitzaizkien beste literatur genero batzuetako idazleei, arte eszenikoen profesionalei eta, oro har, antzerkiaren esparruan kontatzeko istorioren bat zuenari. Victoria Eugeniaren, Arriaga Antzokiaren eta Gasteizko Principal Antzokiaren laguntzak ahalbidetu du obra horietakoren bat (tutoreen laguntzarekin, kideen ekarpenekin eta nazioarteko masterclass batekin eraikiak) oholtzara eramatea. 2016an aukeratutako eta garatutako egileak eta proiektuak hauek izan ziren: Ozkar Galan **Antzerzlanaren abiapuntua**; Olatz Gorrotxategi **43°13'44"N**, Oier Guillan **Sustraiak han dituenak**; Mikel Gurrea **Soka**; Arantza



Mugalariak programan eskainitako ikastaroaren irudia



DSS2016EUrekin lankidetza

BERRIAK



Ikusmira Berriak programa

Iturbe **Ahotsen aberri**; Alejandra Prieto **Venderé barras de pan**; Carmen San Esteban **Sin título**; María Velasco **La meretriz Mona y el burka invisible**. Badirudi beste edizio batzuk izango direla etorkizunean ere.

Rekording

Donostiako leku batzuk eta bertako bizimodua nolakoa zen

irudikatzen laguntzen duten istorioak gordetzen ditu herritarren memoriak. Kontakizun horiek, 40 urtetik gora dituzten oroitzapen subjektiboak, baliagarri izan ziren istorio berriak sortzeko egitura gisa, eta beste artista eta gidoigile batzuek berrinterpretatu zituzten, irratia-antzerkiko eta soinu-arteko tailerretan. Kartografia sonoro hori narrazioek eta sormen-lanek osatu zuten, eta mugikorretako aplikazio baten bidez entzun zitezkeen,

pasieran ibili artean. DSS2016ren proiektuak lotura du **Casares Irratiarekin** eta horren kontura hainbat ikastaro, tailer eta proiektu gauzatu ziren Casaresen.

Ikusmira Berriak

Zinema sorkuntza bultzatzeko ekimen horretan Tabakalera, Zinemaldia, Filmategia DSS2016EU eta Donostia Kulturak parte hartu zuten, eta egonaldiak egin ziren Tabakalera.

Kalebegiak

Donostiaren erretratu bat egin zuten hamabost zinemagilek eta 2016ko Zinemaldian estreinatu zen. Kalebegiak proiektuak harreman berri bat proposatu zuen zinemaren eta Donostiaren artean, hiriak betidanik erakustaldiekin eta jaialdiekin izan duen erlaziotik desberdina. Ikuspegi berri horrek tokiko ekoizpen zinematografikoa sustatzea bilatu zuen nagusiki, eta **Larrotxene Kultur Etxea** izan zen proiektuaren bihotza.



© Oscar Moreno

1516-2016. Bake Itunak erakusketa



© Oskar Moreno

Europar Elkarrizketak

Labore

Donostia 2016k, Donostia Kulturarekin eta Donostiako Museoen Sarearekin lankidetzan zazpi proiektu aukeratu zituzten, artistek sareko museoetako batean garatzeko. San Telmo Museoan Zuhar Iruretagoienak egonaldia egin zuen museoko XVII. Eta XVIII. Mendeko pintura sortaren inguruan lan eginez **Absentia. Triangelu gorria, lerro urdina** lana garatu zuen, kolekzioari buruzko errebisio garaikidea eginez.

Europar Elkarrizketak

San Telmo Museoak 2014an jarri zuen martxan Europar elkarrizketak zikloa, eta 2016an, beste eragile batzuekiko lankidetzari esker -

batez ere DSS2016Eurekikoari-, trinkoagoa izan zen aldikotasunari dagokionez. Lankidetzaren bidetik, bestalde, nazioartean izen handia duten pertsonak etorri ziren San Telmoa -besteak beste, **Joanna Anneke Rummens, Eben Moglen, Maialen Chorrut** edo **Xabi Alonso**-, gai interesgarriez jarduteko: immigrazioa, merkataritza-tratatuak, Brexit-a, kirola, askatasuna eta pribatutasuna...

Corners

Corners of Europe Europako periferiako plataforma bat da. Hogeita hamar erakunde eta instituziok baino gehiagok eta 60

artistak —tartean, Euskal Herriko seik— osatzen dute eta Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuak bertan parte hartu zuen. Proiektuak diziplina anitzekoak izan ziren eta artistek 2012tik hona gure kontinenteko txokoetan barrena egin zituzten bidaietan dute jatorria. Egonaldi horietan ezkutuago edo ageriago dauden errealitate sozial, politiko eta kulturalak ezagutu zituzten eta esperientzia horietatik abiatuta, artistak taldetan antolatu ziren, nazionalitateak eta diziplina artistikoak nahasiz, lankidetzaren proiektu irekiak diseinatzeko. 2016an Donostiaren txanda izan zen, eta Cornersen 11 proiektu garatu eta aurkeztu ziren Amaran, irailaren 19tik urriaren 2ra. Aurkezpenak espazio ez konbentzionaletan egin ziren, artea maiz ikusten ez dugun lekuetan.



Kalebegiak filmaren emanaldia Belodromoan



© Attila Nagy

The Naked Clown

Erakusketak San Telmon

1966 | Gaur Konstelazioak | 2016

erakusketak ireki zuen urteko erakusketa-programa, DSS2016EUrekin lankidetzan eta Fernando Golvano komisario zelarik. GAUR taldearen sorreraren 50. urteurrena betetzen zela eta, Dionisio Barandiaran ekarri zen gogora, eta taldeko artisten artelanak beste artista garaikide batzuenekin erkatu ziren.

Tuiza, Federico Guzmán artistak emakume saharaiaren mehlfeekin egindako jaima, Musekoko patioan ipini zen, eta topaleku bihurtu zen apirila eta uztaila bitartean. Astero, herri saharaiaren kulturarekin lotutako jarduerak egin ziren, **Hondar artean** proiektuaren barruan.

1516-2016. Bake Itunak, izan zen urtean bisitari gehien erakarri zituen erakusketa. Pedro G. Romero izan zen komisarioa. Erakusketa DSS2016EUren *Bake-ituna* proiektuaren parte bat zen. Proiektua 2013an jarri zen martxan, eta 2016an iritsi zen goren puntura. 37.000 lagun inguruk bisitatu zuten erakusketa. Inguruko beste museo batzuekin eta nazioartean ospe handia duten erakundeekin lankidetzan jardun genuen. San Telmo Museora etorritako jendeak maisu handien lanez gozatzeko aukera izan zuen: Murillo, Kokosckka, Picasso, Zurbaran...

Donostiapedia

2016an zehar DSS2016EUK eramandako wiki proiektuan parte

hartu zuen Donostia Kulturak, eta hainbat ekimen antolatu ziren bai wikilariak prestatzeko bai ekimena herritarrei ezagutarazteko.

Irakurketak eta Wikiproiektua

Donostiako Liburutegiek DSS2016EUrekin egindako bi proiektuk ere aipamena merezi dute: batetik, **Irakurketak** programan liburu-saltzaileek, editoreek eta liburuzainek eginiko aukeraketarekin hiriburutzaren liburutegi modukoa osatu zen; eta bestetik, Donostiako Udal Liburutegiko Haur Liburuaren Dokumentazioguneak bultzatutako **Wikiproiektua: Haur eta Gazte Literatura**.

Hainbat jaialdi

Proiektu edo programez gain, bestelako elkarlanak ere egin zituen Donostia Kulturak Donostia 2016rekin. Alde batetik, Donostia Kulturaren Jaialdiak hainbat arlotan aritu ziren Donostia 2016rekin, eta horren adibide dira, esaterako, **Fantasiako eta Beldurrezko Zinema Astearen Misterioaren itsasargia** eta Heineken Jazzaldiaren baitan egindako **12Points** Jaialdia.



Donostiapedia



DSS2016EUrekin lankidetza



© Sara Santos

Danborraden elkarretaratzea Kontxan, DSS2016ren inaugurazioan

Ohiko programazioa

Ohiko programazioa ere areagotu egin zen, eta musika, antzerkia eta dantza arloan programazio berezia antolatu zuten Donostia Kulturak eta DSS2016EUK. Musika arloan, **Mariachi Vargasek** eta **Orfeo donostiarrak**, batetik, eta **Michael Nymanek**, bestetik, eskainitako kontzertuak aipa daitezke. Antzerki arloan, **Hotel Splendid** (2. Mundu Gerran 200.000 emakume korearrek japoniarren esku jasandako sexu esplotazioa hipside duena) eta **Incendios** (Libanoko gerran girotutakoa, Nuria Espertek eta Ramón Bareak antzeztua Mario Gasen zuzendaritza artistikopean). Dantza ikuskizunei dagokionez, GöteborgsOperans Danskompanik aurkeztutako **Noetic**, Oreak Txk, Hirayama Motokok eta Toko Emik sorturiko **Hybrid rythm & dance lanaren estreinaldia** eta Kukaik La Veronalekin eginiko **Oskara aipatu behar**.

Festak

Donostia Kulturako Festak unitatea urte osoan aritu zen Europako Kultur Hiriburutzarekin

elkarlanean, bertako festetako energiaren zati handi bat horretara bideratuz. Ekimen ugari izan ziren, baina inaugurazio ekitaldiko bat azpimarra daiteke, Kontxako hondartzan 6.500 danbor jotzaile elkartu baitziren. Horrez gain, Su Artifizialen 53. Lehiaketan hiriburutzari egindako keinua ere aipagarria da; "Europako Kultur Hiriburuak" lelopean kultur hiriburutza izandako 7 hiriburutako su-etxek parte hartu baitzuten.

BALLET T eta ESZENA T

Zuzenean DSS2016EUrekin zerikusia ez duten mugaz gaindiko beste zenbait proiektu ere BALLET T 2007tik ari da jardunean, truke hirukoitzean hain zuzen ere: kultura-, arte- eta hezkuntza-trukean, denen artera ekarriz dantza-ikuskizunei ekiteko modu desberdinak, bai arte-produkzioaren aldetik, bai dantzari eta koreografoen prestakuntzaren aldetik, eta bai ikusle berriak sortzeki eta sentsibilizatzeki dagokionez ere. Helburu nagusia da Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko sinergiak aprobetxatzeko bidean jartzea Donostia (Donostia Kultura) - Biarritz (Malandain Ballet Biarritz) ardatzean, ikuskizun

koreografikoak ekoizteko/emateko espazioaren barruan. Lankidetza-proposamen originala da, eta urte osorako jarduerak planteatzen ditu. Parte-hartze handia lortzen dute jarduera guztiek.

BALLET Tk (2007) sortutako dinamikaren eredura, antzerkian ere lanean hasi ginen ESZENA T deitu dugun proiektu batean. Hau ere kultura-, arte- eta hezkuntza-trukea da, antzerkia zaleei eta oro har ikusle interesatuei hurbiltzeko xedez. Arte eszenikoetan sentsibilizatzeak eta ikus-entzule berriak sortzeak lehentasuna dute betiere Donostia Kulturarentzat. Helburu nagusia da Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko sinergiak aprobetxatzeko bidean jartzea Donostia (Donostia Kultura) - Baiona (Scène Nationale du Sud-Aquitaine) ardatzean, antzerki- eta zirku-ikuskizunak ekoizteko/emateko espazioaren barruan. Lankidetza-proposamen originala da, eta urte osorako jarduerak planteatzen ditu. Honelako jarduerak, besteak beste: egonaldi artistikoak, koprodukzioak, informazio-trukea eta antzoki eta ikastaroen artean ikus-entzule eta partaideen joan-etorria bultzatzeko programak. Herritarrek ezin hobeto hartzen dituzte jarduerok.



2016an, Donostia Kulturako Produkzio Unitateak **975 ekoizpen** baino gehiago egin zituen, **Victoria Eugenia Antzokian, Antzoki Zaharrean, San Telmo Museoan, Kursaal zentroan** eta **beste gun**e batzuetan egindakoak batuta. Ekoizpenotan sartzen dira **Antzerki Feria, Giza Eskubideen Zinemaldia, Olatu Talka jaialdia, Heineken Jazzaldia** eta **Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea** ere.

Aretoak alokatzeari dagokionez, nabarmentzekoa berriz ere **Passio for Knowledge 2016** bi urtez behingo kongresua egin zela Victoria Eugenia Antzokian, Donostia International Physics Center-ek antolatuta.

Donostia Kulturaren produkzio horiez gainera, 2016an beste entitate eta erakunde batzuei ere eman genizkien gure zerbitzuak.

Kursaal Eszenaren kontzertuak (musika klasikoa eta herri-musikak).

Musika Hamabostaldiaren kontzertuak Kursaal Jauregian, Victoria Eugenia Antzokian, San Telmo Museoan, bai eta beste gune batzuetan ere.

Produkzio Koordinazioa, **Donostiako Nazioarteko Zinemaldiarekin** batera, Victoria Eugenia Antzokian.

Gabonetako Kontzertua (**El Diario Vasco**).

Donostiako Udaletxearen apaingarritarako argiztapena inauguratzeko ekitaldia.

Arte Ederretako Urrezko Dominak emateko ekitaldia, **Kultura Ministerioaren** eskutik.

Azkenik, nabarmendu beharrekoa **2016an Donostia Europako Kultur Hiriburu izatearen Proiektuaren Zuzendaritza eta Produkzio Koordinazioa (2.576** jarduera, gutxi gorabehera).



Teatro Victoria Eugenia